18.- lagunentzako ekar dot
(lagunarentzat ekarri dut)

19.- oneri esan dotzet
(hauei esan diet)

20.- au lagunena da
(hau lagunena da)

21.- semen esne emon dotzet
(semeei esnea eman diet)

22.- iru etzetan egonas
(hiru etxetan egon naiz)

23.- gizonari esan dotzet
(gizonari esan diot)

24.- au semena da
(hau semearena da)

25.- onek ekar daus semek
(hauek ekarri ditu semeak)

26.- au onena da
(hau honena da)

27.- lagunek ekar daus
(lagunak (subjetua) ekarri ditu)

28.- onentzako ekar dere
(hauentzat ekarri dute)

29.- onek lagunena(k) tire
(hauek lagunarenak dira)

30.- lagunentzako ekar dot
(lagunentzat ekarri dut)

Oposaketan agertzen diren esaldi bikoteak multzo bitan bana ditzakegu, alde batetik erakusle alorrekoak, eta beste aldetik, izen alorrekoak; jarraian bikote horiek ematen ditut oinarrizko maiztasuna hertziotan neurtuta:

a) Erakusle alorrekoak (Oinarrizko maiztasunaren datuen bidez osatuko altuerek osatzen duten melodia 1. eta 2. grafikoetan ikus daiteke)

16.- onek ikusi sittue	: 176-217
9.- orrek ikusi sittue	: 204-189
3.- onen esan dotzet	: 176-196-196
19.- onen esan dotzet	: 200-186-176
26.- au onena da	: 176-176-176
15.- au onena da	: 196-167-160
11.- onentzako ekar dere	: 179-193-193-176
28.- onentzako ekar dere	: 193-176-176-176

b) Izen alorrekoak (Ikus bitez 3, 4, 5, 6 eta 7. grafikoak):

25.- onek ekar daus semek	: 155-148
14.- onek semek ekar daus	: 200-182
5.- semen esne emon dotzet	: 173-200-208
21.- semen esne emon dotzet	: 193-179-104
24.- au semena da	: 163-167-176

2.- au semena da	: 193-160-148
10.- onek semenak dire	: 162-176-152
17.- onek semenak dire	: 193-176-152
12.- sementzako erosi dot	: 179-193-189-170
4.- sementzako erosi dot	: 208-196-189-173
23.- gixonari esan dotzet	: 176-196-196-196
1.- gixonari esan dotzet	: 167-204-189-162
8.- lagunek ekar daus	: 160-196-204
27.- lagunek ekar daus	: 170-213-208[7]
6.- au lagunena da	: 173-182-176-173
20.- au lagunena da	: 176-193-160-152
29.- onek lagunena(k) tire	: 170-182-179-146
13.- onek lagunena(k) tire	: 162-193-179-155
18. - lagunentzako ekar dot	: 167-196-200-170-167
30.- lagunentzako ekar dot	: 162-189-182-167-166
22.- iru etzetan egonas	: 179-200-204
7.- iru etzetan egonas	: 217-0-179

Esaldi guzti hauetan bereizgarri den gauza bakarra badirudi oinarrizko maiztasunaren desberdintasuna dela, eta, aldaketa beroni esker bereizten direla singularrak eta pluralak. Bereizketa ez da soilik singularrak eta pluralak desberdintzeko baliagarria, ondoko esaldi bikoteetan ikus daitekeen bezala:

1. orrek sille (aulkia) ikusi dau	: 179-138
orrek sille (zila) ikusi dau	: 182-182
2. orrek txistu (tiua) bota dau	: 170-182
orrek txistu (musika tresna) bota dau	: 176-138
3. nik ule (ilea) ebai dot	: 165-176
nik ule (ulea) ebai dot	: 160-132
4. nik baso (mendia) ikus dot	: 165-182
nik baso (edontzia) ikus dot	: 170-148
5. ori suten (sutan) dau	: 165-160
ori suten (sukaldean) dau	: 152-136
6. ori elduko (heldutakoa) da	: 152-167-167
ori elduko (belduko) da	: 173-146-138
7. ori yoko (yotako) da	: 165-179
ori yoko (joko) da	: 173-148

Honelako bikoteak nahikoa ugariak dira, kasu hauetan ere bereizgarri bakarra oinarrizko maiztasunean gertatzen den desberdintasuna da.

Aurreko guztia ikusirik azentuaren balorea ez dut uste, aztertzen ari garen euskalkian, kuestiona daitekeenik.

---

[7] 8.a eta 27.a biak singularrak dira, hots, berdinak dira.

2.2. AZENTUAREN NATURA

MITXELENA-k planteaiatutako arazo honi buruz ineteresgarri deritzot ROTAETXE-k (1981) esandakoa hona ekartzeari:

"Prosodiaz arduratzen den azterketa batek argitu behar du, alde batetik, azentu-parametrorik garrantzitsuena zein den eta, beste alde batetik, azentu- errealizazioak eta melodiaren gora-beherak zein harremanetan gelditzen diren. (382. or.)"

TXILLARDEGI-k (1984) ere bide beretik ondoko hau dinosku:

" azentuari buruz edozein ikerketa hasterakoan, hauxe da lehenbiziko arazoa: zein izan akustiko da nagusi azentuaren pertzepzioan buruz?
Badaude, jakina, hiru izari klasikoak: iraupena, intentsitatea eta oinarrizko maiztasuna. Azentuak jasaten duen segmentu fonikoaz an garelarik. (43. or.)"

Izari nagusia zein den delako galderari erantzutean badirudi autore gehienak bat datozela oinarrizko maiztasunaren garrantzia azpimarratzen dutenean. TXILLARDEGI-k (1984) berak honen aldeko autore zenbaiten eritziak ematen ditu. Berorien artean MITXELENA-rena (1977) ere agertzen dela. Oraintsuago, HUALDE-k (1989-c) intentsitateaz berba egikeran honako hau dinosku:

"Orain badakigu intentsitateak ez duela hainbesteko garrantzirik azentuaren lekua mugatzeko. (54. or.)"

Nire oinarrizko maiztasunaren aldeko argudioak gaztelaniarako MONROY-k (1980) egindako azterketan oinarrituko ditut, eta berak egindako antzeko azterketa egingo dut euskararako[8], iraupena, indarra eta oinarrizko maiztasuna arakatuz.

2.2.1. IRAUPENA

MONROY-k (1980) iraupenaz berba egikeran honako hau dinosku:

"Es indudable que en un buen número de lenguas el acento es un factor condicionante de la duración vocálica. En este sentido, es plausible afirmar que ésta es una de las manifestaciones fonéticas de aquél. En español, y a pesar de la nimia relevancia de la duración como elemento distintivo, es posible detectar un balance final favorable a los núcleos acentuados frente a los átonos. (133. or.)"

Eta gazteleraren bokaletarako ondoko proportzioak ematen baditu ere:

[a] %23, [e] %27, [i] %33, [o] % 26 eta [u] %28

zera dinosku ondorio gisa:

"Como reflejo acentual, pues, tenemos que concluir que la duración del núcleo silábico desempeña un papel más bien modesto en el reconocimiento de una sílaba como prominente"

---

[8] MONROY, R. (1980): Aspectos fonéticos de las vocales españolas. SGEL. Madril. Liburu honetan 8. atala ikus daiteke.

Euskara alorrean Zeberiorako ETXEBARRIA-k (1991) indarra eta iraupenaren arteko erlazioaz zera dino:


"Zeberioko bokale toniko eta atonoen mediak atera ondoren, konklusio batera heltzeko bidean gaude.
Bokale toniko guztiek milisegundu gehiago behar izan dute euren ahozkeran atonoek baino, horregatik, denpora eta indentu-indarra bata bestearen eraginean daudela esan behar (71. or.)"

Gure kasuan, eta bokalen atalean ikusi dugun bezala, bokal intentsuak arean luzeagoak dira ez intentsuak baino, ondoko taulan ematen ditugu han aurkeztutako datuak, hala nola bien arteko desberdintasuna eta proportzioak ere:

	[i]		[e]		[a]		[o]		[u]	
	U	G	U	G	U	G	U	G	U	G
+I	72	62	70	64	64	59	66	60	73	63
-I	63	56	62	57	63	56	60	54	65	54
Des	9	6	8	7	1	3	6	6	8	9
Pro	%12,5	%9,6	%11,4	%10,9	%1,5	%5	%9	%10	%10,9	%14,2

Gure desberdintasunen proportzioak gaztelaniaren proportzioekin erkatuz gero ondoko taula dugu :

	Gaztelaniaz	Urduliz	Gatika
[a]	%23	%1,5	%5
[e]	%27	%11,4	%10,9
[i]	%33	%12,5	%9,6
[o]	%26	%9	%10
[u]	%28	%10,9	%14,2



1. Gaztelera.
2. Urduliz.
3. Gatika.

Ikusten denez, gure kasuan desberdintasunak askoz ere txikiagoak dira gaztelaniaz baino. Beraz, iraupenaren papera ez dela oso garrantzitsua esan beharra dagoela uste dut.

2.2.2.INDARRA

Gure bokalei buruzko azterketan ikusi dugunez, berba baten barruan askotan intentsitate bereko silaba gailen bi egon daitezke; hala ere, eta ondoko adibideetan ikus daitekeen legez, ez dirudi berau parametro nagusia denik, izan ere, silaba indartsuena batzutan ez da oinarrizko maiztasunik handiena duena; adibidez[9]:

G-1

	Dezibelioak	Hertzioak
bake	-26/-26	129-167
buru	-27/-30	152-182
kate	-27/-27	129-165
jente	-30/-28	165-117
firu	-27/-30	150-167
kollare	-26/-31/-32	152-170-167
txori	-30/-33	152-165
yaye	-27/-33	155-162
negu	-27/-30	157-179
goso	-27/-29	142-170
subi	-28/-29	142-160

G-3

	Dezibelioak	Hertzioak
ardi	-22/-32	189-213
ermintte	-23/-26/-27	208-238-232
arto	-23/-32	222-249
kate	-22/-27	204-243
katu	-21/-26	193-227
olga	-20/-17	276-208
lagune	-18/-22/-20	243-284-276
yagon	-20/-23	232-256
arkondare	-23/-25/-21/-27	189-238-179-176

U-1

	Dezibelioak	Hertzioak
busterri	-15/-16/-21	126-146-148
buru	-16/-16	112-132
egurre	-15/-15/-21	126-148-131
garandu	-15/-17/-16	129-142-140

[9] Adibideotan lekuko zenbakia, indarra dezibelioetan eta oinarrizko maiztasuna hertzioetan ematen ditut.

ibilli	-13/-16/-17	146-165-152
olga	-17/-20	136-144
urune	-14/-14/-18	117-140-138
solo	-15/-15	119-134
gero	-15/-19	132-142

Guzti hau ikusita eta autoreen eritziak kontutan hartuta parametro nagusitzat oinarrizko maiztasuna hartu behar dela uste dut. Bestalde, aurkeztu dugun testaren emaitzetan ikusi dugunez, singularra eta pluralaren arteko desberdintasun nagusia oinarrizko maiztasunaren jausialdia ere izan da.

2.3. AZENTUAREN TINKOTASUNA.

Hauxe dugu MITXELENA-k (1977) planteiatuko azken arazoa. Berau aztertzeko, hau da, esaldiaren barruan egonguneak oinarrizko melodian eragina duen ala ez jakiteko ataltxo honetan ematen dudan testa egin dut. Berbak esaldi baten barruan kokatuta ahozka erazi dizkiot lekukoari, singularrez zein pluralez. Esaldiak "..... diño", "onek.... diño" eta "neuk diñot....." izan dira. Berbak hiru erizpideren arauera aukeratu ditut:

a) Silaba kopurua: Silaba bakarrekoak, silaba bikoak eta hiru silabakoak.
b) Hasieran kontsonantea eta bokala egotea.
c) Amaieran ere kontsonantea eta bokala egotea.

Erizpide hauen arauera ondoko berbok aukeratu nituen:

Silaba kopurua eta amaiera

Hasiera	1	2 Bokala	2 Kontso	3 Bokala	3 Kontso.
Bokala	on, ar	idi, ume	apatz, egur	ahade, alaba	aberatz, alargun
Kontsonantea	txar, lur	seme, baso	lagun, gizon	bekoki, lapiko	herakatz, kuntzurrun

2.3.1. SINGULARRA

2.3.1.1. Silaba batekoak (Ikus bitez 8 eta 9. grafikoak)

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
TXAR	152-162	176-179	146-148
LUR	152-179	170-173	138-155
ON	165-182	165-179	148-152
AR	162-189	176-189	150-152

2.3.1.2. Silaba bikoak bokalez amaituak (Ikus bitez 10 eta 11. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
SEME	162-179	186-193	142-152
BASO	150-165	176-193	144-160
IDI	173-189	179-189	152-152
UME	179-193	196-204	157-156

2.3.1.3. Silaba bikoak kontsonantez amaituak (Ikus bitez 12 eta 13. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
LAGUN	170-193-193	179-193-193	144-165-162
GIXON	152-196-182	0-189-182	140-157-157
APATZ	173-204-193	193-200-208	138-165-160
EGUR	167-182-193	167-186-193	157-160-165

2.3.1.4. Hiru silabakoak bokalez amaituak (Ikus bitez 14 eta 15. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
ABADE	157-173-193	179-182-200	152-165-162
ALABA	160-176-193	173-179-183	144-150-157
BEKOKI	176-200-167	170-193-179	152-157-121
LAPIKO	165-193-173	176-204-160	140-176-1221

2.3.1.5. Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (Ikus bitez 16 eta 17. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
ABERATZ	152-170-173-170	176-179-186-176	144-155-157-157
ALARGUN	170-170-193-186	182-189-196-189	150-155-167-155
BERAKATZ	186-204-186-132	173-200-176-142	157-170-165-117
KUNTZURRUN	165-186-196-193	186-189-204-193	152-176-176-165

2.3.2. PLURALAK

2.3.2.1. Silaba batekoak (Ikus bitez 18 eta 19. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
TXAR	176-136	167-144	173-112
LUR	170-162	173-160	152-113
ON	189-155	182-157	150-119
AR	167-144	173-148	150-108

2.3.2.2. Silaba bikoak bokalez amaituak (Ikus bitez 20 eta 21. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
SEME	189-155	186-165	150-123
BASO	167-126	189-150	162-117
IDI	173-160	204-182	170-120
UME	189-155	208-176	165-115

2.3.2.3. Silaba bikoak kontsonantez amaituak (Ikus bitez 22 eta 23. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
LAGUN	167-196-167	170-200-155	152-162-119
GIXON	173-189-146	176-200-131	134-160-103
APATZ	170-204-176	182-189-136	138-152-0
EGUR	165-196-162	176-193-160	146-160-97

2.3.2.4. Hiru silabakoak bokalez amaituak (Ikus bitez 24 eta 25. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
ABADE	160-189-162	167-182-152	152-165-124
ALABA	160-186-155	167-179-152	157-165-119
BEKOKI	165-204-140	162-189-155	155-167-128
LAPIKO	160-213-152	157-204-146	138-173-116

2.3.2.5. Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (Ikus bitez 26 eta 27. grafikoak):

	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
ABERATZ	160-170-189-136	173-173-193-129	146-155-165-113
ALARGUN	152-162-186-144	170-176-193-162	140-150-162-108
BERAKATZ	187-189-186-152	173-200-179-134	157-173-148-109
KUNTZURRUN	165-186-208-134	173-189-204-134	152-162-173-103

Denen mediak eginez gero honako taula hau osa dezakegu:

Singularra:

SILABA KOPURUAK	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
1	157-178	171-180	145-151
2-Bokala	166-181	184-194	148-155
2-Kontsonante	165-193-190	179-192-194	144-161-161
3- Bokala	164-185-181	174-189-180	147-162-140
3-Kontsonante	168-182-187-170	179-189-190-175	150-164-166-148

Plurala

SILABA KOPURUAK	HASIERAN	ERDIAN	AMAIERAN
1	175-149	173-152	156-113
2-Bokala	179-149	196-168	161-118
2-Kontsonantea	168-196-162	176-195-145	142-158-106
3-Bokala	161-198-152	163-188-151	150-167-121
3-Kontsonantea	166-176-192-141	172-184-192-139	148-160-162-107

Datu hauetatik ondoko ondoriook atera ditzakegu:

a) Lehen eta bigarren silabako tonu desberdintasunik handienak hasieran gertatzen direla; erdian eta amaieran, ostera, desberdintasun horiek atenuatuago agertzen zaizkigu.
b) Amaierako egongunean, esaldi osoaren intentsitate erorketagatik, altua dena hasierako baxua baino baxuago egon daitekeela; hala ere, aurrekoarekiko kontrastea mantendu egiten da.

Beraz, altueraren kontrasteak ikusteko badirudi hobe dela hasierako egongunean aztertzea; bestalde HUALDE-k (1989-a) Gernikarako gauza bera proposatzen du:

"La sílaba inicial pierde su extratonalidad (i.e. se realiza en tono alto) cuando se encuentra en interior de frase y precedida por sílaba alta (279. or.)

2.4. IZEN ETA ADJETIBOEN OINARRIZKO MELODIAK.

Berbaren melodia erizpideaz MOHANAN-ek (1986) zera dinosku:

"By WORD MELODY, I mean the pitch pattern found on each word in a sentence. Thus word melody is distinct from INTONATION which refers to phrase-level pitch patterns. (113. or.)"

GOLDSMITH-ek (1990) era honetara ematen digu melodiaren definizioa:

"By melody I mean simply a sequence of tones that frequently come together in sequence, as a package. (15. or.)"

Nik hemen melodiatzat berbak oinean daukan tonu konfigurazioa, hots, tonuen ordenak sortutako eredua hartuko dut.

HUALDE-k (1989-a) Gernikako sistemaz berba egikeran ondoko hau dinosku:

"Si el sufijo tiene más de una sílaba, como es el caso en el dativo plural, su tono se asociara lexicamente a la primera sílaba del sufijo. No hay otros tonos marcados en las entradas léxicas. La regla general de asociación de tonalidad asigna un tono alto a toda raíz léxica....La sílaba inicial es extratonal y se exceptúa del dominio de asociación del tono alto siempre y cuando quede al menos una sílaba que tenga tono alto. (279. or.)"

Gatikan eta Urdulizen ez dirudi, dena dela, HUALDE-k (1988, 1989-a) proposatzen duena gaina sinplea denik. Oinarrizko tonu melodiak aztertzeko lekuko birekin neurtu ditudan berbak aurkeztuko ditut; berba hauek mugatu singularrean eman ziren esaldiaren hasiera egongunean ".... diñot" kontestuan. Datuen aurkezpena silaba kopuruaren arauera eta oinen amaiera bokaliko edo kontsonantikoa ere kontutan hartuta ematen ditut[10].

---

10 Melodiak markatzeko A altua adierazteko eta B baxua adierazteko erabiliko ditut.

2.4.1. LEHEN LEKUKOA

Silaba batekoak (B-A melodia)

txarra	152-162	lurre	152-179	ona	165-182
arra	162-189	lurre	150-167	sarra	167-173

Silaba bikoak bokalez amaituak (B-A melodia) :

seme	162-179	baso	150-165	idi	173-189
ume	179-193	katu	155-179	andre	157-165

Silaba bikoak bokalez amaituak (A-B melodia):

leku	208-140	kuku	213-162

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (B-A-A melodia):

egurre	167-182-193	usiñe	173-193-204	asala	146-182-196
odola	162-179-189	apatxa	160-176-200	sorrotza	152-182-196
amotza	165-179-193	arotza	152-186-196	garratza	167-179-193
mingotza	173-193-208	platera	167-189-204	txakurre	176-204-217
asurre	157-179-200	oburre	182-189-204	illunc	179-200-208
giltena	165-196-204	espana	150-180-200	mutille	146-167-179
lagunc	170-193-193	polittc	167-173-173	amañe	144-186-189
urdiñe	173-193-200	gibela	186-196-196	sabala	165-193-193
argala	152-170-176	sayetza	167-182-189	beatza	170-182-189
aldatza	152-182-189	buskentza	170-189-193	lehatza	179-189-189
gorputze	167-204-204	sagarra	165-193-196	idorra	173-193-193
piperra	189-200-204	sekorra	182-200-200	akarra	155-200-204
bedarra	189-213-213	gogorra	173-196-196	ugerra	179-200-200
txurre	162-200-200	laburre	176-200-204	paparra	162-200-200
isterra	182-204-204	txarmurre	186-200-204	txikerra	189-200-200
egune	173-200-200	sakona	167-196-196	bustena	182-208-208
urune	193-213-213	bigune	189-208-204	belune	173-200-200

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (B-A-B melodia):

giltona	152-196-182	apatza	173-204-193	illena	165-204-162

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (A-B-B melodia):

ollarra	196-160-162	txindorra	200-160-160	intxurre	208-165-155
muskerra	217-182-173	musturre	217-189-173		

Hiru silabakoak bokalez amaituak (B-A-A melodia):

ganadu	170-189-186	gixedu	176-200-200	adagu	150-182-186
okele	152-196-196	okollu	167-189-193	kamiño	165-189-193
sargori	160-196-200	errama	167-193-200	ahade	157-173-193
alabe	160-176-193	aburke	150-162-179	errote	157-170-189
sarate	152-170-193	kokote	157-189-200	errope	160-170-193
aurpegi	155-179-200	arrebe	146-179-189	armosu	142-176-200
orrasi	136-170-193	osabe	148-176-189	lumetxe	170-186-208
makal	167-193-204	afari	150-189-208	kadete	165-196-208
itxurri	167-200-213	sokorru	182-193-208	arraje	165-186-213
antoju	152-193-200				

Hiru silabakoak bokalez amaituak (B-A-B melodia):

bekoki	176-200-167	lapiko	165-193-173	banku	165-193-162
domeke	165-193-160	erreke	165-200-160	malluki	170-200-167
sapatu	146-179-148	aristi	165-186-160	gorringo	186-200-157
suringo	176-193-160	egurdi	173-193-165	illunde	170-200-157
eskola	162-193-170	katillu	165-200-167	askore	157-196-170
ixere	173-213-189	solomo	173-204-176	amurru	186-217-189
gusurri	170-189-155				

Hiru silabakoak bokalez amaituak (A-B-B melodia):

landare	200-170-167	indabe	200-160-157	lengusu	200-165-157
usabe	167-150-150	amotza	200-179-182	odari	204-179-182
amoma	193-176-165	belarri	196-186-179		

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-A-A melodia):

abaeratza	155-182-182-179	atzasala	150-189-196-196
kuntzurrune	165-196-196-193	txakoline	167-186-193-193
alzamarra	179-196-208-208		

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-B-A-A melodia):

alargune	167-170-186-182	beargine	165-165-170-179

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-B-B melodia):

berakatza	186-204-186-132	eskuturre	167-227-193-189
martitzena	173-208-176-167	egustena	160-208-193-176
eguena	173-204-189-186	okarana	167-208-186-176

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-A-A melodia):

txirpillote	160-173-182-182	abasuse	146-179-182-182
baragarri	173-189-196-200	sapurrade	170-182-186-186
sugelinde	148-165-165-167	errotari	150-165-167-167

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-B-B melodia):

arrastegi	142-182-170-162	alkondare	179-204-179-176
asukere	144-217-182-179		

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-B-A-B melodia):

aburkete	157-162-193-167	iñusente	170-167-193-160

Labur bilduz jaso ditugun melodia guztiak ondoko taulan agertzen dira:

Silaba kopuruak			
1	B-A		
2-Bokalez amaituak	B-A	A-B	
2- Kontsonantez amaituak	B-A-A	A-B-B	B-A-B
3-Bokalez amaituak	B-A-A	A-B-B	B-A-B
3-Kontsonantez amaituak	B-A-A-A	B-B-A-A	B-A-B-B
4-Bokalez amaituak	B-A-A-A	B-B-A-B	B-A-B-B

Eskema hau are laburrago eman dezakegu, izan ere, sekuentzia melodiko batzu errepikatu egiten dira:

B-A
A-B
B-A-A
A-B-B
B-A-B
B-A-A-A
B-A-B-B
B-B-A-A

2.4.2. BIGARREN LEKUKOA.

Silaba batekoak (B-A melodia):

txarra	182-200	lurre	173-193	ona	179-186
ura	170-186				

Silaba bikoak bokalez amaituak (B-A melodia):

seme	173-189	baso	165-189	idi	179-189
ume	173-186				

Silaba bikoak bokalez amaituak (A-B melodia):

leku	179-146	kuku	193-160	egi	204-160

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (B-A-A melodia):

urdiñe	146-170-170	asala	150-170-170	gibela	162-173-173
argala	155-173-173	odola	160-167-167	sayetza	157-176-176
buskentza	152-176-173	okotza	150-176-176	platera	150-173-170
ixerra	150-182-182	idema	157-167-167	gogorra	160-173-173
ugerra	146-173-173	sokorru	170-176-176	bulerra	160-170-170
bustena	152-173-173	urune	162-170-170	bigune	162-170-170
lagune	165-186-186	arraiñe	157-162-167	sibala	160-167-176
addatza	165-173-179	sorrotza	157-173-182	amotza	157-170-182
anotza	152-167-179	lebatza	160-167-179	garratza	165-170-186
mingotza	160-173-182	gorputze	162-176-193	sagarra	155-162-173
aburra	146-160-170	bedurra	157-170-179	asarre	150-165-186
laburre	155-167-182	egune	167-173-182	sikona	148-173-182
belune	152-165-176	eguerre	152-167-186		

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (B-A-B melodia):

illena	167-176-160

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (A-B-B melodia):

muskerra	173-152-146	belarri	176-157-160	ollarra	204-173-160
kukurre	179-162-160	indabe	196-165-165	lengusu	189-157-152
txirskorra	182-167-155	intxurre	200-157-165		

Hiru silabakoak bokalez amaituak (B-A-A melodia)::

kokote	150-167-167	errope	152-179-179	ganadu	144-157-162
armosu	152-162-162	osabe	150-167-170	okollu	152-176-176
sargori	162-182-186	erraina	150-167-167	amurru	152-170-167
abarke	150-167-186	arratoi	142-160-182	errote	146-162-170
aurpegi	150-160-173	adabu	136-162-173	arrebe	148-162-170
orrasi	142-160-179	kamiño	167-170-173	lumetxe	165-182-196
madari	148-162-176	alan	140-162-176	kadete	155-165-173
anaje	148-160-167	ahate	162-173-186	alabe	155-165-182

Hiru silabakoak bokalez amaituak (B-A-B melodia):

eguski	157-170-162	banku	152-182-155	domeke	155-179-150
erreke	155-170-142	malluki	142-176-140	sapatu	160-176-152
aristi	152-176-152	gorringo	157-170-150	suringo	155-173-160
egurdi	152-176-148	illunde	160-170-152	katillu	176-196-179
askore	150-179-152	ixere	152-182-150	solomo	157-173-150

Hiru silabakoak bokalez amaituak (A-B-B melodia):

amotza	196-176-160	odan	179-157-157	amoma	165-150-150

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-A-A melodia):

txakolin	148-162-167-167	aberatz	152-167-176-176

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-B-B melodia):

eguen	152-167-155-150	okarana	160-186-157-150
berakatz	167-186-170-155		

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-B-A-A melodia):

alargun	160-165-182-179

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-A-A melodia):

sapurtak	146-160-162-160	baragarri	155-167-167-167
txirpillote	167-173-182-182	abesuse	142-157-173-173

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-B-A-B melodia):

iñusente	165-157-179-146

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-B-B melodia):

arrastegi	134-165-152-152	alkondare	162-189-165-162
asukere	152-176-165-152		

Labur bilduz jaso ditugun melodia guztiak ondoko taulan agertzen dira:

Silaba kopuruak			
1	B-A		
2-Bokalez amaituak	B-A	A-B	
2- Kontsonantez amaituak	B-A-A	A-B-B	B-A-B
3-Bokalez amaituak	B-A-A	A-B-B	B-A-B
3-Kontsonantez amaituak	B-A-A-A	B-B-A-A	B-A-B-B
4-Bokalez amaituak	B-A-A-A	B-B-A-B	B-A-B-B

Eskema hau, aurreko lekukoarekin egin dugun legez, are laburrago egin daiteke:

B-A
A-B
B-A-A
A-B-B
B-A-B
B-A-A-A
B-B-A-A
B-A-B-B

Ikusten denez, lekuko biek oinarrizko tonu melodia berberak erabiltzen dituzte. Oinarrizko tonu melodia hauek funtsezkoak ete diren guztiz egiaztatzeko horietariko 50 berba aukeratu ditut lekuko hauekin ezeze beste laurekin erkatu ahal izateko. Lekukoak honako hauek izan dira:

G-1, B. Barandika, 78 urte
G-2, E. Elgoibar, 33 urte
G-3, I. Elgoibar, 48 urte
U-1, M. Gilisasti, 33 urte
U-2, I. Gilisasti, 31 urte
U-3, A. Kamiruaga, 22 urte

Silaba batekoak (B-A melodia, ikus 55 espektograma):

Lekukoak	txarra	sarra	arra
G-1	243-262	208-243	217-243
G-2	152-162	167-173	162-189
G-3	182-200	–	170-186
U-1	204-217	179-200	189-200
U-2	111-123	103-113	105-119
U-3	208-238	200-227	204-222

Silaba bikoak bokalez amaituak (B-A melodia, ikus 56 espektograma):

Lekukoak	seme	baso	ume
G-1	204-249	189-249	200-232
G-2	162-179	150-165	179-193
G-3	173-189	165-189	173-186
U-1	193-204	167-189	182-200
U-2	105-117	104-119	116-126
U-3	200-222	200-217	213-232

Silaba bikoak bokalez amaituak (A-B melodia, ikus 57 espektograma):

Lekukoak	leku	kuku	egi
G-1	238-173	222-208	256-179
G-2	208-140	213-162	-
G-3	179-146	193-160	204-160
U-1	208-152	238-144	222-165
U-2	129-91	146-90	132-96
U-3	232-200	217-196	227-200

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (B-A-A melodia, ikus 58 espektograma):

Lekukoak	mutille	egurre	garratza	lagune
G-1	208-238-249	193-227-232	200-232-238	200-249-249
G-2	146-167-179	167-182-193	167-179-193	170-193-193
G-3	-	152-167-186	165-170-186	165-186-186
U-1	189-213-213	179-213-213	179-204-204	189-217-217
U-2	107-123-123	102-117-124	104-126-126	103-123-124
U-3	204-217-217	193-217-217	208-222-227	196-213-213

Lekukoak	sabala	gogorra	bigune
G-1	189-232-232	238-292-292	232-276-276
G-2	165-193-193	173-196-196	189-208-208
G-3	160-167-176	160-173-173	162-170-170
U-1	179-196-196	176-193-193	189-204-204
U-2	104-116-123	105-126-126	104-123-120
U-3	196-213-200	193-204-204	193-208-208

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (B-A-B melodia, ikus 59 espektograma)

Lekukoak	gixona
G-1	193-249-200
G-2	152-196-182
G-3	-
U-1	182-213-179
U-2	100-126-124
U-3	189-213-213

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (A-B-B melodia, ikus 60 espektograma):

Lekukoak	ollarra	intxurre	muskerra
G-1	249-208-189	249-204-179	238-182-165
G-2	196-160-162	208-165-155	217-182-173
G-3	204-173-160	200-157-165	173-152-146
U-1	222-167-167	232-176-176	238-176-162
U-2	138-103-107	155-117-111	142-102-104
U-3	232-193-193	232-193-186	222-217-204

Hiru silabakoak bokalez amaituak (B-A-A melodia, ikus 61 espektograma):

Lekukoak	abade	alabe	arrebe
G-1	208-262-292	213-238-256	222-256-276
G-2	152-173-193	160-176-193	146-179-189
G-3	162-173-186	155-165-182	148-162-170
U-1	196-213-213	170-196-200	170-193-193
U-2	104-117-119	105-121-128	106-124-126
U-3	204-208-208	196-200-200	217-227-227

Lekukoak	madari	kamiño	ganadu
G-1	213-256-262	208-227-232	208-238-243
G-2	167-193-204	165-189-193	170-189-186
G-3	148-162-176	167-170-173	144-157-162
U-1	176-193-193	186-217-222	186-200-204
U-2	102-121-121	103-126-126	103-119-126
U-3	200-213-222	200-217-213	200-213-222

Hiru silabakoak bokalez amaituak (B-A-B melodia, ikus 62 espektograma):

Lekukoak	bekoki	lapiko	erreke
G-1	222-256-167	204-256-162	204-243-167
G-2	176-200-167	165-193-173	165-200-160
G-3	-	-	155-170-142
U-1	179-200-152	173-217-160	186-217-152
U-2	111-148-99	111-138-99	111-138-97
U-3	200-238-200	208-238-200	196-217-193

Hiru silabakoak bokalez amaituak (A-B-B melodia, ikus 63 espektograma):

Lekukoak	landare	lengusu	indabe
G-1	238-189-189	238-186-186	238-186-182
G-2	200-170-167	200-165-157	200-160-157
G-3	179-162-160	189-157-152	196-165-165
U-1	217-160-165	200-176-176	227-173-176
U-2	123-98-98	126-96-93	132-90-96
U-3	232-196-196	227-204-193	238-196-200

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-A-A melodia):

Lekukoak	aberatza	atzasaia
G-1	200-217-217-222	204-243-240-249
G-2	152-170-173-170	150-189-196-196
G-3	152-167-176-176	144-170-170-162
U-1	167-208-208-204	189-217-167-167
U-2r	99-113-121-126	108-148-108-105
U-3	204-217-217-222	200-232-208-196

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-B-A-A melodia, ikus 64 espektograma):

Lekukoak	alargune	beargiñe
G-1	208-243-249-249	208-249-249-249
G-2	170-170-193-186	165-165-170-179
G-3	160-165-182-179	-
U-1	165-204-208-204	182-200-200-200
U-2	102-119-117-126	104-120-120-121
U-3	217-217-232-227	222-222-249-249

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-B-B melodia, ikus 65 espektograma):

Lekukoak	berakatza	eskuturre	martitzena
G-1	217-269-179-179	0-276-193-193	200-262-193-193
G-2	186-204-186-132	167-227-193-189	173-208-176-167
G-3	167-186-170-155	0-186-160-165	-
U-1	196-222-170-173	0-227-173-173	170-217-165-165
U-2	99-134-106-92	0-146-116-113	105-144-99-102
U-3	213-227-204-208	213-243-217-204	213-243-208-196

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-A-A melodia, ikus 66 espektograma):

Lekukoak	kuntzurrune	txakoliñe	atzamarra
G-1	213-238-238-243	196-227-227-227	182-222-217-222
G-2	165-186-196-193	167-186-193-193	179-196-208-208
G-3	162-167-176-165	148-162-167-167	0-167-167-167
U-1	182-208-208-208	179-208-208-208	179-222-170-167
U-2	119-132-134-132	102-119-120-121	106-131-99-100
U-3	217-232-232-232	193-227-227-222	213-232-204-204

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-B-A-B melodia, ikus 67 espektograma):

Lekukoak	abarkete	iñusente
G-1	196-232-269-186	222-227-256-170
G-2	157-162-193-167	170-167-193-160
G-3	-	165-157-179-146
U-1	186-213-213-152	208-208-227-155
U-2	-	119-123-140-99
U-3	217-217-243-193	232-232-243-193

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-A-A melodia, ikus 68 espektograma)

Lekukoak	abasuse	baragarri	saparrade	errotari
G-1	204-232-232-238	193-208-204-208	222-238-238-243	213-238-238-238
G-2	146-179-182-182	173-189-196-200	170-182-186-186	150-165-167-167
G-3	142-157-173-173	155-167-167-167	146-160-162-160	-
U-1	179-208-213-213	186-208-208-208	167-193-193-189	179-196-196-193
U-2	99-117-124-129	100-115-120-120	110-134-142-142	101-121-123-124
U-3	213-227-227-232	200-217-222-222	217-227-238-238	204-222-227-227

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-B-B melodia, ikus 69 espektograma):

Lekukoak	arrastegi	alkondare
G-1	213-262-213-208	200-256-186-189
G-2	142-182-170-162	179-204-179-176
G-3	134-165-152-152	162-189-165-162
U-1	196-232-170-165	176-208-173-170
U-2	110-136-98-98	107-134-100-100
U-3	227-243-222-213	213-243-200-200

Tauletan ikusten den bezala, oinarrizko melodia berberak aurkitzen ditugu lekuko guztietan. Desberdintasuna berbak melodia batean edo bestean kokatzean datzala dirudi; hala eta guztiz ere, berauek oso gutxi dira, denetara %4,6 baino ez dira. Berauetan nabarmenenak "atzasala" eta "atzamarra" berben kokatzean dagoz; Urdulizkoek B-A-B-B melodian kokatzen dituzte eta Gatikakoek, ostera, B-A-A-A melodian.

HYMAN-ek (1981) japaonieraz ari dela ondoko hau dinosku:

"los contornos de timbre de las palabras japonesas pueden predecirse mediante la colocación de un acento /'/ en la vocal que precede inmediatamente al descenso de timbre. Si no se da dicho descenso en la palabra, o bien se acentúa la última sílaba- en cuyo caso el descenso se efectuara en la sílaba del sufijo - o bien no hay sílaba acentuada - en cuyo caso una sílaba del sufijo se realizará sin descenso acentual "

Beronekin batera HUALDE-k (1989-a) estratonatitateaz esandakoa kontutan hartuta:

"La sílaba inicial es extratonal y se exceptúa del dominio de asociación del tono alto siempre y cuando quede al menos una sílaba que tenga tono alto. (279. or.)"

azalpen baterako entseiua egin genezake. Honela, silaba estratonala baztertuta tonu altua non gertatzen den markatuz gero honako hau geneukake:

txar': txàrrá
semé sèmé
lagún: làgúné

tonu altu lehen silaban gertatzen denean errestrikzioa beronen ostean tonua bajatu beharra izango litzateke, hau da:

óllar: óllàrrà
lándara: lándàrè

HUALDE-k (1989-c) esaten digun legez:

"Gernikako euskaraz ere, tonua hitzeko silaba batean erortzen bada, ez dago beste silabetan igotzerik. Gainera, euskalki honetan ere, hitzaren lehenengo silabak goiko tonua badu, hitzaren beste silaba guztiek beheko tonuak izango dituzte"

Azken guzti hau berdin berdin aplika daiteke aztertzen ari garen euskaran. Hala ere, orain arte emandako erregelen bidez ez genituzke melodia guztiak azalduko; esate baterako:

B-A-B bekoki, domeke, lapiko, e.a.
B-B-A-A alargune, beargiñe, e.a.
B-A-B-B berakatza, martitzena, eguena, e.a.

eskema horretatik kanpo geratuko lirateke.

HARAGUCHI-k (1988) japonierarako proposatutako bidetik, oinarrizko tonu melodiak ateratzeko izenek eta adjetiboek lexikoian marka bi asoziatuta daukatela proposatu behar dugula uste dut. Marka biek dagozeneko silaban tonu altua sartzeko bidea emango ligukete; berauen arteko desberdintasuna ondoko silabaren (edo silaben) tonuak baxuak edo altuak izatean datzake. HARAGUCHI-ri (1988) ere jarraikirik, marka horiek ondoko hauek izan daitezke:

"•", beronen ostean tonua altua izango dela adierazteko erabil genezake[11].

"•", beronen osteko silabaren (edo silaben) tonuak baxuak direla adierazteko.

Kontutan hartu behar da, bestalde, behin tonua bajatuz gero berau ez dela berriro igoten. Marken egonguneei dagokienez, honako aukerok ditugu:

"• "

1) Silaba bakarrekoetan berbatik kanpo: o•; txar, lur, on, e.a.

2) Bigarren silaban: o o• (o o...), mutille, lagune, saparrade, e.a.

3) Hirugarren silaban: o o o• (o o ...) : alargune, beragiñe, e.a.

HUALDE-ri (1989-a), lehen aipatu dadan legez, jarraikirik:

"La sílaba inicial es extratonal y se excetúa del dominio de asociación del tono alto siempre y cuando quede al menos una sílaba que tenga tono alto. (279. or.)"

gauza berak balio digu Gatika eta Urdulizko kasuetarako 1, 2 eta 3 melodietan. Denbazioetarako ondoko hau proposa dezakegu:

1. txar• + a 2. (se)me• +a 3. (alar)gun• + a

Afijazioa eta bokalen asimilazioa:

txarra• sema• alargune•

Markari lotuko tonu altuaren sarrera:

txarra• sema• alargune•
| | | |
A A A A

[11] Tonua mantendu edo igon egin daiteke hurrengo silabetan, lekukoen datu fonetikoetan ikusi dugun bezala.

Azken errepresentazioetarako eta HUALDE-ri (1989-a) jarraikirik:

*Las representaciones finales se obtienen asignando un tono bajo a las sílabas que en este punto permanecen sin tono. (279. or.)

Tonu baxuen sarrera:

txarra	seme	alargune
| |	| |	| | | |
B A	B A	B B A A

Bigarren markaren egonguneei dagokienez, ondoko aukerok ditugu:

4.) Lehen silaban: o̍ o (o o...) leku, ollar, landara

5.) Bigarren silaban: o o̍ (o o...) bekoki, lapiko

6.) Hirugarren silaban: o o o̍ (o o ...) iñusente

Melodia hauek oinarri direla deribaziorako ondoko hau proposa daiteke:

3. leku + a 4. bekoki + a 5. iñusente + a

Afijazioa eta bokalen asimilazioa:

leku bekoki iñusente

Markari lotuko tonu altuaren sarrera:

leku	bekoki	iñusente
|	|	|
A	A	A

Tonu baxuen sarrera:

leku	bekoki	iñusente
| |	| | |	| | | |
A B	B A B	B B A B

Kontutan hartuta alde batetik dauzkagun markak eta, bestetik, berauen egonguneak ondoko aukerok egon daitezke berben melodiei dagokienez[12]:(Altueraren arauerako melodia desberdinak 28. grafikoan ikus daitezke):

1. txàrrá, lùrré, òná, e.a.

2. sèmé, mùtillé, àbérátzá, sàpárrádé

3. àlàrgúné, bèàrgiñé

12 "´" tonu altua adierazteko erabiliko dut eta "`", berriz, tonu baxua adierazteko.

4. lèkû, ôllârrâ, lândârè

5. bèkôki, gixônâ, bèràkàtzâ, àlkôndârè

6. lhûsèntè, àbârkètè

2.4.3.IZEN KONPOSATUAK

Izen konposatuak egikeran, konposatuak berezko melodia hartzen du konposagaiek, berriz, euren berezko melodiak galtzen dituztela; hona hemen adibide batzu:

arto	buru	artaburu
142-162	150-165	129-162-167-165
aste	egune	astegune
142-167	150-167-160	146-167-167-162
hurre	santzo	hurre santzo
160-132	136-170	160-152-140-140
ardi	txabole	ardi txabole
144-173	165-152-136	150-176-146-134-134
arto	solo	arto solo
146-165	157-165	140-173-146-142
bedura	leku	bedar leku
155-165-167	173-146	152-165-148-148
berakatza	sope	berakas sope
157-165-160	160-176	155-167-152-134-152
aste	akabu	aste akabu
146-176	140-160-167	146-160-150-142-148
ogi	asala	ogi asala
152-173	136-167-165	148-170-150-148-136
solo	erza	solo erza
150-167	138-160	160-173-160-160
sapate	kordela	sapata kordela
162-162-173	165-173-167	160-173-176-160-150-150
esku	pelote	esku pelote
146-176	152-167-148	144-186-157-152-136
txori	abi	txori abi
167-176	176-162	162-189-148-146

Adibide horietatik ondoko melodiak atera ditzakegu:

[B-A] + [BA]	:	B-A-A-A
[B-A] + [B-A]	:	B-A-B-B
[A-B] + [B-A]	:	A-B-B-B
[B-A] + [A-B]	:	B-A-B-B
[B-A] + [A-B-B]	:	B-A-B-B-B
[B-A] + [B-B-A]	:	B-A-B-B-B
[B-A] + [B-A-A]	:	B-A-B-B-B
[B-A] + [B-A-B]	:	B-A-B-B-B
[B-B-A] + [B-A-B]	:	B-A-A-B-B-B

Hala ere, ikusi egin beharko litzateke erregela finkorik dagoen ala ez.

2.4.4. IZEN ERATORRIAK

Nire helburua arazo honetan sakontzea ez bada ere, hemen datu akustikotan oinarrituta atzizki eta atzizkitzat hartzen diren berba batzuren tonu erabilera batzu emango ditut. Badirudi atzizki batzuk lexemaren melodiari atxeki dakizkiokeela berorren melodia mantenduz; eta beste batzuk, ostera, tonu baxuz markatuta dagozela eta atzizkian bajatu egin behar dela. Jarraian multzo bi hauetan sailka daitezkeen atzizki batzu ikusiko ditugu.

2.4.4.1. LEXEMAREN MELODIARI DATXEZKION ATZIZKIAK

-KADA

aginkede : 152-160-173-176
platerkade : 148-167-162-165

-ARI

errotari : 146-165-165-162
errementari : 142-160-157-160

-KERI

andikeri : 157-186-176-176
arrokeri : 142-157-167-170
umekeri : 142-160-173-173
sorginkeri : 150-167-170-170
mamurreri : 152-170-170-176
sakeleri : 165-173-173-176

-TASUN

aberastasune : 155-165-150-160-176-160
argittasune : 150-170-170-176-157
laguntasune : 152-167-155-173-162
illuntasune : 155-167-157-176-152
gastetasune : 142-165-162-170-162

2.4.4.2. TONU BAXUZ MARKATUTA DAGOZEN ATZIZKIAK:

-(T)ALDI

lotaldi : 150-173-142
egostaldi : 150-165-152-157
estualdi : 144-167-157-152

-(K)ERA

andiere : 146-176-176-152
sakonere : 155-179-150-150
aurrekere : 148-162-186-157
lotukere : 150-182-155-140
urtekere : 131-170-152-140

-KUNE

aittukune : 152-196-167-146
korrikune : 167-179-162-140

-RENGO

akaburengo : 142-162-173-162-148
kanporengo : 170-162-150-150
ganerengo : 179-157-155-155
eskiñarengo : 157-173-160-150-150

-UNE

aterrune : 148-179-162
baltzune : 155-165-146
illunune : 167-182-155-152
sabalune : 160-167-162-150

-PE

Atzizki honek tonu baxua eduki ezeze aurreko silabaren tonu altua baja erazi ere egiten du; adibidez:

aterpe : 182-165-162
besape : 176-157-148
arripe : 176-170-152
labape : 162-146-142
eskillarape : 152-165-167-157-155

Fenomeno honen azalpenerako aukera bi dauzkagu beronek beste tonu baxu bat asoziatuta daukala proposatu ahal dugu[13], hau da /`pe/. Tonu flotagarri delako honen teorizaziorako GOLDSMITH-en (1990) berbei interesgarri deritzet:

"The term floating tone has been indiscriminately used with two rather different meanings. On the one hand, it has been taken to refer specifically to a morpheme that is underlyingly only tonal, that is, composed of segments only on a tonal tier. On the other hand, the term has also been used to refer to segments which, at a given moment in the derivation, are not associated with any vowel.

It should be clear that the two usages involve rather different, though related, senses. If a vowel should come to be deleted, then the tone associated with it may be said to become "floating" in the second sense, though not in the first. (20. or.)"

Deribazioa orduan honela geratuko litzaiguke:

[arri] + [`pe] [laba] + [`pe]

[13] Beste hizkuntza batzutan fenomeno hau nahikoa arrunta ei da.GOLDSMITH-i (1990) jarraikirik euskarara tonu flotagarri agian esan lekioke honi.

Afijazioa:

arri`pe  labā`pe

Markei dagozkien tonu altuen sarrera

arri`pe  labā`pe
  | |
  A A

Tonu baxuen sarrera:

arri`pe  laba`pe
| || | | ||| |
B AB B B AB B

Hemen egongune barik dagoen tonua aurreko silabara pasatuko litzateke eta beronen ondorioz horretan dagoen tonu altua lehenengora:

arri`pe  laba`pe
|`·|·|  |  |`·|·| |
B AB B B AB B

Azkenik:

arripe labape
| | | | | |
A B B A B B


árripè lábàpè

Beste aukera bat HUALDE-k (1988) Ondarrurako proposatzen diguna dugu:

I propose to account for the old generation forms by means of a rule that spreads an underlyingly linked low tone leftwards, delinking a branching high tone. The rule must apply after H-insertion but before initial H-delinking, since a/it does not apply to bisyllabic words, which do not bear a branching high and b/it has the effect of retracting a high tone one syllable with respect to the singular (273. or.)"

Erregela ondoko era honetara ematen digula (274. or.):

L- Spread



Deribazioa orduan honela geratuko litzaiguke:

[arri] + [pè] [labà] + [pè]

Afijazioa:

arripè labàpè

Markei dagozkien tonu altuen sarrera

arripè labàpè
| |
A A

Tonu baxuen sarrera:

arripe labape
| | | | | |
B A B B A B

L- Spread

arripe labape
⌈·⌋⌈·⌋ ⌈·⌋⌈·⌋
B A B B A B

Azkenik:

arripe labape
| | | | | |
A B B A B B

árripè làbàpè

Ikusten denez, batetik zein bestetik, leku batera heltzen gara; hala ere, eta geroago aditzaren aspektuaz ikusiko dugunez, HUALDE-ren bideari egokiago deritzot.


2.5. IZEN SINTAGMAREN TONUAZ

Izen sintagma izena eta mugatzailez osatuta egon daitekeen arren badira beste zenbait aukera ere; GOENAGA-ri (1980, 47. or.) jarraikirik, IS----> IM + mug. geneukake aukera honetariko bat. IM horren barruan I + (Adj) geneukake. Beraz, ataltxo honetan izena eta adjetiboa elkartzean zer gertatzen den ikusiko dugu.


lur bigunen : 157-170-173-176
solo txarren : 167-176-173-182

Ikusten denez, adjetiboak bere melodian lehen silaba baxua euki arren, izenaren ondoan jarriz gero aurreko silabaren tonu altu hartzen du; gauza bera gertatzen zaie izenen lehen silabari hasiera osoan ez dagozenean (Ikus 70, 71 eta 72 espektogramak) Berau azaltzeko HUALDE-k (1989-a) ematen digun erregela berbera aplika dezakegu:

"La regla en (5a) dice que una sílaba (o vocal) a la que se le ha asignado extratonalidad recibe el tono alto de una sílaba precedente...:

(5) a. 

GOLDSMITH-ek (1990) Sakuma hizkuntza dela eta erregela berbera beste era egokiago honetara ematen digu (19. or.):



2.6. MUGATZAILE PLURALA

Izenen oinarrizko melodiak ateratzeko egin dugun legez, ataltxo honetan mugatzaile pluralaren morfema erantsiz gero zer gertatzen den ikusiko dugu. Hona hemen bildu ditudan datu akustikoak (Ikus bitez 73, 74, 75, 76, 77, 78, 79 eta 80 espektogramak):

Silaba batekoak (A-B melodia):

txarrak	176-136	lurrek	170-162	onak	189-155
arrak	167-144				

Silaba bikoak bokalez amaituak (A-B melodia):

semek	189-155	basok	167-126	idik	173-160
umek	189-155	lekuk	193-148	kukuk	200-160

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (B-A-B melodia):

lagunek	167-196-167	gixonak	173-189-146	apatzak	170-204-176
egurrek	165-196-162	polittek	173-176-142	arrañek	160-186-148
usiñek	160-208-160	asulak	157-193-157	gibelak	179-200-170
sabalak	157-182-155	argalak	160-196-170	oldalak	162-196-157
sayetzak	146-179-138	beatzak	160-179-167	aldatzak	162-182-140
amotza	140-186-140	buskentza	176-193-157	lebatza	162-186-162
garratza	157-182-132	mingotza	170-193-170	okotza	150-200-140
gorputze	165-193-142	sagarrak	157-193-170	iderrak	167-200-160
piperrak	173-204-167	sekorrak	167-204-167	askarrak	170-200-165
txakurrek	165-193-170	bedarrak	173-208-170	gogorrak	165-204-162
asurrek	152-196-167	ugerrak	160-200-152	laburrek	160-196-167
edurrek	162-200-152	paparrak	165-200-167	isterrak	162-204-176
txirmur	176-204-162	txikerrak	173-196-167	illenak	170-204-170
egunek	167-204-167	sakonak	162-204-170	bustenak	165-204-167
illunek	179-208-173	ucunek	189-204-170	bigunek	176-208-179
gixenak	189-213-167	belunek	173-204-167		

Silaba bikoak kontsonantez amaituak (A-B-B melodia):

muskerrak	200-182-146	musturrek	204-182-162	ollarrak	189-155-157
txindorrak	204-165-155	intxurrek	200-173-155		

Hiru silabakoak bokalez amaituak (B-A-B melodia):

ahadek	160-189-162	alabak	160-186-155	bekokik	165-204-140
lapikok	160-213-152	aburkak	155-179-142	eguskik	157-182-140
bankuk	162-193-165	domekak	162-189-155	errekak	162-193-165
arratsak	152-179-148	sapatuk	144-176-157	aristik	152-176-160
emotak	152-176-160	kokotak	173-196-152	emopak	167-182-162
goiringok	170-193-157	suringok	182-193-160	aurpegik	165-189-167
egurdik	165-193-146	illundek	167-193-155	piñudik	182-193-152
eperdik	162-193-160	ganaduk	176-193-150	gizedu[illegible]	167-204-165
adiguk	157-182-152	arrebak	160-182-146	armos[illegible]	150-182-165
orrasik	160-193-157	kamiñok	162-193-157	okelak	150-189-157
okolluk	160-200-165	katilluk	160-193-152	lumetxak	170-193-152
apatxak	152-179-152	sargorik	160-193-165	askorak	152-189-132
madarik	162-189-167	platerak	165-200-148	alarik	152-193-176
kaderak	165-193-170	solomok	162-[illegible]93-167	amurruk	167-189-160
itxurrik	173-208-157	sokorrak	162-200-165	anajek	140-186-157
antojuk	157-196-152				

Hiru silabakoak bokalez amaituak (A-B-B melodia):

arrebak	176-157-155	arrotza	193-179-150	edarik	193-182-179
amonak	182-167-162	belarrik	189-182-182	landarak	182-152-148
indabak	193-160-157	lengusuk	189-160-140		

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-A-B melodia):

aberatzak	160-170-189-136	alargunek	152-162-186-144
kuntzurrunek	173-186-208-134	iretargik	152-173-193-148
arrastegik	150-179-170-148	txakoliñek	160-176-186-157
atzamarrak	170-182-200-160		

Hiru silabakoak kontsonantez amaituak (B-A-B-B melodia):

eskuturrek	157-217-186-173	martitzenak	160-208-173-157
egustenak	162-200-176-142	eguenak	167-196-186-189
ekaranak	162-200-179-176		

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-A-B melodia):

txirpiloak	165-179-189-126	sapurradak	160-170-173-152
abasuek	150-165-189-150	haragamk	165-179-196-170

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-A-B-B melodia):

alkondarak	160-200-186-152	asukerek	152-204-186-173

Lau silabakoak bokalez amaituak (B-B-A-B melodia):

aburketak	150-152-182-150	iñusentek	173-167-189-155

Labur bilduz jaso ditugun melodia guztiak ondoko taulan agertzen dira:

Silaba kopuruak			
1	A-B		
2-Bokalez amaituak	A-B		
2-Kontsonantez amaituak	B-A-B	A-B-B	
3-Bokalez amaituak	B-A-B	A-B-B	
3-Kontsonantez amaituak	B-A-A-B	B-A-B-B	
4-Bokalez amaituak	B-A-A-B	B-A-B-B	B-B-A-B

Aurreko guztia ikusita, mugatzaile pluralaren morfema tonu baxuz (-àk) markatuta dagoela esan behar dugu. Denbazioak ondoko era honetara proposa ditzakegu:

Oinarrizko erak:

txar + àk seme + àk leku + àk lagun + àk aberatz + àk ollar + àk

Afijazio eta bokalen azimilazio erregelak

txarr àk seme k leku k lagun ek aberatz àk ollarr àk

B B B B B B

Marken tonu altuen sarrera:

txarr àk seme k leku k lagun ek aberatz àk ollarr àk

A B A B A .. B A B A A B A B

Tonu baxuen sarrera

txarr àk seme k leku k lagun ek aberatz àk ollarr àk

B A B BA B A... B B A B B A A B A B B

Tonu altuen egokitzapena: Egongune barik dauzkagun tonu baxuak aurreko silabaren egongunean ezartzen dira, horren ondorioz silaba horietako altuak atzeratu egiten dira eta silaba estratonalen tonu baxuak desagertu egiten dira



Azalean geratzen direnak honako hauek ditugu:

txárrak sémèk lékùk làgùnèk àbérátzàk ólláràk

2.7. ADJETIBO ERATORRIAK

Izen eratorrietan egin dugun legez, hemen ere, datu akustikoetan oinarrituta, lexemaren melodiari datxezkion atzizki batzu alde batetik ikusiko ditugu, eta, bestetik, tonu baxuz markatuta dauden beste batzu.

2.7.1. LEXEMAREN MELODIARI DATXEZKIONAK

-BAKO

ganorabako:	167-160-144-144-157
lotzabako:	140-165-165-165

-DUN

dirudune:	157-165-167-167
berbaldune:	152-165-165-162
solodune:	150-162-162-162
sulodune:	160-170-167-167
bixerdune:	138-179-179-160

-GARRI

lotzagarri:	152-176-176-173
berogarri:	162-173-176-179
kaltegarri	152-173-173-179
negargarri:	155-170-170-173

-TZU

okelatzu:	146-176-176-182
saldatzu:	148-176-186

2.7.2 TONU BAXUZ MARKATUTA DAUDENAK:

-STO/-DO

sapasto:	142-157-146
sorristo:	148-179-150
ugerdo:	148-167-148
bixerdo:	138-179-146

-PARRI

yatziparri	152-176-162-165
eskonparri	138-170-167-165
asi parri	146-176-165-170
yayoparri	167-176-173-173

-AR/-TAR

katikarra:	165-176-165-152
urdulistarra:	152-160-176-157-148
butroyarra:	155-179-157-146
laukistarra:	146-176-160-134

-TI

bildurti:	167-173-157
kakati:	146-170-152
negarti:	152-179-148
eskerti:	152-186-0

2.8. PREDIKATU OSAGARRIA

Adjetiboa predikatu osagarria denean, eta "egon" aditzarekin erabiltzen denean, mugatzaile barik agertzen zaigu, beronek aukera ematen digu adjetiboen oinarrizko melodia neurtzeko. Guk hemen aurkezten ditugun datuetan adjetibo guztiak marka berekoak dira; hona hemen adibidea:

ori suri dau:	138-152
ori gaste dau:	152-162
ori andi dau:	152-162
ori bero dau:	150-152
ori luse dau:	146-152
ori bigun dau:	152-165
ori gogor dau:	152-162
ori labur dau:	150-162
ori bellegi dau:	152-162-162

Ikusten denez adjetibo guztiok bigarren silaban "*" marka daukate eta bertan tonu altua sartzen da. "bellegi"ren kasuan, "*" markak tonua bere ostean mantendu behar dela agintzen duenez gero, azken silaban tonu altua ere daukagu; beraz:

suri bellegi

Markaren tonu altuen sarrera:

suri	bellegi
|	| |
A	A A

Tonu baxuen sarrera:

suri	bellegi
| |	| | |
B A	B A A

Beraz, datu akustikoetan egiaztatzen den legez:

sùrí bèllégi

2.9. ADJETIBOEN ALDAGARRIAK

Adjetiboen aldagarritzat erabiltzen diren -AU, -EGI, -EN eta -TXU atzizkiak aztertuko ditugu jarraian. Atzizki guztiok tonu baxuz markatuta agertzen zaizkigu:

2.9.1. -AU ATZIZKIA

Hona hemen oinarritzat hartutako datu akustikoak (Ikus bitez 81 eta 82 espektogramak):

otzau:	167-129
sarrau:	162-126
txarrau:	157-116
baltzau:	150-112
suriau:	142-162-123
gasteau:	148-167-120
andiau:	152-152-116
beroau:	138-165-131
luseau:	157-179-124
txikerrau:	148-160-126
bigunau:	152-173-126
gogorrau:	152-167-124
laburrau:	146-170-132
polittau:	148-160-129
ifusenteau:	170-170-186-134-132
bellegiau:	170-170-186-129
aberatzau:	152-152-173-142-132
biribillau:	162-170-179-126
saskelau:	155-179-134

Datuetan ikusten denez, "-au" atzizkia tonu baxuz markatuta dagoela esan behar dugu, hau da /-àu/. Adjetiboaren silaba kopuru eta oinarrizko melodia batzuren arauera honako deribazioak proposa daitezke:

[txar] + [-àu] [suri] + [-àu] [bellegi] + [-àu]

Afijazioa:

txarr àu suriàu bellegiàu

Marken tonu altuen sarrera:

txar àu suriàu bellegiàu
| | | | | |
AB AB A AB

Tonu baxuen sarrera:

txar'àu	suriàu	bellegiàu
| | |	| ||	| | ||
B AB	B AB	B A AB

Lehen adjetiboaren deribazioan tonu altu bat egongune barik geratu zaigunez, berau aurreko silaban ezarriko litzateke:

txar'àu
|'-| |
B AB

Azkenik:

txárràu sùrìàu bèllégìàu

2.9.2. -EGI

Hona hemen oinarritzat hartutako datu akustikoak (Ikus bitez 83 eta 84 espektogramak):

otzegi:	160-119-119
sarregi:	165-131-131
txarregi:	162-138-124
baltzegi:	152-117-115
suriegi:	138-157-126-126
gasteegi:	150-165-126-123
andiegi:	146-160-138-136
beroegi:	146-162-144-138
luseegi:	157-170-136-131
txikerregi:	0-182-132-129
polittegi:	152-165-134-134
iñusenteegi:	162-162-182-152-138-138
bellegiegi:	146-167-182-126-126
aberatzegi:	148-144-170-140-132
biribillegi:	150-165-176-140-138
saskelegi:	167-186-138-136

Datuetan ikusten denez, -EGI ere markatuta egongo litzateke /-égi/[14]; deribazioak aurrekoan ikusitako era berean egingo lirateke, azkenik honako hau eukita:

txárrègi sùrìègi bèllégìègi

2.9.3. -ENA

Hona hemen oinarritzat hartutako datu akustikoak (Ikus bitez 85 eta 86 espektogramak):

---

sagarrondo
sapata kordel
sasieskola
sator tontor
solo eskiña
subaster
taberna gixon
talle kasku
tripa garaun
txakur astul
txarri matantza
txirri okaran
txixe poso
txori kardu
ule mengel
urdei asal
ur txakur
sapaburu
sapo berakatz
saskako
soka yantza
solo punta
supaster
taloburnei
tomate ondo
tripe sill
txarri apatx
txarri okaran
txisparri
txori abi
txorixo este
ur bedeinketu ontzi
urretxindor
usandra

ERDI ETA LAUREN GEHITZEN DUTENAK

arrastegi erdi
gauerdi
liber lauren
asunbre erdi
kuartillu erdi
ordu erdi
dosena erdi
liberdi
ordu lauren

ALDE GEHITZEN DUTENAK

atzekalde
elixalde
goixalde
aurrekalde
etzealde
itxasalde
barrukaldebekalde
goikalde
kanpokalde

ARTE GEHITZEN DUTENAK.

artoarte
kearte
autzarte
sasiarte
gariarte

OSTE, GANE, AURRE, ATZE, ONDO, BARREN GEHITZEN DUTENAK

afaloste
biosgane
lo oste
yantzi barren
argan
etzeatze
solo barren
beskaloste
etzeaurre
sutondo

LANDARE IZENAK

agan bedar
aski bedar
gibel bedar
kabra bedar
mamukio bedar
sanbedar
san juan madari
sapo bedar
suge lora
txomin bedar
tella berretxiko
angeru lora
asun bedar
grillu
kalabasa bedar
pulmoni bedar
san jose lora
san juan sagar
suge bedar
tabako bedar
usta bedar
arrotza berretxiko
errosario bedar
bedar
lino bedar
saldar bedar
san juan lora
santiago sagar
sekule bedar
traba bedar
salsa berretxiko

TXORI IZENAK

artatxori	larratxori	sasitxori

3.1.1.2. IZENA + ADJETIBOA

aitte santu	aña freska	aña seka
aragi bixi	arkaste	arri koskor
arto ese	arto ier	askordiñ
astegoyen	astegun burusuri	aste santu
atxur sabal	atzo sar	auso eder
axe larri	balde sabal	bariku guren
bedar fresko	bedar siku	bekoki illun
bela baltz	bela nausi	bela txiker
bero larri	bustin gorri	bustin suri
denpora berde	domini santu	domu santu
eguen guren	eguski suri	eguski txangot
elai baltz	elgorri	elorrantza baltz
elorrantza suri	eskubille garratz	esne barri
esne loi	estegorri	este itzu
este lodi	este me	euli nausi
gabon sar	ganadu gorri	gibel urdiñ
giselan andi	giselan nagosi	giselan txiker
gurdi bolante	ider baltz	illetargi barri
iko pasa	indaba suri	iretargi barri
kanposantu	kardu latz	kare bixi
latagorri	lei baltz	lei suri
lo bigun	lo sendo	lubarri
luberri	lur barri	lur gorri
lur me	maspasa	matxeta oker
meta nausi	moko gorri	ogi soi
okaran pasa	okil nausi	okil txiker
ollogor	ongo baltz	ongo suri
otzara sabal	paloma nausi	paloma txiker
piper lodi	piper txorixeru	plater asal
plater sakon	sagu itzu	saipardo
saltza berde	sapatu guren	sapatu santu
sardiña sar	sepillo garratz	seru argi
seru gorri	seru illun	soritxar
sorri aberastu	surrandi	tripa sittel
txakur andi	txakur txiker	txanka me
udabarri	udagoyen	umegorri
urregorri	urresuri	urun agun
urun ese	urun ier	

3.1.1.3. IZENA + ADITZA

askure	logure	txixegure
barausi	biotzerre	etzebagi
illetargi bete	intzebai	odolbatu
ur bedeinketu	urbatu	

3.1.1.4. IZENA + IZENA + KO

aidearteko
anajeordeko
baskalosteko
maritxu talletako
alabaordeko
apatxarteko
beste aldeko
nebaordeko
amaordeko
arrebaordeko
iñurri ondoko
semeordeko

3.1.1.5. IZENA + IZENORDAINA

aitte gure

3.1.1.6. IZENA + ZENBATZAILEA.

atzamar

3.1.1.7. IZENA + ADITZ LAGUNA

aurbera
ilgora
marea bera
urekora
il begire
iretargi bera
marea gora
urepera
ilbera
iretargi gora
txakur ogera

3.1.1.8. IZENLAGUNA (-KO) + IZENA

agiñetako ur
beluko mesa
buruko orrotz
eperdiko tantu
etzekoarteko
infernuko katu
itxosoko axe
mantatako ume
oyaleko ume
aspiko gona
berako baña
buruko pañelu
erriko axe
gorako baña
iperreko axe
juisioko agiñ
mintzutzesko arrotza
udagoyeneko seta
bekosu
berako indaba
butroiko kañubera
esneko agiñ
iduneko pañelu
iru urruneko mesa
lepoko pañelu
okelarako bei
urriko axe

3.1.1.9. IZENLAGUNA (-EN) + IZENA

autzen egun
iru erregen egun
bean gane
belarriko miñen bedar

3.1.1.10. ADITZA + IZENA

bixileku
erresunde
yarleku
yesarleku
biximodu
sorrostarri
yatordu
yostorrotz
ernekatz
sorrotzarri
yayetetze

3.1.1.11. ZENBATZAILEA + IZENA

amar mandamenttu
bigarren lengusu
bostortz
amarratz
boskantoi
irurke
bederatzi urrun
bostorrotz
ogerleko

3.1.1.12. ADITZA + ADITZA

erregosi artuemon

3.1.1.13. HOTS BERBAK

dilin-dalan dingilin-dangalan firi-firi
parra-parra pil-pil piti-pata
plisti-plasta rapa-rapa sapa-sapa
sara-sara siri-miri surrumurru
taka-taka talan-talan tale-tale
tapa-tapa tas-tas tiki-taka
tilin-talan tipi-tapa txaka-txaka
txipli-txapla txitan-txitan txor-txor
txurku-txurku

3.1.2. IZEN ERATORRIAK

Atal honetan atzizkiak eta atzizkitzat har daitezkeenak alfabetikeraz ematen ditugu.

3.1.2.1 -ADA/-KADA

Atzizki honek erabilera bi dauzka; bata, kolpea adieraztekoa, eta bestea kopurua edo neurria adieraztekoa.

3.1.2.1.1.. Kolpea adieraztekoa:

aginkeda alboskada arrikeda
biorkada bultzekada dardakada
laparastada ostikeda piltxikeda
plastada purrunkeda yaurtakada
akulekada atxurkada pikada
txerpakada ukubilkeda txitximarkada

3.1.2.1.2. Kopurua edo neurria adieraztekoa:

agoakada basokada besarkada
kollarakada oñeskada platerkada
tuteda txorrostada unekada
sarankada sestokada kutxarakada
fuentekada kamiokada

3.1.2.2. -ALDI

araldi barrealdi bearaldi
beroaldi egosaldi egotaldi
estualdi etortaldi eurialdi
goraldi iortaldi larrialdi
lotaldi

3.1.2.3. -ANTZA

bengantza esperantza labrantza
matantza

3.1.2.4. -ARA/-ERA

Atzizki hau pizti batzuren zeloa adierazteko erabiltzen da:

arkara	susera	erkera
ogera		

3.1.2.5. -ARI/-LARI

3.1.2.5.1. Egilea adierazteko:

bertzolari	dendari	errementari
errotari	fumalari	kantari
merketari	pekatari	pelotari
tabernari	yantzari	erremesalari
jotalari	segalari	serrari
soñulari	txistulari	yokolari

3.1.2.5.2. Materia, edukina adierazteko:

afari	beskari	edari
ortuari		

3.1.2.6. -ARO

sartzaro	egotaro

3.1.2.7. -DADE/-DATE

barbaridade	borondate	kapasidade
erremandade	espesilidade	fasildade
kalidade	nesesidade	propiedade
umedade		

3.1.2.8. -DUN/-TUN

ikesdun	ogidun	yakitTun
yatun	egurdun	edatun

3.1.2.9. -DURA/-TURI

txipristura	yakitturi

3.1.2.10. -ERA/-KERA

3.1.2.10.1. Neurriak adierazteko:

andiera	lodiera	lusera
sabalera	sakonera	

3.1.2.10.2. Aditzaren ekintza adierazteko

altzakera
lotukera
esakera
siñeskera
etorrera
asikera
sartukera
esiera
yayokera
aurrekera
urtekera
iruntzikera
yokera

3.1.2.10.3. Modua, antza adierazteko:

ibilkera
yaskera
iminkera

3.1.2.10.4. Berba egiteko era adierazteko:

erdera
euskera

3.1.2.11. -ERI/-KERI

3.1.2.11.1. Kualitate txarrak adierazteko:

andikerii
iñusentekeri
papaukeri
umekeri
barrekeri
arrokeri
okerreri
sorginkeri
alperkeri
miskeri
astokeri
sakeleri
txarrikeri
barrabankeri
txibiskeri

3.1.2.11.2. Zati txikiak adierazteko:

saburreri
saskeleri
mamurreri
saskilleri
sakeleri

3.1.2.11.3. Multzoa adierazteko:

gasteri

3.1.2.11.4. Gaixoa adierazteko:

nafarreri

3.1.2.11.5. Saltokia adierazteko

karnaseri
fruteri
panaderi
peskaderi

3.1.2.12. -ERU

abarketeru
beseru
kamiñeru
karniseru
kinkilleru
pandereteru
siketeru
barberu
igeltzeru
karabiñeru
karreteru
letxeru
peskateru
taberneru
barreñeru
jornaleru
karboneru
kaseru
panaderu
sesteru
triperu

Erdaraz legez generoa eras dakioke femeninoak egiten direla; adibidez:

bendejera	erregatera	erregetera

3.1.2.13. -ETA

ameseta	berbeta	lapurreta
olgeta		

3.1.2.14 -GARRI

Izenak sortzeko erabiltzen denean materiala adierazteko da:

sugarri	aspigarri	labagarri
altzagarrii	esungarri	saltzagarri

3.1.2.15. -GEI/-GAI

andragei	begei	eskongei
gixongei	salgai	

3.1.2.16. -GIN

argiñ	beargiñ	sorgiñ

3.1.2.17 -IÑO

bereinkesiño	burutasiño	esplikasiño
fregasiño	infusiño	tentasiño
uniño	afesiño	atentziño
donasiño	emigrasiño	errepetisiño
intentziño	komuniño	konbertzasiño

3.1.2.18. -KI

olloki	sayeski	txarriki

3.1.2.19. -KILLE

yoskille

3.1.2.20.-KIÑ

ondakiñ

3.1.2.21. -KIXUN

eliskixun

3.1.2.22. -KO

3.1.2.22.1. Kolpea adierazteko:

eperdiko	koskorreko	ukondoko

3.1.2.22.2. Gainerako izenak egiteko:

alboko	arriko	berasko
eskeko	eskupeko	garriko
gorasko	lapikoko	oñetako
soñeko	yateko	

3.1.2.23. -KUNE

aittukune	berbakune	esakune
ibilkune	korrikune	etorkune
adikune	yokune	

3.1.2.24. -KUNTZA

asarrakuntza	estukuntza

3.1.2.25. -LA

aula	anderola	pandero yole

3.1.2.26. -LARRI

txixelarri	kakalarri	gomittalarri

3.1.2.27. -MEN

gosamen	ondamen

3.1.2.28. -MINTTU

konponiminttu	mogiminttu	pentzaminttu

3.1.2.29. -MIÑ

berdamiñ	landamiñ

3.1.2.30. -ORE

afiladore	enterradore	erradoreq
errentadore	kantore	korredore
pastore	tasadore	

3.1.2.31. -PE

aterpe
errape
sankope
parrape
egope
labape
sagarpe
besape
gerispe
surpe
arkupe
eskillarape
maipe
elispe
okospe
arripe
arripe
irape
minpe

3.1.2.32. -PIDE

esupide

3.1.2.33.-RENGO

akaburengo
berengo
ganerengo
puntarengo
atzerengo
esker alderengo
goirengo
alborengo
aurrerengo
eskiñarengo
kanporengo

3.1.2.34.-TASUN

aberastasun
garbittasun
osasun
garrastasun
itxittasun
surittasun
argittasun
ixiltasun
urdinttasun
gastetasun
makaltasun
umeltasun
berotasun
laguntasun
aguntasun
iluntasun
sorrostasun
damutasun

3.1.2.35.-TE

axete
gerrate
edurte
negute
sikete

3.1.2.36.-TEGI

artegi
euntegi
lastategi
sastegi
goittegi
sutegi

3.1.2.37.-TI/-DI

aristi
gastañadi
piñudi
urresti
belardi
malladi
sagardi
masti
fagodi
pagodi
yungudi

3.1.2.38.-TO

sakuto
kuadrillato

3.1.2.39.-TOKI

arditoki
umetoki
ollotoki
txoritoki
txarritoki

3.1.2.40.-TXO

artxo
eltxo

3.1.2.41..-TZA/-TZE

3.1.2.41.1. Egintza adierazteko:

alarguntze
illuntze
eriotza
ierritze
bixitze
laguntze
laguntza
konbidedutze
eskontze
yayotze
etze aldatza

3.1.2.41.2. Lanbidea adierazteko

monagillotza
bidegintze
errementaritze

3.1.2.41.3. Ugaritasuna adierazteko:

artotza
euritze
axetze
basatza
garitze
esnetza
bustitze
illuntze
lupetza

3.1.2.42. - TZALLE

asur imintzalle
garbitzalle
ume artutzalle

3.1.2.43. -UNE

argiune
eskutune
ixillune
erdiune
utzune
aterrune
gorriune
searrune
irigiune
baltzune
illunune
suriune
sabalune

3.2. ADJETIBOA

Atal honetako izenburua adjetiboa bada ere, EGLU-I ean [22](1985) egindako sailkapenaren arabera Izenondoez arituko gara bereziki.

Adjetibo moetak, adjetiboaren lekua, predikatu osagarria, maila adberbioak eta konparaketak ikusiko ditugu.

3.2.1. ADJETIBO MOETAK.

EUSKALTZAINDIAri (1985) jarraikirik adjetibo moeta bi bereiztuko ditugu: alde batetik, bakunak, eta bestetik, konposatuak. Azken hauetan ere, moeta bi bereizten ditugula, eratorriak eta konposatuak.

3.2.1.1. ADJETIBO BAKUNAK.

Adjetibo bakunak elementu bakar batez osatukoak dira, zatiezinak direnak , hain zuzen. Berauek lexikoian ditugu; gure kasuan, atzean paratu dugun lexikoan aurki daitezke.

3.2.1.2. ADJETIBO KONPOSATUAK

Adjetibo konposatuetan, lehen aitatu bezala, moeta bi bereiztuko ditugu: eratorriak eta konposatuak.

3.2.1.2.1. ADJETIBO KONPOSATUAK

Jarraian agertzen izan zaizkigun adjetibo konposatuak emango ditugu:

ago loi	ago sabal	ago txarreko
begi epel	begi nabar	begi oker
begi suri	berba txarreko	berba utz
buruandi	buru gogor	eskusabal
mosu merke	mutil sar	neska sar
gosekill	otzakill	begi galdu
bixi alargun	esangatx	

[22] Euskaltzaindia (1985): Euskal Gramatika Lehen Urratsak. Iruña

3.2.1.2.2. ADJETIBO ERATORRIAK.

3.2.1.2.2.1. -BAKO

bixerbako
gasbako
ganorabako
lotzabako
garobako
sustentzibako

3.2.1.2.2.2. -BERA

minbera
ospera

3.2.1.2.2.3. -DO/-STO

alperdo
sapasto
saskeldo
babasto
sorristo
koipesto
bixerdo
ugerdo

3.2.1.2.2.4. -DUN

astadun
erdaldun
karrodun
egurdun
bixerdun
euskeldun
sulodun
narrudun
dirudun
gafadun
berbaldun
loradun

3.2.1.2.2.5. -GARRI

antojagarri
lotzagarri
pasagarri
berogarri
baragarri
mingarri
penagarri
ikusgarri
kaltegarri
negargarri
posgarri
lastimagarri

3.2.1.2.2.6. -GE

inderge
kolorge

3.2.1.2.2.7. -OR

lotzor
askor
loyor
siñestor

3.2.1.2.2.8. -OSO

ganoso
itxuroso
txantxoso

3.2.1.2.2.9. -PARRI

altzaparri
yayoparri
eskonparri
asiparri
inparri
yatziparri

3.2.1.2.2.10. -(T)AR

katikar	gernikar	barrikar
mungiar	sondikar	butroyar
gorlistar	plentzitar	laukistar
urdulistar	bilbotar	

Atzizki honek -STAR aldakia ere badauka; adibidez:

berangostar
sopelostar
erandiostar
laurostar

3.2.1.2.2.11. -TI

bildurti	eskerti	gusurti
kakati	loti	lotzati
moskorti	negarti	txiveti
uskerti	eskoati	mokoti

3.2.1.2.2.12. -TZU

axetzu	arantzatzu	arritzu
barretzu	bixertzu	euritzu
girrisgitzu	gixentzu	indertzu
isertzu	koipetzu	mamitzu
okelatzu	osasuntzu	saldatzu
urtzu	urtetzu	urdeitzu

3.2.1.2.2.13. -SALE

andrasale	gososale	ezkarisale
morokilsale		

3.2.1.2.2.14. -SKO

andrasko	bearresko	itzelesko
argixerisko	arrisko	begisko
egurresko	firusko	gixonesko
gorasko	berasko	gusurresko
kobresko	lurresko	narrusko
olasko	siñesko	urregorrisko

3.2.1.2.2.15. Atzizki txikigarriak eta handigarriak.

3.2.1.2.2.15.1. -INGO/-INGA

baltzingo	bardingo	lusinge

3.2.1.2.2.15.2. - KAN

yakan

3.2.1.2.2.15.3.-KILLO

astokillo

3.2.1.2.2.15.4. -ISKE

asuliske	bellegiske	berdiske
gorriske	marroiske	suriske

3.2.1.2.2.15.5. -SULO

aittesulo	amasulo	etzesulo

3.2.1.2.2.15.6. -SAR

tripasar (G)

3.2.1.2.2.15.7. -TONA

txikitona	loditona

3.2.1.2.2.15.8. -SKONE

andraskone	txarriskone

3.2.2. ADJETIBOEN LEKUA

Atjetiboaren lekuari dagokionez, esan beharra dago beti agertzen dela izenaren ostean:

- neska gaste yon da(G)
- mutil bixerdo bat etor da (G)
- etze sarrak a, akabaten dos (G)
- etze gorri ikusi du (U)
- mutil lodi bet etorri da (U)
- denpora ona dau (U)

"-DUN" atzizkidun adjetiboak salbuespen bakarrak izango lirateke, izan ere, aurrean nahi atzean ager daitezke; adibidez:

Atzean:

- andra euskeldun bet etorri da (U)
- andra euskeldun bet etor da (G)

Aurrean:

- ori euskeldun erri bet da (U)
- bixerdun mutil bet etorri da (U)

Izena kontaezina denean, hots, fenomeno atmosferikoak eta denbora denean batez ere, "andi" erabiltzen da kuantifikatzaile gisa; adibidez:

- leye andi in dau (U)
- emen otz andi itten deu (G)
- denpora andiñ egon da sarate (G)

3.2.3. PREDIKATU OSAGARRIA

Predikatu osagarria, "izan" aditzarekin dela edo "egon" aditzarekin dela, mugatzailearekin edo mugatzaile barik agertzen da, beheragoko adibideetan ikusten den bezala; "izan" aditzari dagokion galdekaria "selau" dugu eta, berriz, "egon" aditzari dagokiona "selan". "Izan" aditzarekin paratu ditugun zenbait adibideetan mugatzailea agertzen ez bada ere, izan ere, geroago ikusiko dugunez berau asimilatu egiten da bokalez amaitutako berbekin, kontsonantez amaitutako adibideetan agerian dugu; alabaina, egon aditzarekin eguno ere ez da agertzen.

3.2.3.1. IZAN

- selau da sure errie? (G)
- ori terreno ori txikerra da(G)
- ume altu da (G)
- erri andi da (D)
- ori garratza da (U)

3.2.3.2. EGON

- selan dau yateko? (G)
- erreke loi dau (G)
- os tau (G)
- ardau garras tau (U)
- au yateko gasi dau (U)

3.2.3.3. IZENA PREDIKATU OSAGARRIA

Izena predikatu osagarri gisa erabiltzen denean berau mugatzaile barik agertzen da; adibidez:

- ori kriedu bota deure (U)
- ni kriedu etor nitzen (U)
- ori kriedu bota deude (G)
- ori abade dau erriñ (U)
- ori errin dau abade (G)
- nire anaje pastore dau Ameriketan (U)
- ori Ameriketan dau pastore (G)
- soldadu yon da (U)
- lelau yo nitzen moso, gero imi nenduen mariñeru (U)
- argiñe argin bear itten deuna da (U)
- alkate imin deude (G)

3.2.4. MAILA ADBERBIOAK

Adjetiboaren maila aldatzeko geroago ikusiko ditugun graduatzaileak ezeze maila aditzondoak ere erabiltzen dira.

3.2.4.1. SANO

Beronen erabileraz, GAMINDE (1987), esan dezakegu gehienetan adjetiboaren maila alda eraziz agertzen den arren aditzaren ekintza zenbagaltza denean berorren maila alda erazteko ere erabiltzen dela.

3.2.4.1.1. Adjetiboekin:

- ori sano andi da (G)
- ori sano gaste da (G)
- ori etze sano andi da (G)
- ori etze sano sarra da (U)
- sano altu da (U)

3.2.4.1.2. Aditzekin:

- sano argaldu nas (G)
- bero itten deu sano (G)
- sano ingetu ber da (G)
- au erre in da sano (G)

3.2.4.2. NAIKO

- ori andre naiko gaste da (G)
- ori mutille naiko andi da (G)
- ori naiko andi da (D)
- berton bere naiko dire karu ya (U)
- ori naiko gaste da (U)

3.2.4.3. BASTANTE

- sekule bedarrana bastante da biribille (G)
- ori, bastante gaste da (U)

3.2.4.4. APUR/APUTXU BET

- aputxu bet bero dau (G)
- ori apur bet lodi da (U)

3.2.4.5. ORREN

- ori esta orren gaste (G)
- ori esta orren andi (G)

3.2.4.6. AIN

- ori esta aiñ argala (G)
- ni enas ain lodi (D)
- ni enas ain lodi (D)

3.2.4.7. AINBET

- gure alden ainbet sarra da (U)
- eta a bere kendu, te ainbet txarrao (G)

3.2.4.8. ONDO

- ori etze ondo sarra da (G)
- ondo txarto dau (G)

3.2.4.9. KONPLETO

- ori konpleto barri da (G)
- ori, iñusente konpleto da ori (G)
- artatxori konpleto da lotzabako (G)

3.2.4.10. GUSTIS

- ori gustis baltza da (G)
- ori gustis iñusente da (D)
- ori gustis suri da (U)

Adjetiboaren maila alda erazteko erabiltzen den beste erabat dugu adjetiboa bera errepikatzea: adibidez:

- gorri gorri da en jeneral a (U)
- punte bigun bigun daola kendu, eta egosi (G)

3.2.5. KONPARAKETAK

3.2.5.1. -EN

3.2.5.1.1. -RIK... -EN

- Gorbea da mendirik altuena (G)
- errekarik andiena, Nerbion da (G)
- ori da andrarik sarrena (D)
- ori da mutillik gasteena (D)
- mendirik a, altuena gorbea da (U)

Berau eredurik eratuena bada ere, zenbait kasutan izenari ez zaio partitibo kasu marka erasten: adibidez:

- ori da mutil gasteena (G)

3.2.5.1.2. AL DANIK... -EN

- al danik txikerrena ekarri ber da (G)
- al danik andiena erosi ber da (G)

3.2.5.1.3. ALIK... -EN

- bakotxak al dan modun, alik ondoen (G)
- alik ariñen yon ber da (G)

3.2.5.1.4. MULTZO BATETIK AUKERA EGITEKO

Multzo batetik elementu bat atera nahi denean era nagusi bi erabiltzen dira: -EN erabilita, izena adierazten duen multzoari mugagabeeraz inesiboa (-TAN) edo ablatiboa (-TARIK) eras dakizkioke; adibidez:

3.2.5.1.4.1.-TAN:

- gurditten bi baño estoas esetu (G)

3.2.5.1.4.2. -TARIK:

- andratarik gasteena esta etorri (U)
- umetarik andiena au da (U)

3.2.5.2. -AGO

"-AGO" graduatzailea gure barietatean "-AO" dugu eta batzutan "-AU" ere, joera nagusia "-AU" egitea bada ere, ez dirudi berau ondino finkoa denik; adibidez:

-AO

- ori andiao da (G)
- au txikerrao da (G)

-AU

- ori andiau da (U)
- ori txikerrau da (U)

3.2.5.2.1. "-AGO"ren bidez sortutako lokuzioak

Alor honetan adjetiboari erasten zaizkionak ezeze beauen pareak kantitate alorrean erabiltzen direnak ere ikusiko ditugu.

3.2.5.2.1.1. BAÑO... -AO

- idi indertsuau da asto baño (G)
- ni su baño gasteao nas (G)
- olesko baño arrisko da oba (G)
- au erri txikerrau da Gernike baño (U)
- ori ni baño gasteau da (U)
- ori su baño andiau da (U)

3.2.5.2.1.2. BAÑO GEYAO/GITXiAO

- orrek erosi deu geu paño giau (G)
- suk ekar dosu ni paño geyao (G)
- ber deena fuerteau ta kantidade geyau ganaduk persone paño (G)
- suk ekarri dosu ni paño geyau (U)
- orrek gu paño gitxiao erosieun (G)
- orrek gu paño gitxiau erosi dau (U)

3.2.5.2.1.3. SENBET...-AO

- senbet eta altuau obeto ikusten da (G)
- senbet eta parajeau entzuten da geyau (G)
- senbet eta gorau ien obeto ikusten da (U)
- senbet eta parajeau egon obeto entzuten da (U)
- senbet eta andiau txarrau (U)

-AU adjetiboari ezeze aditzari ere eras dakioke; adibidez:

- senbet eta esanau txarrau (U)
- senbet eta iordiau obeto (G)

3.2.5.2.1.4. SENBET... GEYAO/GITXIAO

- uden senbet eta geyao edan egarri geyao (G)
- senbet eta libiru giau egon obeto (G)
- senbet eta ume gitxiao obeto (G)
- senbet eta ume gitxiau obetaoau (U)

3.2.5.2.1.5. GERO(R)AU... -AO

- ori geroau ta loyau dau (G)
- ori gerorau ta andiau da (U)
- ori gerorau ta sarrau da (U)

3.2.5.2.1.6. GERO(R)AU GEYAO/GITXIAO

- geroau gausa geyao dao (G)
- geroau ta jente giau dator (G)
- geroau ta gitxiau ikusten da (G)

3.2.5.2.1.7. GERO TA GEYAO/GITXIAO

- dana dau gero ta gitxiau (U)
- beste danak gero ta gitxiau ikusten dire (U)

3.2.5.2.1.8. ASKO... -AO

- ori asko gasteao da (G)
- oin daon sorri asko bere gatxau da kentxen (G)
- ori asko da gasteau (U)
- ori asko da fasillau (U)

3.2.5.2.1.9. ASKO BERE... -AO

- soloko teke garo andiao asko bere (U)
- asko bere gasteau da ni baño (U)
- ori, asko bere, fasillao da (G)
- ori asko bere sarrao da (G)

3.2.5.2.1.10. ASKOS....-AO

- askos mami giau itten deu onek (G)

3.2.5.2.1.11. ASKO GEYAO/GITXIAO

- asko bere porru giau allega da (G)
- asko geyao ekar deude (G)
- asko geyau ekarri deude (U)
- bero itzela, ta mogitten asten danen ademas asko bere geyao (U)
- asko bere libiru gitxiau ekar dere (G)

3.2.5.2.1.12. GERO BAÑO GERO... -AO

- ori gero baño gero andiao da (G)

3.2.5.2.1.13. Adjetiboa + baño + Adjetiboa + -AO

- sure ama okerra baño okerrao ixen san (G)

3.2.5.3. -EGI

- ori txikerregi da (G)
- ori andiegi da (D)

Graduatzaile honek beste aldaki bat ere badauka, berau askoz ere gutxiagotan erabilia: hona hemen:

3.2.5.3.1. LAR...-EGI

- ori andiegi da, lar andiegi (G)
- ori lar beroegi dau (U)

3.2.5.4. -TXU

-TXU atzizki hau beste barietate batzutako "SAMAR"en ordez erabiltzen dugu: adibidez:

- ori gastetxu da (G)
- ori loditxu da (G)
- kafe berotxu dau (G)
- ostxu dau (D)
- loditxu da (U)

3.2.5.5. ON eta TXAR adjetiboen graduatzaileak

3.2.5.5.1. obe/obeau

- ori obe da (D)
- ori da obeau (U)

3.2.5.5.2. onegi/lar onegi

- onegi da (U)
- lar onegi da ori (G)

3.2.5.5.3. onena

- ori onena da (D)

3.2.5.5.4. txarrao/txarrau

- ori txarrau da (D)
- ori da txarrau (U)
- ori txarrao da (G)

3.2.5.5.5. txarregi/ lar txarregi

- ori lar txarregi da (G)
- ori txarregi da (U)

3.2.5.5.6. txarrena

- ori txarrena da (D)

3.2.5.6. ONDO eta TXARTO adberbioen graduatzaileak

3.2.5.6.1. obeto/obetoau

- ori obeto dau (G)
- olan dau obeto (U)
- ori obetoau dau (U)

3.2.5.6.2. lar ondo/ lar ondoegi

- lar ondo in deude (G)
- lar ondoegi in deude (U)

3.2.5.6.3. ondoen

- au da ondoen daona (D)

3.2.5.6.4. txarrau/txartoau

- olan txarrau dau (G)
- olan dau txartoau (U)

3.2.5.6.5. lar txarto

- olan lar txarto dau (D)

3.2.5.6.6. txarren

- au txartoen dau (D)

3.2.6. BERDINTASUNEZKO KONPARAKETA

3.2.6.1. GAÑE

- ni gañe gaste sara seu bere (G)
- ori ama gañe sarra da (G)
- su ni gañe gaste sara (D)
- ori gañe andi sara (D)

Zenbait kasutan konparatzen den elementuari genitibo kasu marka ere erasten zaio; adibidez:

- ori esta orre gañe sarra (U)
- ori esta orre gañe gaste (U)

3.2.6.2. GAIÑ

- su gaiñ andi nas (U)

Konparazioan tamainua, batez ere handiera, konparatzen dena denean honako era hau erabiltzen da:

- egoten dire sagu andik, arratoi lasekok (U)

3.2.6.3. BAÑO

- ori aittitte baño sarra da (G)
- ori sure seme baño txikerra da (G)

3.3. IZEN ORADAINAK

Atal honetan izenordainak ikusiko ditugu hiru multzo nagusitan banatuta: pertsona izenordainak, izenordain zehaztugabeak, eta azkenik, bihurkariak eta elkarkariak.

3.3.1. PERTSONA IZENORDAINAK

Ataltxo honetan pertsona izenordainen aurkezpena egiteko hiru multzotan sailkatuko ditugu: pertsona izenordain arruntak, indartuak eta berrindartuak.

3.3.1.1. PERTSONA IZENORDAIN ARRUNTAK

Berauen erabilerari dagokionez, arazorik ez dagoenez deklinabide taulak baino ez ditut emango.

NI	HI
ni	i
nik	ik
niri	iri
nire	ire
nies	ies
niretzat/niretzako	iretzat/iretzako
niaittik	iaittik
niana	iana

GU	ZU	ZUEK
gu	su	suok
guk	suk	suok
guri	suri	suori
gure	sure	suona
gues	sues	suokas
guretzat/guretzako	suretzat/suretzako	suontzat/suontzako
guaittik	suaittik	suókaittik
guana	suana	suokana

3.3.1.2. PERTSONA IZENORDAIN INDARTUAK

3.3.1.2.1. Taulak

NEU	HEU
neu	eu
neuk	euk
neuri	euri
neure	eure
neues	eues
neuretzat/neuretzako/neutzako(U)	euretzat/euretzako
neuaittik	euaittik
neuana	euana

GEU	ZEU	ZEUEK
geu	seu	seuok
geuk	seuk	seuok
geuri	seuri	seuori
geure	seure	seuona
geues	seues	seuokas
geuretzat/geuretzako	seuretzat/seuretzako	seuontzat/seuontzako
geuaittik	seuaittik	suokaittik
geuana	seuana	seuokana

Urdulizko lekuko batzuk /eu/ barik /au/ erabiltzen dute: hau da: nau, au, gau, sau, e.a. Aldaketa hau geroago eta gazteagoek maizago erabiltzen dute. Hala ere, arruntenak tauletan paratu ditugunak dira.

3.3.1.2.2. Pertsona izenordain indartuen erabilera

Izenordain pertsonal indartuok gehienetan galdegaigunean agertzen dira, ondoko adibideotan ikusten den bezala:

- neuk ikus dot (G)
- seuk esan dosu (G)
- seuek etorri nei geu yon bardin da (G)
- neuk ikusi dot (U)
- geu yongo gara (U)
- seuok yon sinttikese (U)

"bere"ren aurrean ere sarri agertzen dira era indartuak:

- ni gañe gaste sara seu bere (G)

Genitibo kasuan galdegaigunean agertu ez ezik beronek subjetuaren pertsona bera adierazi behar duelako araua gehienetan betetzen dela dirudi, bestela ez da era indartua erabiltzen; EGLU-1an genitiboaren balio bihurkaria eta indartua nahastu egiten direla esaten da[23]; geroago erabileraz lege zorrotzik ezin eman daitekeela esaten bada ere honako arau hau agertzen da[24]:

"Erabili bedi genitibo bihurkaria baldin eta izenordain horrek aipatzen duen pertsona edo izakia perpaus berean aurkitzen bada nor nori edo nork sintagma bezala"

---

[23] Euskaltzaindia (1985) EGLU-1. 86. orri.
[24] Euskaltzaindia (1985) EGLU-1. 113. orri

Ondoko esaldi hauetan era arrunta erabiltzen da subjetuarekiko komunztadura ez daukalako, hots, erreflexiboa ez delako

- seuk ekarri dosu nire liburu (U)
- neuk ekar dot sure kotxe (G)
- ekar dosu nire libiru? (G)
- suen etzera ixenas (G)

Hona hemen era indartuen beste adibide batzu komunztadura zaintzen:

- neure kotxe ekarri dot (D)
- ukus dosu seure ama? (G)
- neure besotan iki dot señe (G)

Genitiboari indar handiagoa ematekotan inoiz edo behin izenaren ostean ager daiteke; adibidez:

- an il san amoma gure (G)

Arestian genitiboaz esan dugunak badirudi destinatibo kasurako ere balio duela, izan ere, honek ere subjetuarekiko komunztadura izan behar du; adibidez:

- neuretzako erosi dot au (G)

komunztadura hori gertatzen ez bada, galdegaigunean egonda ere, ez dira era indartuak erabiltzen; adibidez:

- suretzako ekar dot au (G)

3.3.1.3. Pertsona izenordain berrindartuak:

Alor honetan paradigmak osatu ez ditugun arren hona hemen erabileraren adibide batzu:

- nik neuk estot ikusi iños (U)
- nik neuk ori estot iños entzun (U)
- guk geuk seoser diferente itten gendun (G)

3.3.2. IZENORDAIN ZEHAZTUGABEAK

Atal(xo honetan galdetzaileak eta galdetzaileetatik erakarriko izenordain mugagabeak ikusiko ditugu; azkenean gainerako izenordain zehaztugabe batzu ere bai.

3.3.2.1. Galdetzaileak:

Berauen artean singularrak eta pluralak bereiztuko ditugu; bai batzuk zein besteak sano erabiliak dira barietate honetan.

3.3.2.1.1. Galdetzaile singularrak

Izenordain izan daitezkeen galdetzaile singularrak "NOR", "SER" eta "SEÑ" ditugu; hona hemen berauen deklinabide taula:

NOR	SER	SEIÑ
nor	ser/se	seiñ
nok	sek	señek
nori	seri	señeri
noiñ	sen	señen
noñe	sena	señena
noas	seas	señeas
nointzat/nointzako	sentzat/sentzako	señentzat/señentzako
noaittik	seaittik	señeaittik
noana	-	señeana

"SE"k eta "SEIÑ"ek leku denborazko kasuen deklinabidea ere onartzen dute; adibidez:

SE	SEIÑ
setan	señetan
setara *	señetara
setati	señetati
setako/setarako	señetako
sean	

* Hau oso gutxitan erabiltzen da; kasu baterako, eguraldiaz berba egiten denean "setara emon dau?" esan liteke.

3.3.2.1.2. Galdekatzaile pluralak:

Galdekatzaile pluralak "NORTZUK", "SERTZUK" eta "SEINTZUK" ditugu; hona hemen beraiek deklinabide taula:

NORTZUK	SERTZUK	SEINTZUK
nortzuk	sertzuk	seintzuk
nortzuk	sertzuk	seintzuk
nortzuri	sertzuri	seintzuri
nortzune	sertzune	seintzune
nortzukes	sertzukes	seintzukes
nortzuntzeko	sertzuntzeko	seintzuntzeko
nortzukaittik	sertzukaittik	seintzukaittik
nortzukana	-	seintzukana

3.3.2.2 GALDEKATZAILEETATIK ERAKARRITAKO IZENORDAIN MUGAGABEAK.

3.3.2.2 1. IÑOR

Berau galderezko zein ezezko esaldietan agertzen da; adibidez:

3.3.2.2 1.1. Galderetan:

- ikusi dosu iñor? (U)
- ukus dosu iñor kalean? (G)

3.3.2.2 1.2. Ezezkoetan:

- estot ikusi iñor (D)
- estot iñor ikusi (G)

Beronen deklinabidea honela egiten da:

iñor
iñok
iñori
iñon/iñona
iñoas
iñontzat/iñontzako
iñoaittik
iñoana

Baiezko esaldietan "bata bat", "batan bat" e.a. erabiltzen dira; adibidez:

- batabat sartu da etzen (G)
- bata bateri emongo tzet (G)
- begiskones in dotzo bateren batek (U)
- batan bat etzen dartu da (U)

3.3.2.2 2. NOONOR

Hau agertu izan zaigunetan baiezko esaldietan baino ez dugu jaso; adibidez:

- noonor etor da (G)
- noonok in deu (G)
- noonori emongo tzet (G)

3.3.2.2 3. ESER

Berau nahi galderetan nahi ezezko esaldietan ager dakiguke:

3.3.2.2 3.1. Galderak:

- erosi dosu eser? (D)
- esan deude eser? (U)

3.3.2.2 3.1. Ezezkoetan:

- estot ekarri eser (G)
- estere itxi eser (G)
- emen esegon eser bere (U)
- suk estakixu eser bere (U)

3.3.2.2 4. SEOSER/SEUSER

Berau gehienetan baiezko esaldietan agertzen da, hala ere, inoiz edo behin galderetan ere ager daiteke:

3.3.2.2 4.1. Baiezkoa:

- onek umeri seoser emongo leskie (U)
- orrek ekar deude seuser (U)
- orrek ekar deude seoser (G)

3.3.2.2 4.2. Galderetan:

- ekar dosu seoser? (G)
- seuser erosi dosu? (U)
- ser dakasu boltzan?, erosi in dosu seuser? (U)

3.3.2.2 5. EDOSEIÑ

- edoseiñ etor littike (D)
- edoseñek i lei (D)

3.3.2.2 6. EDONOR

- ori edonor da (G)

3.3.2.2.7. NORBERA

- ori gatxa da noperantzako (U)
- ori gatxa da norberantza pere (G)

3.3.2.3. GAINERAKO IZENORDAIN ZEHAZTUGABEAK

Azpi atal honetan izenordainak izan daitezkeen "BESTE" eta "BATZUK" ikusiko ditugu hala nola "BAKOTXA" ere.

3.3.2.3.1. BATZUK

- batzuk a. latakok gurau dittues (G)
- batzu taus a. meatxuaok beste batzuk lodiaok (U)

Hona hemen beronen deklinabide taula:

batzuk
batzuk
batzuri
batzune
batzukes
batzuntzeko
batzukaittik

batzuten
batzutera
batzuteti
batzuteko
batzuterako

3.3.2.3.2. BESTE

- batek ekarreun ardau eta bestek a. ogi (G)
- au beste estaitt ser dan (U)

Hona hemen beronen deklinabide taula:

beste
bestek
besteri
bestena
besteas
bestentzat/bestentzako
besteaittik
besteana

besten
bestera
besteti
besteko
besterantza
besterañ
besterako

3.3.2.3.3. BAKOTXA

- bakotxa bere etzen bixi da (U)
- bakotxak itten deu gure deuna (U)
- bakotxak irune ekarri du (U)
- bakotxak al deune esaten deu (G)
- iru bakotxak ekar dus (G)
- bakotxak bi yango dus (G)

Hona hemen beronen deklinabide taula:

bakotxa
bakotxak
bakotxari
bakotxana
bakotxaas
bakotxantzat/bakotxantzako
bakotxaaittik
bakotxaana

3.3.3. BIHURKARIAK ETA ELKARKARIAK

3.3.3.1. X-EN BURU

- orrek beorren buru il deu (G)
- bere bururi tiro bat emon dotzo (U)
- uretara bota dau bere buru (D)

3.3.3.2. ALKAR

- alkarreri aittu dotze (U)
- alkar utzin du (U)
- berba in dotze alkarreri (G)
- alkarreas yon dires (G)
- etzera biden ikusi gendun alkar (G)
- orrek alkarren antzeko tire danak, orrek irurek (G)

Hona hemen beronen deklinabide taula[25]:

alkar
alkarreri
alkarren
alkarreas

Zenbaitetan "alkarreas" barik "batera" ere erabiltzen da:

- batera yan du (U)
- orrek batera etor dires (G)

Halaber, "bata beste" sarri erabiltzen da beronen ordez elkarkari gisa:

- bata besteri in dotze berba (G)

---

[25] Neuk jaso ditudanak baino ez ditut paratu.

3.4. MUGATZAILEAK

Mugatzaileak -O, -A, -AK eta -OK ditugu. Bizkaieraren gainerako barietateetan gertatzen dena legez, hemen ere mugatzailea eraskeran aldaera batzu gertatzen dira. Hona hemen aldaera horiek bokal desberdinez, diptongoz eta kontsonante batzuz amaitutako berbekin[26]:

3.4.1. Bokalak:

...A... -A

Mugagabe	Singularra	Plurala
alába	alábe	alábak
arréba	arrébe	arrébak
aistá	aisté	aistak
nebá	nebá	nebak

...E...-A

Mugagabea	Singularra	Plurala
semé	semé	semek
anáje	anáje	anájek
gasté	gasté	gastek
etzé	etzé	etzek

...I...-A

Mugagabea	Singularra	Plurala
idi	idi	idik
txarri	txarri	txarrik
txori	txori	txorik
erri	erri	errik

...O...-A

Mugagabea	Singularra	Plurala
astó	astó	ástok
ollo	ollo	óllok
soló	soló	sólok
basó	basó	bások

---

[26] Oin ez markatuak jarri ditugu kasu guztietan; hori dela eta lehen silaba ez dugu markatu.

...U...-A

Mugatzailea	Singularra	Plurala
katu	katu	katuk
ortu	ortu	ortuk
okollu	okollu	okolluk
esku	esku	esukk

3.4.2. Diptongoak

Mugagabea	Singularra	Plurala
gastai	gastai	gastaik
bei	beye	beyek
arratoi	arratoi	arratoik

3.4.3. Kontsonanteak

Bokal harmoniarekiko harremanak ikusi ahal izateko bereiztu egingo ditugu, bigarren talde baten, kontsonante aurrean /i/ edo /u/ dauzkaten berbak.

a)

Mugagabea	Singularra	Plurala
gixon	gixona	gixonak
txiker	txikerra	txikerrak
ar	arra	arrak
motz	motza	motzak
baltz	baltza	baltzak
bastar	bastarra	bastarrak

b)

Mugagabea	Singularra	Plurala
txakur	txakurre	txakurrek
lagun	lagune	lagunek
mutil	mutille	mutillek
miñ	miñe	miñek

Azentuari dagozkion erregelak albo batera utzita [27], mugatzailearen asimilaziorako honako erregelak proposa ditzakegu. Oinarrizko berbak zein diren kontutan hartuta azpian honako hau dugu:

[neska - a] [seme - a] [idi - a] [gixon - a] [lagun - a]

Lehenbiziko erregela, erregela morfologikoa geneukake, afijazio erregela, alegia; berau aplikatuz gero zera geneukake:

neskaa semea idia gixona laguna

Honez gero erregela fonologikoak aplikatu beharko genituzke; erregela fonologikoak orden zehatz baten arabera aplikatu behar dira, izan ere, behin aplikatuz gero ziklo batetan blokeatu egiten dira. Proposa ditzakegun erregelak honako hauek dira:

---

[27] Ikus bedi 2. atala

a + a suertatzen direnerako berbaren amaleran, hots, berba muga onartuta, lehen /a/ /e/ bihurtzen da:

1. a ---> e/ ____a #

Erregela hau ez da pluraletan aplikatzen, horrelako kasuetan, neskak, arrebak, alabak, e.a. eukita, beste erregela bat proposatu behar dugu, hots:

2. a ---> o/ ____ak #

1 eta 2 erregelak aplikatuz gero honako aldaketak geneuzkake:

Singularra:				
neskaa	semea	idia	gixona	laguna
1.				
neskea	-	-	-	-
Plurala:				
neskaak	semeak	idiak	gixonak	lagunak
2.				
neskak	-	-	-	-

Behin honaz gero singularrerako bokal baxuaren aurrekoaren asimilazio erregela bat proposatu beharko genuke, erregela hau edozein kontsonantek blokeatu egingo luke: hona hemen erregela:

3. a ---> $\overset{V}{\circ}$/$\overset{V}{\circ}$____

Hots, /a/ [-baxua] egiten da aurreko bokalari asimilatuz. Azkenik, harmonia erregela aplikatu beharko genuke:

4. a ---> e/ [i,u] C_0___

Aipatutako erregelak aplikatuz gero honako prozesoak geneuzkake:

Morfologia						
neskaa	semea	idia	astoa	eskua	gixona	laguna
Fonologia						
1						
neskea	-	-	-	-	-	-
3						
neske	seme	idi	asto	esku	-	-
4						
-	-	-	-	-	-	lagune

Azkenik, esaten dena:

neske	seme	idi	asto	eske	gixona	lagune

Pluraletan, ostera, beste deribazio hau geneukake:

Morfologia:

neskaak	semeak	idiak	astoak	eskuak	gixonak	lagunak

Fonologia:

2						
neskak	-	-	-	-	-	-
3						
-	semek	idik	astok	eskuk	-	-
4						
-	-	-	-	-	-	lagunek

Esaten dena:

neskak	semek	idik	astok	eskuk	gixonak	lagunek

Deribazio biak erregelen ordena kontutan hartuta honela geratuko litzateke:

orma+a	seme+a	gixon+a	lagun+a	orma+ak	seme+ak	gixon+ak	lagun+ak
ormaa	semea	gixona	laguna	ormaak	semeak	gixonak	lagunak
ormea	-	-	-	-	-	-	-
-	-	-	-	ormak	-	-	-
orme	seme	-	-	-	semek	-	-
-	-	-	lagune	-	-	-	lagunek
orme	seme	gixona	lagune	ormak	semek	gixonak	lagunek

3.4.2. PLURAL HURBILAREN ERABILERA

Plural hurbila, beste leku batzutan ez bezala, barietate honetan sano gutxitan erabiltzen da: hala ere, hona hemen jaso ditugun adibide batzu:

- onek aista biok deskontentu egon siren (G)
- biok etor gare (G)
- gu danok gara emekok (U)
- aspaldiko urteotan kanpon egon da (U)

3.4.3. MUGAGABE ERARA ERABILTZEN DIREN BERBA BATZU

3.4.3.1. UR:

- ori uretara yausi da (D)
- señe uretara yausi da (G)
- itxurriko uretan sartu dot (G)
- uretan sartu dot (U)

3.4.3.2. SU:

Berba honekin bereiztu egiten dira sua orokorrean eta sukaldekoa, lehena denean "suten" erabiltzen da eta bigarrena denean, ostera, "surten": adibidez:

- baso suten dau (D)

- amak imin deu lapiko surten (D)
- surtera bota dot (U)

Adjetibo batekin agertuz gero mugatu egiten da:

- yateko su txikerren imin dot (G)

3.4.3.3. EGUSKI:

- orrek eguskitten egon dire (D)

3.4.3.4. ESKER

Berau eta "eskoi" ere direla eta, mugagabe erara zein mugatu erara agertzen direla esan beharra dago:

Mugagabea:

- eskerretarantza yon dires (G)

Mugatua:

- neure eskerren egon dires (G)
- eskerrera yon dire (U)
- eskoyan dau (U)
- eskoyara artu (U)

3.4.3.5. LORA

- sagarrak loran daus (D)

3.4.3.6. BAKE

- ori eleitte egon baketan (G)
- itxiostesu baketan (G)

3.4.3.7. IXERDI

- ixerditten para da (G)
- ume ixerditten dau (U)

3.4.3.8. KE

- keatan sartu dires (G)
- ketan sartu da (U)

3.5. ERAKUSLEAK

3.5.1. ERAKUSLE ARRUNTAK

3.5.1.1. ERAKUSLE ARRUNTEN ERABILERA

Erakusleak gehienetan izenaren aurrean agertzen dira, izenari mugatzailea dautsela: adibidez:

Singularrak:

- nik ori bearra ingo neukek (U)
- ori mendi andi da (U)
- orrek a, gixonak urte asko deko (G)
- nik areri andreri txori bet emo neutzen (G)

Pluralak:

- onek ogik ekar doas (G)
- orrek umek etor dire (G)
- aik mutillek gu etzera ekarri gittus (U)
- ekar ixek orrek sagarrak (U)

Leku denborazko kasu markekin, arruntena erakusleen ordez lekuzko aditzondoak erabiltzea bada ere, erakusleak izenaren atzetik agertzen dira: adibidez:

- egun bi onetan estot ukusi (G)
- ordu orretan yaten egoten da (G)
- aste onetan yon in ber dot (U)

Azkenik esan beharra dago erakuslea sintagmaren gune bitan, atzean eta aurrean, ere ager daitekeela:

- ori terreno ori txikerra da (G)
- ori neskato ori emen dau (G)
- ori neskato ori arreben antzeko da (U)

Gorago aipatu bezala, leku denborazko kasuen deklinabidean erakusleen ordez aditzondoak agertzen dira:

- emen etzen esetu nendun (G)
- ego nas or errin (G)
- emeti bideti yon dire (U)

3.5.1.2. ERAKUSLE ARRUNTEN TAULAK

3.5.1.2.1. Singularrak

HAU	HORI	HA
au	ori	a
onek	orrek	ak/arek (U)
oneri	orreri	ari
onena	orrena	arena
oneas	orreas	areas.
onentzat/onentzako	orrentzat/orrentzako	arentzat/arentzako
oneaittik	orreaittik	areaittik
oneana	orreana	areana
onetan	orretan	atan
onetara	orretara	
onetati	orretati	
onetako	orretako	
onetarako	orretarako	

3.5.1.2.2. Pluralak

HAUEK	HORIEK	HAIEK
onek	orrek	aik
onek	orrek	aik
oneri	orreri	airi
onena	orrena	aine
onekas	orrekas	aikes
onentzat/onentzako	orrentzat/orrentzako	aintzet/aintzeko
onekaittik	orrekaittik	aikaittik
onekana	orrekana	aikana
onetaringo/on(e)tariko	or(re)taringo/orretariko	ataringo
onetan	orretan	
onetara	orretara	
onetati	orretati	
onetako	orretako	
onetarako	orretarako	

3.5.2. ERAKUSLE INDARTUAK

3.5.2.1. Erakusle indartuen erabilera:

Badirudi "-XE"ren bidez indartzen diren erakusleak erabili ahal izateko berauek galdegaigunean agertu behar dutela; adibidez:

- axe etor littike (G)
- orixe bai esetu dot (G)
- orixe da beste da ortza bi dekosena lurren a, lurre atxurtuteko kako da (G)
- koxi orixe (U)
- auxe berau etor da (U)

3.5.2.2. Erakusle indartuen taulak

3.5.2.2.1. Singularrak:

HAUXE	HORIXE	HAXE
auxe	orixe	axe
onexek	orrexek	axek
onexeri	orrexeri	arexeri
onexena	orrexena	arexena
onexeas	orrexeas	arexeas
onexentzat/-tzako	orrexentzat/-tzako	arexentzat/-tzako
onexeaittik	orrexeattik	arexeaittik
onexeana	orrexeana	arexeana

3.5.2.2.2. Pluralak:

HAUEXEK	HORIEXEK	HAIEXEK
onexek	orrexek	aixek
onexek	orrexek	aixek
onexeri	orrexeri	aixeri
onexena	orrexena	aixena
onexekas	orrexekas	aixekas
onexentzat/-tzako	orrexentzat/-tzako	aixentzat/-tzako
onexekaittik	orrexekaittik	aixekaittik
onexekana	orrexekana	aixekana

3.5.3. ERAKUSLE BERRINDARTUAK

3.5.3.1. Erakusle berrindartuen erabilera.

Erakusle berrindartuok askozaz ere erabiliagoak izaten dira arestian ikusitako indartuak baino. Berauek errepikari gisa erabiltzen ditugu erreferentea eurok dagozen esaldian dagoela edo testuan bertan dagoela. Hona hemen adibide batzu, bai singularretan, bai pluraletan.

3.5.3.1.1.1 Singularrak:

- beorrentzako libiru ekar deu orrek (G)
- orrek a. beorren seme ukus deu fumaten (G)
- a bera etor littike (U)
- etorko balittike berak emongo leskio (U)

3.5.3.1.1.2. Pluralak:

- eurok bakarrik estire etorri, neu be etor nas (G)
- eurok etor dires (U)
- eurokas berba in dot (U)

3.5.3.2. Erakusle berrindartuen taulak

3.5.3.2.1. Singularrak

BERAU	BERORI	BERA
berau	berori	bera
beonek	beorrek	berak
beoneri	beorreri	berari
beonena	beorrena	berana/bere
beoneas	beorreas	beraas
beonentzat/-tzako	beorrentzat/tzako	berantzat/-tzako[28]
beonealttik	beorrealttik	bearaaittik
beoneana	beorreana	beraana

3.5.3.2.2. Pluralak:

EUROK	EUREK
eurok	eurek
eurok	eurek
eurori	eureri
eurona	eurena
eurokas	eurekas
eurontzat/-tzako	eurentzat/-tzako
eurokaittik	eurekaittik
eurokana	eurekana

3.5.3.3. Genitiboaren erabilera.

Tauletan "berana" eta "bere" biak paratu ditugun arren, ez dirudi gaur egun inongo desberdintasunik egiten denik berorien artean; aitzitik, biak destribuzio barik erabiltzen direla dirudi. Jarraian jaso ditugun adibideak paratuko ditugu agertzen diren guneen arabera.

3.5.3.3.1. Bere

3.5.3.3.1.1. Subjetu gunean:

- bere arrebe takar afari (G)
- bere amak beti itte otzo euskera berba (G)
- bere aittek yo deu (U)
- bere amak beti itten dotzo euskera (U)

3.5.3.3.1.2. Subjetua ez denean:

- orrek ekar deu bere aitte (U)
- bakotxa bere etzen bixi da (U)
- Mikelek esan dau bere arrebe etorri dala (U)
- soli badator bere edaderako morrosko (U)
- orrek badeko bere usena (U)
- ak a, bere amari yo eutzen (G)
- bere imin deu orrek (G)

---

[28] Gitxiagotan bada ere, "beretzat" ere erabiltzen da. Ikus bedi beherago destinatibo kasuari buruzko oharra.

3.5.3.3.2. Beran

3.5.3.3.2.1. Subjetu gunean

- Yonek esan deu ori dala beran arrabe (U)
- etorri akon ara karta bat bateri, selan ume bat il dan, beran ume bat il dala (U)
- ba tomateri atara ber dako a, beran ure tartetik (G)

3.5.3.3.2.2. Subjetua ez denean

- es aittek ba, beran leku, beti alderdi beteti (G)
- bakotxak eukitteun beran a, sepulture esaten dakona (U)
- ensegida ollok batxen dittu beran txitxak (U)

3.5.3.4. Destinatiboa:

- berantzako ekar du (G)
- berantzako in du bear bat (G)
- ori ekar du berantzat (U)
- berantzako in deu bearra (U)

3.5.4. A- AURRIZKIA GEHITZEN DUTEN ERAKUSLEAK

3.5.4.1. Erabilera

Berauek gehienetan, indartuak izanda, "ZEIN" galdetzaileari erantzunik erabiltzen ditugu.

- aorrek in deu! (G)
- aori baño garbiao urteten deu ak (G)
- aori aori bai ixete san (U)
- aori etor da (U)

3.5.4.2. Taulak

3.5.4.2.1. Singularrak:

AAU	AORI
aau	aori
aonek	aorrek
aoneri	aorreri
aonena	aorrena
aoneas	aorreas
aonentzat/-tzako	aorrentzat/-tzako
aoneaittik	aorreaittik
aoneana	aorreana

3.5.4.2.2. Pluralak:

AAUEK	AORIEK
aonek	aorrek
aonek	aorrek
aoneri	aorreri
aonena	aorrena
aonekas	aorrekas
aonentzat/-tzako	aorrentzat/-tzako
aonekaittik	aorrekaittik
aonekana	aorrekana

3.6. ZENBATZAILEAK

Atal honetan zenbatzaileak aurkezteko ohizkoak diren banaketei jarraikirik zenbatzaile zehatzak, zehaztugabeak eta orokorrak bereiztu egingo ditugu.

3.6.1. ZENBATZAILE ZEHATZAK

1. bat
2. bi
3. iru
4. lau
5. bost
6. sei
7. zazpi
8. zortzi
9. bederatzi
10 amar
11. amaka
12. amabi
13. amahiru
14. amalau
15. amabost
16. amasei
17. amazazpi
18. amazortzi
19. emeretzi
20. ogei
21. ogetabat
22 ogetabi
23. ogetairu
24. ogetalau
25 ogetabost
26. ogetasei
27. ogetazazpi
28. ogetazortzi
29. ogetabederatzi
30. ogetamar
40. berrogei
50. berrogetamar
60. irurogei
70. irurogetamar
80. larogei
90. larogetamar
100. eun
200 berreun
1000. mille
2000. bimille
10.000 amarmille
100.000 eun mille
1.000.000 milloi bat

3.6.1.1. BAT ZENBAKIAREN ERABILERAK

BAT zenbakiak erabilera desberdinak ditu: neurriak adierazteko "BETE"rekin batera, hemen berben hurrenkeraren ordenak berezko garrantzia duela, kopuru ez zehatzak eta gorabeherako aldeak adierazteko, "BERE"rekin batera, identitatea adierazteko, eta azkenik, genitiboarekin batera.

3.6.1.1.1. Neurriak adierazteko:

Neurriak adierazteko sarri erabiltzen dugu ontzi edo leku baten sar daitekeena esanaz: ordena, magnitudez, BAT-en bidez adieraziko neurriaren edukina beronen ostean egon behar da: adibidez:

- basu bete ur edan du (G)
- emoyostesu basu bete ur (U)

- basu bete ur emoyostesu (G)
- ekar du gurdi bete bedar (U)
- orrek a, karro bat a, arto ekar deude (G)

Kasu markak ezarri behar izatekotan edukinari dagokion izanari erasten zaizkio: adibidez:

- senbet balio deu kilo bat madarik? (G)
- kilo bat a, madaries estau naiko (G)
- esku bete porrues da naiko (G)
- kilo bat sagarraas esteku naiko (U)

3.6.1.1.2. Kopuru ez zehatzak adierazteko:

Kopuru bat ematen dela zehatza ez dela edo gorabeherak egon daitezkeela adierazteko, BAT erabiltzen da; adibidez:

- amar bat etor dire (G)

Beronen ordez gehienetan "ingeru" erabiltzen da; adibidez:

- amar ingeru etor dire (G)
- afaritten amabost ingeru yongo gara (G)
- etor dires amar ingeru (U)
- afaritten yongo gares amabost ingeru (U)

3.6.1.1.3. BAPERE

- estot ekarri libiru bapere (G)
- yokon irebasi dot iru te bapes (G)
- esta etorri ume bapere (U)

3.6.1.1.4. Identitatea adierazteko:

Beste barietate batzutako "BERA"ren ordez identitatea adierazi behar denean BAT erabiltzen da; adibidez:

- gausa bat esan gure dere esta? (G)
- orrek bide batetik etor dires (G)
- orrek erri beteko tires (U)
- leku beten egon gare (U)

Desberdintasuna, edo identitatea ez dagoela adierazteko, berriz, "bi" erabiltzen da:

- etorri tte ikusi gausa bi dires (G)
- basakatu te mixerra bi dires (U)

3.6.1.1.5. -REN BAT

Genitiboaren kasu marka izenari datxekiola ere erabiltzen da; adibidez:

- umeren bat etorko da bier (G)
- orrek ekarko deude ardiren bat (G)
- aurten bere agartuko da bataren bat laster (G)
- orrek ekarko deure ardiren bat (U)
- umeren bat etorriko da bier (U)
- ondikarren errotaren batzu padaus (U)

3.6.1.2. BAT zenbakiaren deklinabidea:

Bizidunak	Bizigabeak
bat	baten
batek	batera
bateri	bateti
baten(a)	bateko
bateas	baterantza
batentzat/batentzako	baterañó
bateaittik	baterako
bateana	

3.6.1.3. ZENBATZAILEEN ADITZAREKIKO KOMUNZTADURA

Zenbatzaileen arabera aditza singular edo pluralez agertu behar den ala ez ikusteko hiru multzo egin dugu: galdekariekin, zenbatzaile zehaztuekin eta zenbatzaile zehaztugabeekin. Jarraian emango ditugun adibideak ikusita, ez dirudi arau zehatzik eman daitekeenik.

3.6.1.3.1. Galdekariekin:

3.6.1.3.1.1.Singularra:

- senbet madari emon dotzu orrek? (G)

3.6.1.3.1.2. Plurala:

- senbet porru ekar deittus? (G)
- senbet urte dekosus? (D)
- senbet piper yan dosus? (U)

3.6.1.3.2. Zenbatzaile zehatzekin

3.6.1.3.2.1. Singularra:

- eun peseta kobraten dere kiloko (G)
- eun kiloko kobraten deure (U)

3.6.1.3.2.2. Plurala

- bost ume bota dittues (G)
- orduko berreun emoten deittus (G)
- etor dire ume bi (U)

3.6.1.3.3. Zenbatzaile zehaztugabeekin:

3.6.1.3.3.1. Singularra:

- malluki asko yan dosu suk (G)
- kipula naiko ekarri deure (U)

3.6.1.3.3.2. Plurala:

- orrek gausa asko in dittus (G)
- orrek ume asko yekesak (U)

3.6.1.4. ORDINALAK

1. lelengo, leleko
2. bigarren
3. irugarren
4. laugarren
5. bosgarren
6. seigarren
7. saspigarren
8. sortzigarren
9. bederatzigarren
10. amargarren

Ordinalak denbora alorrean ere erabiltzen dira; orain aldian berba egiten denean "BARRU" erabiltzen da, iraganean, ostera, ordinalak;adibidez:

- laugarren egunen etor dire (U)
- laugarren egunen etor siren orrek (G)
- irugarren egunen yon san (U)
- andik bigarren egunen yon da (G)

"-GARREN" zenbakiei ezeze izenei ere erans dakieke; adibidez:

- ordu erdigarrenen yon dire (U)
- ordu erdigarrenen yon siren (G)
- iru edo lau urtegarrenen, etorri aten autorisasiño a, bisten etorteko ona (U)

3.6.1.5. DISTRIBUTIBOAK

bana
biñe
irune
laune
bosna
seiñe
sapiñe
sortziñe
bederatziñe
amarrena

"BANA" sano erabilia bada ere, garaikoak ez dira horrenbeste erabiltzen; hala ere, hona hemen jasotako adibide batzu:

- au erdi bana yango du (G)
- irune ekar dus (G)
- irune dekus bakotxak (G)
- irune dekus (U)
- bakotxak irune ekarri du (U)

3.6.1.6. ZENBAKIEKIN ERABILTZEN DIREN BESTE ATZIZKI BATZU:

3.6.1.6.1. -KO Atzizki banatzailea:

- orduko berreun emoten deittus (G)
- eun peseta kobraten dere kiloko (G)
- kobraten dere berreun orduko (U)
- eun kiloko kobraten deure (U)

3.6.1.6.2. -TA... -AK

-TA zenbakiari dautsola eta mugatzaile plurala izenari erantsita, zenbakia baino gehiago dela adierazi nahi dugu zehaztu barik:

- ogeta unek etor dire (G)
- ogeta urtek dekos (G)

3.6.1.6.3. -TAN

- ori askotan dator (G)
- gitxitten lotxen da lo (G)
- ori asten birritten dator (U)
- ori askotan esaten dot (U)

3.6.1.6.3. -RIK

- aste birik baten dator (G)
- Iru egunerik beiñ ekarten dosku esne (G)
- ori egun birik baten dator (U)
- lelau artek poda itten siren sei edo saspi urterik baten (U)

3.6.2. ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEAK

Ataltxo honetan zenbatzaile zehaztugabeen erabilerari buruzko adibide batzu emango ditugu..

1.6.2.1. ASKO

- onek ume asko yekesak (U)
- umek gausa asko yakarresak (U)
- emen jente asko ukusten da (G)
- orrek gausa asko in dittus (G)

Hona hemen beronen deklinabidearen taula:

Bizidunak	Bizigabeak
asko	askotan
askok	askotara
askori	askotati
askon(a)	askotako
askoas	askotarantza
askontzat/askontzako	askotarano
askoaittik	askotarako
askoana	
askorik	

3.6.2.2. GITXI

- gausa gitxi entzun deude (G)
- intxur gitxi ekar deude (G)
- ekar deittues intxur gitxi (U)
- piper gitxi kosi dus (U)

Hona hemen beronen deklinabidearen taula:

Bizidunak	Bizigabeak
gitxi	gitxitten
gitxik	gitxittera
gitxiri	gitxitteti
gitxiñ(e)	gitxitteko
gitxies	gitxitterantza
gitxintzet/gitxintzeko	gitxitterano
gitxiaittik	gitxitterako
gitxiana	

3.6.2.3. LAR

- kea lar dau (G)
- bero lar itten deu (G)
- eron deittue piper lar (U)
- okela lar yan deure (U)

3.6.2.4. NAIKO

- naiko diru dekot (G)
- emen naiko ardi dau (U)
- kipula naiko ekarri deure (U)

3.6.2.5. APUR BET

- ure apur bet edan du (G)
- gastai apur bet emon dosku bakotxari (G)
- ure apur bet emoyostesu (U)
- emen euskera apur bet itten da (U)

3.6.2.6. AINBET

- ainbet diru dekot (G)
- ori erosteko ainbet diru dekot (G)
- geyenek eukitteuren ainbest masti (U)

3.6.2.7. MAKIÑA BAT

- makiña bat denpora da ori emen estala egon (G)
- ori etor dala makiña bat denpora da (G)
- makiña bat gause in deu (U)
- makiña bat txarri il deu (U)

3.6.2.8. NAYE

- piper naye deku (G)

3.6.2.9. FRANKO

- ure franko dau or (G)
- diru franko deko (G)

3.6.2.10. BATZUK

- gu padakius gause batzuk (U)
- orrek usen batzu takies (U)
- gixon batzuk etor dires (G)
- afari yan deude gixon batzuk (G)

Hona hemen beronen deklinabidearen taula:

Bizidunak	Bizigabeak
batzuk	batzuten
batzuk	batzutera
batzuri	batzuteti
batzun(e)	batzuteko
batzukes	batzuterantza
batzuntzet	batzuteraño
batzukaittik	batzuterako
batzukana	

3.6.2.11. EDOSEIÑ

- ori edosein lekuten egon littike (U)
- orrek edosein jenero esaten deude (U)
- esaixu edosein jenero (G)
- edosein moduten egon da (G)

Gatikan "edosein" leku denborazko kasuekin erabiltzean batzutan mugagabearen morfema ez da agertzen; adibidez:

- ori edosein lekun egon leitte (G)
- edosein momentun dos basora (G)
- edosein lekure dos (G)

3.6.2.12. ORRENBESTE

- nik estekot orrenbeste urte (G)
- orrek estekos orrenbeste ardi (G)
- suk estekosu orrenbeste urte (U)

3.6.2.13. AINBESTE

- Yata puntera yonta gaus ainbeste bider (G)
- ainbeste jenero ote san se estaipa (U)
- nik estekot ainbeste diru (U)

3.6.2.14. AONENBESTE

- aonenbeste agindu tzet (G)

3.6.3. ZENBATZAILE OROKORRAK

Atal honetan "DANA" eta "GUSTI/DUSTI" zenbatzaile orokorren erabileraren adibide batzu emango ditugu:

3.6.3.1. DANAK

Zenbatzaile orokor hau kasu gehienetan izenordain gisa agertzen da; adibidez:

- estaitt akaba badeude dana (G)
- umek danak estire etorri (G)
- gu danok gara emekok (U)
- satorrak itzuk dana tires (U)

Hala ere, batzutan izenarekin batera ere ager dakiguke: adibidez:

- gausa danak ekarri dittue (U)

3.6.3.2. GUSTI/DUSTI

- gausa gustik ekar dittus (G)
- golx gustitten naranjen ure artxen deu (G)
- estire etorri ume dustik (U)

3.7. ADITZONDOAK

Aditzondoak bost multzotan sailkatuko ditugu atal honetan: denboa, leku, modu eta azkenik, maila eta zenbatekoak

3.7.1. DENBORA ADITZONDOAK

3.7.1.1. GALDETZAILEAK

nos
nosko
nosik ona
nos arten

3.7.1.2. ERAKUSLEETATIK ERAKARRITAKOAK

Ablatibo kasuan izan ezik, leku alorreko berberak denbora alorrean ere erabiltzen dira. Ablatiboan berriz "-RIK" denbora alorrean eta "-TI" leku alorrean erabiltzen direnez gero, denborazkoetan honako biok ditugu:

onik
arik

Hona hemen berauen erabileraren adibide batzu:

- onik eta gabonatara ikusko du (G)
- asiko dire onik aurrera (U)

3.7.1.3. KONPOSATU INDEFINITUAK

3.7.1.3.1. IÑOS

Berau edozein egituratan ager dakiguke, hots, baiezko, ezezko edo galderetan.

3.7.1.3.1.1. Baiezkoetan:

- entzun in dot iños baya (U)
- iños etor dire (U)
- ori ukus dot iños (G)

3.7.1.3.1.2. Galderetan:

- iños egon sara or? (U)
- estosu iños asma txakurre erostaka? (U)
- egon sara iños or? (G)

3.7.1.3.1.3. Ezezkoetan:

- nik neuk ori estot iños entzun (U)
- angiratan gure aitte esta ibilli inos (U)
- enas egon iños or (G)
- ori estator iños goixetik (G)

3.7.1.3.2. NOSONOS

Berau baiezko esaldietan baino ez dugu erabiltzen: adibidez:

- nosonos etorri dire (G)
- orren antzera esaten da nosonos (G)

3.7.1.3.3. NOSGURE

- etorri seinttikes nosgure (G)
- nosgure yongo gara (G)
- ni nosgure yo nittike (U)

3.7.1.3.4. EDONOS

- edonos etorko da (G)

3.7.2. LEKU ADITZONDOAK

3.7.2.1. GALDETZAILEAK

non
nora
nondik
nongo
norantza
noraño
norako

3.7.2.2 ERAKUSLEETATIK ERAKARRITAKOAK

3.7.2.2.1. Arruntak

HEMEN	HOR	HAN
emen	or	an
ona	orra	ara
emeti	orti	andi
emeko	orko	ango
onantza	orrantza	arantza
onaño[29]	orraño	araño
onako	orrako	arako

[29] Urdulizen "onarte", "orrarte" eta "ararte" ere bai.

3.7.2.2.2. Indartuak

3.7.2.2.2.1. Indartuen erabilera:

"-XE"ren bidez egiten diren leku aditzondo indartuok ez dira lar erabiltzen; hala ere, hona hemen adibide batzu:

- ementxe bertan ego nas (G)
- ortxe esetu dot (G)
- etor dire onatxe (U)
- ementxe dau (U)

3.7.2.2.2.2. Erakusle indartuen taulak:

HEMENTXE	HORTXE	HANTXE
ementxe	ortxe	antxe
onaxe	orraxe	araxe
emetixe	ortixe	andixe
emekoxe	orkoxe	angoxe

3.7.2.2.3. Era berrindartuak

3.7.2.2.3.1. Era berrindartuen erabilera:

Aditzondo berrindartuak errepikari gisa erabiltzen dira aitzinkaria esaldi berean edo testuan daukatela. Gradu urruna da gehien bat erabiltzen dena; adibidez:

- ona etor dire, ona bertara (G)
- emen bertan dau (G)
- ta karatule akabaun kendu esiñ, bertan lotu eikiola (U)

Gradu hurbila sano gutxitan erabiltzen da, inesiboan inoiz edo behin entzuten dira, hala ere::

- berton bere naiko dire karu ya (U)
- emen esaten dako sosori marti soso, bertokori, soso (G)

3.7.2.2.3.2. Era berrindartuen taula:

bertan
bertara
bertati
bertako
bertarantza
bertaraño
bertarako

3.7.2.2.4. A- gehitzen dutenak

3.7.2.2.4.1. Erabilera:

Berauek erakusleen antzera errepikatzeko eta esklamazioetan batez ere erabiltzen dira; hona hemen adibide batzu:

- aor datortzus lagunek (G)
- aor dau (G)

3.7.2.2.4.2. Taula

AMEN	AOR
amen	aor
aona	aorra
ameti	aorti
ameko	aorko
aonantza	aorrantza
aonaño	aorraño
aonako	aorrako

3.7.2.2.3. KONPOSATU INDEFINITUAK

3.7.2.2.3.1. IÑON

Berau ezezko esaldietan agertzen zaigu.; adibidez:

- esteude lekurik topa iñon bere (U)
- estot topa lekurik iñon (G)
- orrek estos iñora bere (U)

Hona hemen beronen deklinabide taula:

iñon
iñora
iñondi
iñongo
iñorantza
iñoraño
iñorako

3.7.2.2.3.2. BATABATEN

Berau galderetan eta baiezko esaldietan agertzen zaigu.

3.7.2.2.3.2.1. Baiezkoetan:

- batabatera dos (G)
- batabateti etor dires (G)

3.7.2.2.3.2.2. Galderetan:

- ikus dosu batabaten? (G)

3.7.2.2.3.3. NOONON

- noonora do ori (G)
- noonondi dator (G)

3.7.2.2.3.4. NORA EDO ARA

- nora edo ara bados orrek (G)
- nondi edo andi datos (G)

3.7.3. MODU ADITZONDOAK

3.7.3.1. ERAKARRIAK

Atal(x)o honetan modu aditzondo erakarriak egiteko erabiltzen diren atzizkiak ikusiko ditugu.

3.7.3.1.1. -KA

- lapiko ganeska dau (G)
- bueltaka dabill (G)
- olan tiretu itten badeu tireka eta olan lepo botaten badotze alkarreri besaka (G)
- estosu iños asma txakurre erostaka? (U)

alboka	alboskadaka	arrantzaka
astrapalaka	ayeneka	barreka
beeka	besaka	bilinbolaka
biorkadaka	bueltaka	dardakadaka
erostaka	errimeka	eskapaka
etze etzeka	eupedaka	ganeska
girrintzeka	kakadaka	karraderaka
kiñaka	marroka	miauka
murruseka	pelotaka	santzoka
sarataka	surrutadaka	taupadaka
txerpaka	unkedaka	urrumedaka
aginke	apurke	arrike
arrosike	ausike	

3.7.3.1.2. -DO/-TO

- emen nei or txarto ikusten da (G)
- ondo in ber da espaberen baperes (G)
- ni ondo nayok (U)
- suek txarto sabiltze (U)

ondo	ederto	txarto
obeto	polítto	

3.7.3.1.3. -RO

- lusero badeko kendu barik edo (G)
- lusero o nas ni (U)

astiro	barriro	geldiro
lusero		

3.7.3.1.4. -RIK

- itxi bentane sabalik apur beten (G)
- aunke diru asko oki estau posik (G)
- gu sutunik gayosak (U)
- gu posik gabiltzesak (U)

alperrik
bakarrik
besutzik
bixirik
gaixorik
ixilik
majorik
posik
utzik
aratenik
baraurik
beterik
burutzik
gordiñik
koxorik
oñutzik
sabalik
aurretisik
bernutzik
billusik
bustirik
illik
majarik
osorik
sutunik

3.7.3.2. GALDETZAILEAK:

selan
selao/selau

3.7.3.3. ERAKUSLEETATIK ERAKARRIAK

3.7.3.3.1. Arruntak

olan olau/olao
alan alau/alao

3.7.3.3.2. Indartuak:

olantxe
alantxe

3.7.3.4. KONPOSATU INDEFINITUAK

3.7.3.4.1. ESELAN

Berau ezezko esaldietan baino ez dugu erabiltzen: adibidez:

- ori estosu ingo eselan bere (U)
- ori estosu ingo ondo eselan bere (G)

3.7.3.4.2. SEOSELAN/SEUSELAN

- seoselan ingo su (G)
- seuselan ingo du ondo (U)

3.7.3.4.3. SELANGURE

- selangure i lei (G)
- selangure ibilli nas (U)

3.7.3.4.4. EDOSELAN

- orrek edoselan berba itten deude (U)
- edoselan bere ondo ingo du (G)
- orrek edoselan itten dee berba (G)

3.7.3.4.5. SEOSETARA

- seosetara ingo du ondo (G)

3.7.4. MAILA ADITZONDOAK ETA ZENBATEKOAK

3.7.4.1. GALDETZAILEAK:

U	G
senbet	senbet/semet

3.7.4.2. INDEFINITUAK

3.7.4.2.1. ASKO

- nik asko yaki neun (U)
- sagar kiloak asko balio deu (G)

3.7.4.2.2. GITXI

- ori gitxi esaten da emen (G)
- guk gitxi dakiu (U)

3.7.4.2.3. APUR BET

- aittittek lagundu eutzen apur bet aurki (G)
- orrek badakie apur bet (U)

3.7.4.2.4. NAIKO

- naiko ekar deude (G)
- orrek naiko deko (U)

3.7.4.2.5. LAR

- lar ekar deude (G)
- ekar dere lar (U)

3.7.4.2.6. DUSTI/GUSTI

- ingerun egon siren gustik apurtu i eusen (G)
- ikus doas dustik (U)

3.7.4.2.7. AINBET/AINBEST

- ainbet yon dires (G)

3.7.4.2.8. SENBEGURE

- senbegure piper ekar sengis (G)

3.7.4.2.9. AREN

- aren itten da (U)
- len baso eskiñe gustitten beterik ote san ta oiñ estau aren be (U)
- emen aren itten da euskeras (G)
- estu iñ aren (G)

3.8. DEKLINABIDEA

Deklinabidearen taulak aurkezteko Gatikako paradigmak oinarritzat hartu ditugu. Bestalde, bereiztu egingo ditugu bizidunen eta bizigabeen deklinabidea; sail bakoitzeko bokalak eta kontsonanteak kontutan hartuko ditugu, berben amaierei dagokienez.

3.8.1. BIZIDUNEN DEKLINABIDEA

ALABA

Mugagabea	Singularra	Plurala
alaba	alabe	alabak
alabak	alabek	alabak
alabari	alaberi	alabari
alabana	alabena	alabana
alabas	alabeas	alabakas
alabantzako	alabentzako	alabantzako
alabaaittik	alabeaittik	alabakaittik
alabaana	alabeana	alabakana
alabas		
alabarzat		
alabarik		

SEME

Mugagabea	Singularra	Plurala
seme	seme	semek
semek	semek	semek
semeri	semeri	semeri
semena	semena	semena
semeas	semeas	semekas
sementzako	sementzako	sementzako
semeaittik	semeaittik	semekaittik
semeana	semeana	semekana
semes		
semetzat		
semerik		

IDI

Mugagabea	Singularra	Plurala
idi	idi	idik
idik	idik	idik
idiri	idiri	idiri
idiñe	idiñe	idiñe
idies	idies	idikes
idintzeko	idintzeko	idintzeko
idiaittik	idiaittik	idikaittik
idiana	idiana	idikana
idis		
iditzet		
idirik		

ASTO

Mugagabea	Singularra	Plurala
asto	asto	astok
astok	astok	astok
astori	astori	astori
astona	astona	astona
astoas	astoas	astokas
astontzako	astontzako	astontzako
astoaittik	astoaittik	astokaittik
astoana	astoana	astokana
astos		
astotzat		
astorik		

KATU

Mugagabea	Singularra	Plurala
katu	katu	katuk
katuk	katuk	katuk
katuri	katuri	katuri
katune	katune	katune
katues	katues	katukes
katuntzeko	katuntzeko	katuntzeko
katuaittik	katuaittik	katukaittik
katuana	katuana	katukana
katus		
katutzet		
katurik		

GIXON

Mugagabea	Singularra	Plurala
gixon	gixona	gixonak
gixonak	gixonak	gixonak
gixonari	gixonari	gixonari
gixonana	gixonana	gixonana
gixonaas	gixonaas	gixonakas
gixonantzako	gixonantzako	gixonantzako
gixonaittik	gixonaittik	gixonakaittik
gixonaana	gixonaana	gixonakana
gixonas		
gixontzat		
gixonik		

LAGUN

Mugagabea	Singularra	Plurala
lagun	lagune	lagunek
lagunek	lagunek	lagunek
laguneri	laguneri	laguneri
lagunena	lagunena	lagunena
laguneas	laguneas	lagunekas
lagunentzako	lagunentzako	lagunentzako
laguneaittik	laguneaittik	lagunekaittik
laguneana	laguneana	lagunekana
lagunes		
laguntzet		
lagunik		

3.8.2. BIZIGABEEN DEKLINABIDEA

GORTA

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortatan	gortan	gortatan
gortatara	gortara	gortatara
gortatati	gortati	gortatati
gortatako	gortako	gortatako
gortatarantza	gortarantza	gortatarantza
gortataraño	gortaraño	gortataraño
gortatarako	gortarako	gortatarako

ETZE

Mugagabea	Singularra	Plurala
etzetan	etzen	etzetan
etzetara	etzera	etzetara
etzetati	etzeti	etzetati
etzetako	etzeko	etzetako
etzetarantza	etzerantza	etzetarantza
etzetaraño	etzeraño	etzetaraño
etzetarako	etzerako	etzetarako

ERRI

Mugagabea	Singularra	Plurala
erritten	erriñ	erritten
errittera	errire	errittera
erritteti	erritti	erritteti
erritteko	erriko	erritteko
erritterantza	errirantza	erritterantza
erritteraño	erriraño	erritteraño
erritterako	errireko	erritterako

BASO

Mugagabea	Singularra	Plurala
basotan	bason	basotan
basotara	basora	basotara
basotati	basoti	basotati
basotako	basoko	basotako
basotarantza	basorantza	basotarantza
basotaraño	basoraño	basotaraño
basotarako	basorako	basotarako

TALLETU

Mugagabea	Singularra	Plurala
talletuten	talletun	talletuten
talletutera	talleture	talletutera
talletuteti	talletuti	talletuteti
talletuteko	talletuko	talletuteko
talletuterantza	talleturantza	talletuterantza
talletuteraño	talleturaño	talletuteraño
talletuterako	talletureko	talletuterako

TXIKER

Mugagabea	Singularra	Plurala
txikerretan	txikerren	txikerretan
txikerretara	txikerrera	txikerretara
txikerretati	txikerreti	txikerretati
txikerretako	txikerreko	txikerretako
txikerretarantza	txikerrerantza	txikerretarantza
txikerretaraño	txikerreraño	txikerretaraño
txikerretarako	txikerrerako	txikerretarako

KOMUN

Mugagabea	Singularra	Plurala
komunetan	komunen	komunetan
komunetara	komunera	komunetara
komunetati	komuneti	komunetati
komunetako	komuneko	komunetako
komunetarantza	komunerantza	komunetarantza
komunetaraño	komuneraño	komunetaraño
komunetarako	komunerako	komunetarako

3.8.3. OHARRAK KASUZ KASU

3.8.3.1. ABSOLUTUA (O)

3.8.3.1.1. Taula

Kasu honi dagokionez, beronen bidez egiten diren posposizioak baino ez ditugu ikusiko. izan ere, beronen kasu marka "O" izanik, mugatzaileari dagozkion aldaketak beroni dagozkio[30]

[30] Ikus mugatzailea 436. or.

Mugagabea	Singularra	Plurala
alaba	alabe	alabak
seme	seme	semek
idi	idi	idik
asto	asto	astok
katu	katu	katuk
gixona	gixona	gixonak
lagune	lagune	lagunek

3.8.3.1.2. Posposizioak

3.8.3.1.2.1. BARRU

- iru egun barru etorko dires (G)
- iru egun barru etorko dire (D)
- iru egun barru ikusko du (G)
- aste bete barru yongo dires (D)

3.8.3.1.2.2. BARIK

- diru barik yon dires (G)
- esi leitte yon kotxe barik (G)
- aittama barik lotu nitzen (U)
- etor da ogi barik (U)

3.8.3.1.2.3. ARTEN

- bier arten ongo da emen (G)
- ordu bietarten egon gare (U)

3.8.3.1.2.4. BAÑO

- orrek gerrako kontu paño estittu kontaten (G)
- estekoas bi baño (D)

3.8.3.1.2.5. BILLE

- umek etzera yon dire diru bille (G)
- ure bille yon dire itxurrire (G)
- tabako bille gatos (G)
- diru bille yon dires (U)

3.8.3.1.2.6. LAU

- ori aitte lau da (G)
- su lau nas ni (G)
- eruge lau da.eruge lau baya laburtxu ixeten da (G)

3.8.3.1.2.7. LES

- ganadun kallo les da txarriñ estomagu (G)
- oiñ eskeko les dabill orti (G)

3.8.3.1.2.8. LASEKO

- karrake ie ie birigarro laseko txori ok (G)
- lupu txikerra da, aulaseko a, buru ta gero bustena olan (G)

3.8.3.1.2.9. MODUN

- gastai modun lotxe san ori (G)
- yan itte san kallo modun a, preparata yatesan (G)
- autze modun urteten deu orrek (G)
- mingotza da au baya eldu ondo in daittesenean, maspasa modun para daittesenean goso tire (G)
- katu modun bajako nitzen beingo baten (G)

3.8.3.1.2.10. MODUKO

- urdei moduko asala barik isten da ori (G)
- enbudo moduko baya onille esaten dako (G)
- pintxo moduko tekes orrek (G)
- labak itteko bustin suri semento moduko da, gorri baño obe da. (G)

3.8.3.1.2.11. ANTZERA

- gangarra antzera edo apur bet danen gallardone (U)
- umekaittik sapotza granuja antzera danen edo (U)

3.8.3.2. ERGATIBOA (-K)

3.8.3.2.1. Taulak:

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabak	alabek	alabak
semek	semek	semek
idik	idik	idik
astok	astok	astok
katuk	katuk	katuk
gixonak	gixonak	gixonak
lagunek	lagunek	lagunek

3.8.3.2.2. Posposizioak

3.8.3.2.2.1. -K BESTE

- suk a, neuk, beste diru dekosu (G)
- neu peste diru ekarri dosu (U)
- su peste sagar ekarri dot (U)

3.8.3.2.2.2. -K GAÑE

- orrekañe diru badekosu (G)
- sukañe sagar ekar deude (G)

3.8.3.3. DATIBOA (-RI)

3.8.3.3.1. Taulak:

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabari	alaberi	alabari
semeri	semeri	semeri
idiri	idiri	idiri
astori	astori	astori
katuri	katuri	katuri
gixonari	gixonari	gixonari
laguneri	laguneri	laguneri

3.8.3.3.2. Erabilera:

Erabilerari dagokionez, gauza jakina da kasu marka hau erabiltzen dena zeharkako osagarriak egiteko esaldiaren barruan: alabaina, zenbait aditzekin osagarri zuzena ere datibo kasu markaz agertzen da; hona hemen adibide batzu:

- kallen itxedon dotzut (G)
- itxeron in dotzet (U)

- orrek aittu deuste (G)
- aittu in dotzet (U)

- geittu dotzut (G)
- geittu in dotzet (U)

- txakurreri agarra dotzet (G)

- orreri lagundu dotzet etzera (G)
- lagundu in dotzet etzera (U)

3.8.3.3.3. Posposizioak

3.8.3.3.3.1. -RI GRASIK

- trena koxi gendun grasik neberi (G)
- konturetu i nas grasik amari (G)
- konturetu gintzesan grasik amari (U)
- trena artu gendun grasik neberi (U)

3.8.3.4. GENETIBO POSESIBOA (-N)

3.8.3.4.1. Taulak

Kasu honen ezaugarria "-N" dugun arren; beroni mugatzailea berriz erans dakiokeenez, paradigman mugatzaile eta guzti paratu ditut.

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabaina	alabena	alabaina
semena	semena	semena
idiñe	idiñe	idiñe
astona	astona	astona
katune	katune	katune
gixonana	gixonana	gixonana
lagunena	lagunena	lagunena

3.8.3.4.2. Posposizioak

3.8.3.4.2.1. -N ANTZA

- orrek a, nire neben antza deko (G)
- onek a, nire arreben antza deko (G)
- onek perejillen antza deko (U)
- one teko soson antza (U)

3.8.3.4.2.2. -N ANTZEKO

- au a, nire aisten a, antzeko da (G)
- orrek alkarren antzeko tire danak, orrek irurek (G)
- baspi sayen antzeko sera da (G)
- ori sure antzeko da (D)
- ori neskato ori arreben antzeko da (U)

3.8.3.4.2.3. -N ANTZERA

- orren antzera esaten da nosonos (G)
- baiñen antzera dator (G)
- yungu e, kañuberen antzera asten dana (G)

3.8.3.4.2.4. -N ANTZEN

- ori gure antzen dabill (G)
- ori nire antzen dau (U)

3.8.3.4.2.5. -N MODUN

- orrek sure aman modun kantaten deu (G)
- sure modun bearra in dot (U)
- orren modun in dot au (U)

3.8.3.4.2.6. -N MODUKO

- ori seure moduko da (G)
- ni sure moduko nas (U)
- ori aitten moduko da (U)

3.8.3.4.2.7. -N KONTRA

- arratoin kontra egote san seoser (G)
- urdein kontra daona da ori (G)
- orrek orren kontra daus (U)

3.8.3.4.2.8. -N KONTURE

- orrek aman konture bixi dires (G)
- orrek bixi dire aman konture (U)

3.8.3.4.2.9. -N GANERAKO

- sen ganerako esaten da? (G)

3.8.3.4.2.10. -N GANERA

- orren ganera eron genki beskari (G)
- in du, ba gause orren ganera in du berba (U)

3.8.3.4.2.11. -N GANEN

- orren ganen in du berba (G)

3.8.3.4.2.12. -N ORDES

- lengusun ordes etor san anaje (U)
- bulek a, erosi ber ixeten siren, limosna bat itteko, elixako limosne itteko bule emote san limosnen ordes (G).

3.8.3.4.2.13. -N BEGIRE

- autobusen begire daus (G)
- nire begire daus (U)

3.8.3.4.2.14. -N LES

- au in dot orreles (G)
- nik sure les in dot (G)

3.8.3.4.2.15. SEIÑ... -N LES

- igual seiñ aseguro bateles iste san (G)

3.8.3.4.2.16. -N LASEKO

- su orrelaseko sara (G)

3.8.3.4.2.17. -N ARTEN

- bion arten in du bear bat (G)
- yai bet in ber du lagunen arten (G)
- bion arten in du bearra (U)

3.8.3.4.2.18. -N ALDEN

- aren alden andi ixen san or on sana (G)
- gure alden ainbet sarra da (U)

3.8.3.4.2.19. -N BILLE

- ogin bille yon dires (G)
- orrek ogin bille yon dires (U)

3.8.3.4.2.20. -N BESTE

- onek a, anajen beste yan deu (G)
- neben beste yan dau (U)

3.8.3.4.2.21. -N LAU

- ni sure lau nas (G)
- in dot bear bat, sure lau (G)
- metxatxu bete lau, frantzesana bere metxa puntatxu balitze lau, eta sekule bedarrana bardiñ (G)
- andarraki biotzan ingerun egoten dan a, telatxu bete lau bateri, te eskiñati itten deu giarre (G)

3.8.3.4.2.22. -N LEKUN

- lengusun lekun anaje etor san (G)
- talo ogin lekun yaten da (G)

3.8.3.4.2.23. -N PENTZUN

- sure pentzun gaus (G)
- dirun pentzun dau (G)

3.8.3.4.2.24. -N SUSUN

- orren susun dabil señe (G)

3.8.3.5. SOZIATIBOA (-AS)

3.8.3.5.1. Taulak

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabaas	alabeas	alabakas
semeas	semeas	semeas
idies	idies	idikes
astoas	astoas	astokas
katues	katues	katukes
gixonaas	gixonaas	gixonakas
laguneas	laguneas	lagunekas

3.8.3.5.2. Erabilera

Kasu honen funtzio nagusia soziatiboarena bada ere zenbaitetan denbora alorrean ere erabiltzen da; adibidez:

- urteokas kanpon ixen da (G)
- egunokas estittu piperrak yan (G)
- eskolara oiñ asi da egunokas (G)

Aditz batzuk kasu marka hau erabiltzen dute beraien osagarrian: adibidez:

- orrek esteu siñestuten jangoikoas (G)
- sues fiate nas (G)
- ori akordaten da erries (G)
- konturetu nas orreas (G)

Azkenik, modua eta instrumentoa adierazteko ere erabiltzen da, beste euskalki eta barietate batzutan erabiltzen den instrumental kasu markaren ordez: adibidez:

- estakiu seas inte daon ogi (G)
- mallues in deude (G)
- ori intentziño txarraas in deu (G)

3.8.3.6. DESTINATIBOA

Kasu honek marka bi dauzka "-NTZAT" eta "-NTZAKO", biak erabiltzen dira, nahiz esan dezakegun gaur egun bigarrena nagusituz doala: hoan hemen aukera biak:

-NTZAT

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabantzat	alabentzat	alabantzat
sementzat	sementzat	sementzat
idintzet	idintzet	idintzet
astontzat	astontzat	astontzat
katuntzet	katuntzet	katuntzet
gixonantzat	gixonantzat	gixonantzat
lagunentzat	lagunentzat	lagunentzat

-NTZAKO

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabantzako	alabentzako	alabantzako
sementzako	sementzako	sementzako
idintzeko	idintzeko	idintzeko
astontzako	astontzako	astontzako
katuntzeko	katuntzeko	katuntzeko
gixonantzako	gixonantzako	gixonantzako
lagunentzako	lagunentzako	lagunentzako

3.8.3.7. MOTIBATIBOA (-AITTIK)

3.8.3.7.1. Taulak

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabaaittik	alabaittik	alabakaittik
semeaittik	semeaittik	semekaittik
idiaittik	idiaittik	idikaittik
astoaittik	astoaittik	astokaittik
katuaittik	katuaittik	katukaittik
gixonaittik	gixonaittik	gixonakaittik

3.8.3.7.2. Erabilera:

Kasu marka hau aditz batzurekin erabiltzen da zegokiekeen instrumental kasu markaren ordez: adibidez:

- pregunta deude niaittik (G)
- nire aistealttik ser pentzaten dosu? (G)

Zenbait espresiotan "-AITTIK" barik "ARREN" ere ager dakiguke izenari deutsola: adibidez:

- txakurre sarraarren il san (G)
- perlesiñe sarraarren etorten dake batzuri (G)

3.8.3.8. ADLATIBOA (-ANA)

Mugagabea	Singularra	Plurala
alabaana	alabeana	alabakana
semeana	semeana	semekana
idiana	idiana	idikana
astoana	astoana	astokana
katuana	katuana	katukana
gixonaana	gixonaana	gixonakana
laguneana	laguneana	lagunekana

3.8.3.9. ABLATIBOA

- señeanik asautxu planta saittes (G)
- alabeanik etor da (G)
- amaganik ikisi deu (G)

3.8.3.10. INSTRUMENTALA

Kasu honen marka "-S" dugu: esan beharra dago beronen erabilera sano urria dela eta mugagabea baino ez dela erabiltzen:

Mugagabea
alabas
semes
idis
astos
katus
gixonas
lagunes

Hona hemen beronen erabileraren adibide batzu:

- oñes etor dires (D)
- gorte eulis beteri tau (D)
- loras beteri tau (G)
- ikisi dot memoris (U)
- eskus in dot bear bat (G)
- eskus garbittu dot (G)
- egunes dana ukusten da diferente (G)
- gu parrokias Urdulis gares (U)

Kasu marka honen bidez egiten den "-SKO", ostera, sano erabilia izaten da; hona hemen adibide batzu:

- ladrillusko orma bat in deude (G)
- egurresko maye ekar deude (G)
- ori burneisko da (D)
- mimeasko otzare eron deude (G)

Kasu marka honen bidez posposizio bat behinik behin egiten da, hau da "-S GANERA"; adibidez:

- orres ganera gu onekas laurekas ona aste akabun fijo etorten gare (G)

3.8.3.11. PROLATIBOA (-TZAT)

Mugagabea
alabatzat
semetzat
iditzet
astotzat
katutzet
gixontzat
laguntzet

Hona hemen kasu honen erabileraren adibide batzu:

- ori artu deude alkaterzat (G)
- sorotzat deke ori (G)
- ori euki dere laguntzet (U)
- ori artu dere iñusentetzat (U)
- iñusentetzat artu deude (G)
- komade ixete san erroperutzet usate sana len aldeatan.(G)

3.8.3.12. PARTITIBOA (-RIK)

3.8.3.12.1. Taulak

Mugagabea
alabarik
semerik
idirik
astorik
katurik
gixonik
lagunik

3.8.3.12.2. Erabilera:

Partitiboaren kasu marka galderetan eta ezezko esaldietan ager dakiguke ondoko adibideetan ikusten den legez.

3.8.3.12.2.1. Galderetan

- badekosu ogirik? (G)
- badekosu surik? (G)
- otzik estekosu? (U)
- estekosu alabarik? (U)

3.8.3.12.2.2. Ezezkoetan

- eskerreko beson estekot inderrik (G)
- orrek esteko famelirik (G)
- serukarik esteko baya (U)
- estot ekarri libururik (U)

3.8.3.13. INESIBOA (-N)

3.8.3.13.1. Taulak

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortatan	gortan	gortatan
etzetan	etzen	etzetan
erritten	erriñ	erritten
basotan	bason	basotan
talletuten	talletun	talletuten
txikerretan	txikerren	txikerretan
komunetan	komunen	komunetan

3.8.3.13.2. Erabilera

Leku denborazko kasu markak lekua, denbora eta neurriak adierazteko erabiltzen dira. Hemen sortzen den arazo nagusia zera da, hots, mugagabearen marka agertzen den testuinguruetan noiz erabiltzen den "-TA" morfema eta noiz ez. Mugagabea galdetzaileekin eta zenbatzaileekin gehien bat erabiltzen denez gero gure adibideak aldagai bi horien arabera emango ditugu; lekua, denbora edo neurria adierazten den, alde batetik, eta beste aldetik, galdetzailea edo zenbatzailea agertzen den kontutan hartuta.

3.8.3.13.2.1. Lekua

3.8.3.13.2.1.1. Galdetzaileekin

- se etzetan dau? (G)
- senbet erritten egon sare? (G)

Gehienetan "-TA" morfema agertzen bada ere kontraetsenpluak ere jaso ditugu; adibidez:

- se etzen dao? (G)
- sein mendiñ on sara? (G)

3.8.3.13.2.1.2. Zenbatzaileekin

- iru etzetan ego nas (G)
- ego nas iru etzetan (U)
- su leku askotan eon sara (G)
- au leku gitxitten ikusiko su (G)
- ori ikusko seunke leku gitxitten (U)

3.8.3.13.2.2. Denbora

3.8.3.13.2.2.1. Galdetzaileekin

"SE(R)" galdetzailearekin erabiltzean beti agertzen da "-TA" morfema; "SENBET"ekin, ostera, denbora tarteak jarraian dagozela adierazi gura denean ez da "-TA"rik erabiltze; adibidez:

- se egunetan etor sara? (G)
- se urtetan yayo san señe? (G)

- semet egunen eon sara kanpoti? (G)

3.8.3.13.2.2.2. Zenbatzaileekin

Zenbatzaile zehaztugabeekin beti agertzen da "-TA"; adibidez:

- ori urte askotan egon da Ameriken (G)
- egun gitxitten ego nas Bilbon (G)
- ori urte askotan kanpon egon da (U)

Zenbatzaile zehatzekin, ostera, denbora tarteak jarraian gertatzen direla adierazi gura denean, ez da "-TA"rik erabiltzen; adibidez:

- iru egunen eo nas Durangon (G)
- lau asten eo nas makal (G)
- amar egunen ego nas klinikan gaixorik (G)
- egun biñ eo nas etor barik (G)
- gero egoten siren ba, iru egunen mese illuntzetan (U)
- ogei urten etor barik egon dires (U)
- iru egunen Bilbon ego nas (U)

3.8.3.13.2.3. Neurriak

Zenbatzaile zehaztugabeekin neurriak adierazten direnean beti agertzen da "-TA"; adibidez:

- esta eser ikusten kilometro askotan (G)
- edosein presiotan saltxen deude (G)

Zenbatzaile zehatzekin, ostera, eguno ere ez da "-TA" erabiltzen; adibidez:

- eunen yon gara (G)
- ollosko eunen dao (G)
- elei eser in berreun metron (G)
- amar metron bota deu (G)
- emen berreun metron elei eser bere iñ (U)
- emeti berreun a, metron taberne dau (U)

3.8.3.14. ADLATIBOA

3.8.3.14.1. Taulak

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortatara	gortara	gortatara
etzetara	etzera	etzetara
errittera	errire	errittera
basotara	basora	basotara
talletutera	talleture	talletutera
txikerretara	txikerrera	txikerretara
komunetara	komunera	komunetara

3.8.3.14.2. Erabilera

Inesiboarekin egin dugun bezala, adlatibo kasuaren adibideak leku, denbora eta neurria direlako adierazpideen arabera emango ditugu mugagabearen arazoa ikusteko.

3.8.3.14.2.1. Lekua

3.8.3.14.2.1.1. Galdetzaileekin

- senbet mendittera yon sara? (G)
- se etzetara ixen sara? (G)

3.8.3.14.2.1.2. Zenbatzaileekin

- iru etzetara ixe nas (G)
- leku askotara yon dires (G)
- mendi gitxittera yon dires (G)
- yo nas iru etzetara (U)

3.8.3.14.2.2. Denbora

3.8.3.14.2.2.1. Zenbatzaileekin

- emeti lau astera yon ber dot (G)
- emeti lau astera yon in ber dot (U)

3.8.3.14.2.3. Neurriak

- emeti berreun metrora dao taberna bat (G)
- amar metrora yaurta deu. (G)

3.8.3.14.3. Posposizioa

Kasu marka hau eta "ARTE"ren bidez ondoko esaldien modukoak egiten dira:

- bostetararten in deude berba (G)
- egon gare, iruretararten (U)

3.8.3.15. ABLATIBOA

3.8.3.15.1. Taulak

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortatati	gortati	gortatati
etzetati	etzeti	etzetati
erritteti	erritti	erritteti
basotati	basoti	basotati
talletuteti	talletuti	talletuteti
txikerretati	txikerreti	txikerretati
komunetati	komuneti	komunetati

3.8.3.15.2. Erabilera

Kasu honen markeei dagokienez esan beharra dago marka bi agertzen direla "-TI" eta "-RIK"; gaur egun atzizki biok distribuzio konplementarioan dagoz: lehena leku alorrean eta

neurrietan erabiltzen da, bigarrena, berriz, ia soilik denbora alorrean. "-RIK" inoiz edo behin leku alorrean ere agertzen da; adibidez:

- goirik yausi da (G)
- busti nitzen goirik bera (U)
- goirik bera loittu da (U)

Beronen erabilera nagusia hala ere, geroago denbora alorrean ikusiko duguna da. Badira ondoko hauen moduko esakerak ere, zein, bestalde, arruntak baitira Bizkaia osoan:

- kaleik kale ibil gara (G)
- erririk erri dau diferentzi itzela berbetan (G)
- olan yoten siren gortarik gorta ikusten danak (U)

3.8.3.15.2.1. Denbora alorrean

- atzorik ona estot ikusi (D)
- ordurik ona esta etorri (G)
- ordurik ona estot ikusi (U)
- amakatarik amabittera nies eon da (G)
- amakatarik amabittera bearren egon gare (U)
- ordun bere afesiño dekonak gastetarik itteun ostukarren (G)
- ori dau olan gastetarik (U)
- lauretarik bostatara bearren egon da (G)
- ordu batetarik ordubietara bearren egon gare (U)
- atxiñerik dau olan (G)
- txiker txikerretarik olantxe dau (G)
- ordu batetarik aurrera egurdi da ya (U)
- Sopelan ya aspaldiko, ba senbet urterik onantza negun nei udan bardin dau (U)

3.8.3.15.2.2. Lekua

Hona hemen leku alorrean mugagabearen erabileraz adibide batzu:

- se etzetati etor sara? (G)
- ibil dire erri askotati (U)
- erri askotati ibil dire (G)

3.8.3.15.2.3. Neurriak

-. amar metroti yausi da (G)
- eun metroti etor da (G)

3.8.3.15.3. -TARINGO

- aretxen ola onataringo da (G)
- eurotaringo ixengo da (G)

3.8.3.16. LEKU DENBORAZKO GENITIBOA

3.8.3.16.1. Taulak

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortatako	gortako	gortatako
etzetako	etzeko	etzetako
erritteko	erriko	erritteko
basotako	basoko	basotako
talletuteko	talletuko	talletuteko
txikerretako	txikerreko	txikerretako
komunetako	komuneko	komunetako

3.8.3.16.2. Erabilerak

Mugagabearen -TA morfemaren agerpenaz esan beharra dago berori agertu egiten dela "-KO" ezarri aurreko sintagmaren arabera; hau da, oinarrian Izen Sintagma egonda "-TA"rik ez da agertzen: Aditz Laguna egonez gero beronen "-TA" da azalean agertzen zaiguna.

3.8.3.16.2.1. Aditz laguna + KO

- se etzetako da sure andrea? (G)
- baso askotako lurre esta ona (G)
- se egunetako da señe? (G)
- erri gitxitteko jente egon da (G)
- leku askotakok etorte ekios (U)

3.8.3.16.2.2. Izen sintagma + KO

- semet ateko da etzea? (G)
- eun kiloko arri bet ekar deude (G)
- iru urteko ardau saldu deude (G)
- ori esne askoko da (G)
- etze askoko erri da ori (G)
- urte gitxiko ardau da au (G)
- lau urteko ume bat etor da (G)
- etor da lau urteko umetxu bet (U)

3.8.3.16.2.3. Aditzondoa + -KO

-KO aditzondoei ere atxeki dakieke; adibidez:

- au gaurko ixen da (G)
- bierko emen ongo da (G)

3.8.3.17.ADLATIBO NORABIDE ZUZENEKOA

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortatarantza	gortarantza	gortatarantza
etzetarantza	etzerantza	etzetarantza
erritterantza	errirantza	erritterantza
basotarantza	basorantza	basotarantza
talletuterantza	talleturantza	talletuterantza
txikerretarantza	txikerrerantza	txikerretarantza
komunetarantza	komunerantza	komunetarantza

3.8.3.18. ADLATIBO BUKATUZKOA

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortataraño	gortaraño	gortataraño
etzetaraño	etzeraño	etzetaraño
erritterañlo'	erriraño	erritteraño
basotaraño	basoraño	basotaraño
talletuteraño	talleturaño	talletuteraño
txikerretaraño	txikerreraño	txikerretaraño
komunetaraño	komuneraño	komunetaraño

3.8.3.19. ADLATIBO DESTINATIBOA

3.8.3.19.1. Taulak

Mugagabea	Singularra	Plurala
gortatarako	gortarako	gortatarako
etzetarako	etzerako	etzetarako
erritterako	erriteko	erritterako
basotarako	basorako	basotarako
talletuterako	talletureko	talletuterako
txikerretarako	txikerrerako	txikerretarako
komunetarako	komunerako	komunetarako

3.8.3.19.2. Erabilerak

Kasu hau adlatibo kasuaren gainean egiten denez beroni dagozkion antzeko erabilerak dauzka; denbora alorrean mugagabea "-TA" morfema barik agertzen zaigu denbora tartea jarraian denean.

3.8.3.19.2.1. Denbora

3.8.3.19.2.1.1. Galdetzaileekin:

- se egunetarako da bearra? (G)
- senbet egunerako dau bearra? (G)

3.8.3.19.2.1.2. Zenbatzaileekin

Zenbatzaile zehaztugabeekin "-TA" ager daiteke; adibidez:

- orreas egun gitxitterako dau (G)
- orrek egun askotarako ballo deu (G)

3.9. ADITZA

3.9.1. ADITZ EZ JOKATUAK

3.9.1.1. ADITZ PARTIZIPIOA

Aditz partizipioa, lexikoan agertzen den moduan, eta aspekto perfektoa bat dira aztertzen ari garen euskalkian. Amaieren arabera honako hauek ditugu:

-A

bota	atara

Aditz partizipio mailegatuetan erdal "-AR" amaieradunak amaiera honen barruan kokatzen dira; adibidez:

akaba	gasta	pasa
pentza	usa	baja
akorda	allega	enterra
gusta	kanbia	aguanta

-E

erre	gorde	erne

-O

yayo	yo	¡o

-I

ikusi	ekarri	yosi
yausi	koxi	erosi
iniñi	euki	ebai
yarri	ibili	ixi

-U

Hauen artean -TU, -DU eta -IDU amaierak dauzkatenak bereiztu egingo ditugu:

-TU

siñestu	bistu	beratu
sartu	esetu	damutu

-DU

saldu	galdu	kendu

-IDU

Maileguetan erdal -IR eta -ER amaieradunak beronen bidez pasatzen dira: adibidez:

sentidu	prijidu	elejidu

-N

edan	egon	yon
yan	urten	eron
entzun	ixen	esan

"-N"ren aurreko bokala /i/ izanda berori palatalizatu egiten da:

yakiñ	irikiñ	iñ
eraiñ		

-LL

ill

Aditz laguntzailea gehitzean "i"z amaituko hiru silabako aditz batzurekin aukeran dago "i" hori galtzea: galera hau ez da edozein kontsonanterekin gertatzen, kasu baterako, afrikatu batekin yoanez gero ez da galtzen, adibidez: opetzi dot, itxi dot, e.a. Aipatuko galera hori [ʧi], [ʃi], [ɲi], eta [ʝi] kontestuetan baino ez da gertatzen, [ʃi] horren kasuan salbuespenak ugari ere gertatzen dira: hona hemen adibide batzu:

ekar dot
ikus dot
imin dot
ibil da

Aditz konposatuek azpi atal bat osatzen dute aditz partizipioen barruan, garrantzitsuenak honako hauek ditugu:

1. EGIN (IÑ)

agirika iñ	aittearen iñ	abaro iñ
aginke iñ	alegiñe iñ	amesetan iñ
apostu iñ	arrapadak iñ	arrausi iñ
arriko iñ	arrosi iñ	aska iñ
askure iñ	astrakan iñ	astule iñ
aupa iñ	auri iñ	ausi iñ
ausnar iñ	axe iñ	barau iñ
barre iñ	bear iñ	begisko iñ
begiskone(s) iñ	berba iñ	bete bete iñ
bidegintzen iñ	botike iñ	buelte iñ
burle iñ	buruti iñ	damistiku iñ
edurre iñ	egas iñ	egune iñ
egur iñ	eguski iñ	enbarasu iñ
errementaritzen iñ	erritxan iñ	erritte iñ

esaneko iñ
euri iñ
gatz iñ
girrintze iñ
ittaurren iñ
kalte iñ
kilikilik iñ
kristelak iñ
lapiko iñ
lo iñ
mokiñe iñ
murruke iñ
orasiño iñ
piltxikede iñ
punba iñ
sintz iñ
sue iñ
surrut iñ
talo iñ
tretak iñ
txatxamarka iñ
txixe iñ
uger iñ
usiñ iñ
yantzan iñ
eskapade iñ
garbikusi iñ
gaue iñ
gogor iñ
itteko iñ
kargu iñ
kiñu iñ
laban iñ
lapurretan iñ
miñ iñ
motz iñ
murruse iñ
otz iñ
plantak iñ
pupu iñ
sirkiñ iñ
surrune iñ
tale iñ
tele iñ
tutede iñ
txerpakade iñ
txonbo iñ
uko iñ
utziñ
yokon iñ
estule iñ
gatx iñ
gedar iñ
inder iñ
kaka iñ
kasan iñ
kok iñ
lagun iñ
leye iñ
miska iñ
mun iñ
negar iñ
peskan iñ
posture iñ
santzo iñ
sokorru iñ
surrunke iñ
tatan iñ
tranpa iñ
tuten iñ
txitximarka iñ
txurku-txurku iñ
ume iñ
yamon iñ

2. EMON

akabu emon
axe emon
epelak emon
giltze emon
mosu emon
pene emon
alboskade emon
buelte emon
errentan emon
inportantzi emon
orde emon
sue emon
antoju emon
bultzekada emon
galge emon
lore emon
pa emon
tas-tas emon

3. ARTU

ardure artu
aurre artu
burlesar artu
esne artu
loak artu
txitxekar artu
armase artu
beyek artu
buruten artu
kontuten artu
megide artu
ugerrak artu
artek artu
burleka artu
errentan artu
leba artu
sue artu
urek artu

4. EGON

adi egon
ayeneka egon
berrixenen egon
errentan egon
lantzar egon
alogeren egon
baraurik egon
bete beten egon
estadun egon
leba egon
aterri egon
begire egon
ernegaten egon
ilbaiñen egon
ostatun egon

5. YAN

afari yan
etze yan
armosu yan
lurre yan
beskari yan

6. IXEN

agiriko ixen	al ixen	ardure ixen
balio ixen	ber ixen	bixi ixen
egarri ixen	esiñ ixen	falta ixen
gogon ixen	gose ixen	gurao ixen
gure ixen	guren ixen	igual ixen
inporta ixen	sor ixen	

7. EUKI

akordun euki	artuemonak euki	begiskoneko euki
kontu euki	leba euki	memori euki
memoriñ euki	ume euki	

8. BOTA

andi bota	eperditti bota	errapera bota
kiñu bota	loak bota	pa bota
talle bota	txistu bota	uskerra bota

9. YO

axek yo	erropa yo	gari yo
gora yo	mokill yo	satorrak yo
soñu yo	truboi yo	txistu yo

10. IBILI

berde ibilli	drogan ibilli	teman ibilli

3.9.1.1.1. ADITZ PARTIZIPIOAREN ERABILERAK

Atal honetan aditz partizipio hutsaren erabilerak ikusiko ditugu. Aditz partizipio soilaren erabilera, beronen deklinabidea, aditz partizipioa gehi "eta" eta posposizioren bat eta aditz partizipio posposizioekin.

3.9.1.1.1.1. ADITZ PARTIZIPIO SOILAK

Aditz partizipioak aditz izenaren marka erabili barik, hots, absolutu marka berari dautsola, izentzat erabil daitezke; adibidez

- damututenas belu etorri (G)

Ezezko esaldietan, aditz izenetan gertatzen den legez[31], "ez" adberbioa aditz partizipioa eta mugatzailearen artean agertzen da; adibidez:

- damutute nau geyau ikisi esa (G)
- damutuko sara dana yan esa (U)

---

[31] Ikus geroago aditz izenen ezezkoak.

Sarri "BAÑO"rekin batera erabiltzen da subjetugunean; adibidez:

- in baño oba da, erosi (U)
- txarto in baño oba da bapere iñ es (U)

Partizipioak predikatu osagarriaren funtzioa betetzen du zenbaitetan:

- emen yayo da ori (G)

Zehar galdera ez jokatuetan ere aditz partizipioa erabiltzen da:

- orrek diru asko deko ta estaki setan gasta (G)
- estekosu setan etorri (G)
- badakitt ser esan (U.)
- badakitt, nondi sartu (U)

Zenbait kasutan esaldi berberak aditz partizipioari "-RIK" dautsela egin daitezke; adibidez:

- esteku setan emotik konturik iñori se in dun (G.)
- estekosu setan yonik (D)
- estekosu setan esanik (G)

3.9.1.1.1.2. ADITZ PARTIZIPIO DEKLINATUAK

3.9.1.1.1.2.1.-REN PORASUS

- esanen porasus, in deude seoser (G)
- ikisin porasus, in deu seoser (G)
- entzunen porasus ikisi deu (G)
- entzunen porasus ikisi dot (U)
- ikusin porasus ikisi dau (U)

3.9.1.1.1.2.2. -KO

Atzizki hau aditz partizipioari dautsela erlatibozko esaldi ez jokatuak egiten dira; adibidez:

- menda bakotires orrek eta beste batzuk mendakok (U.)
- apurtukok botaixus (U.)
- ori emen yayoko da (U)
- bilboti ekarriko gordeta dau (U.)
- gastaye gustaten dat auntzen esneas iñeko (G)
- emen dau a, suk iñeko (G)

3.9.1.1.1.2.3. -KO + N

- tripek atarakon gantzagik ataraten dire. (G)
- orrek atarakoan, barruti garbi garbi in trapu beteas iri txarri ondo ondo, eta eskei, eta goitti bera erre txarri kokoteti bustenera, burutxe an imiñi, oiñ ori esta itten, siketu ditten (G)

3.9.1.1.1.2.4. -AS BATERA

- neuk esanas batera yausi in da (G)

3.9.1.1.1.2.5. -AITTIK

Beronek gehienetan, aditz partizipioarekin, esangura kontzesiboa dauka; hala ere, batzutan kausala ere izan daiteke.

3.9.1.1.1.2.5.1. Kontzesiboa:

- asko etorriaittik danak yan deude (U.)
- denpora txarra iñaittik basora yongo gare (U.)
- kanpoko ixenaittik euskere ikisi deu (U.)

3.9.1.1.1.2.5.2. Kausala:

- karraderan ibilliaittik yausi da (G)
- arîñ ibilliaittik yausi in da (U)

3.9.1.1.1.2.6. -ARREN

Aurrekoarekin gertatzen den bezala beronek ere esangura biak euki ditzake, hau da kausala eta kontzesiboa:

3.9.1.1.1.2.6.1. Kontzesiboa:

- kanpoko ixenarren a, eukera ikis deu orrek (G)
- denpora txarra onarren yongo gara basora (G)
- ori esetu dot etzen bekosue kendute egonarren (U.)
- asko ikisiarren estau bearrik topaten (U)

Ezezkoetan adberbioa "arren"en aurrean agertzen da; adibidez:

- esta lebarik etor esarren (G)
- ondo egon esarren balio lei (G)
- etorri esarren esteko lebarik (U)

3.9.1.1.1.2.6.2. Kausala:

- ariñegi ibilliarren yausi da (G)
- kafe artuarren estot lorik iñ (U)

3.9.1.1.1.2.7. -Z

Instrumental kasu markaren bidez eta "gero"rekin batera baldintza ez jokatuak egiten dira honako aldakiok agertzen direla:

3.9.1.1.1.2.7.1. -ESKERO

- errebolbidu itten deu estomangu bere asko edaneskero (G)
- denpora ona iñeskero yon leitte basora (U)

3.9.1.1.1.2.7.2. -ESKERON

- eta gero orrek artueskeron ba bijili pere eskastu itten siren, bulak artueskeron (G)
- galdu ingo littikes basora yoneskeron (G)
- egi esaneskeron naiko da (G)
- ori etorrieskeron ingo geunke berba (G)
- orrek kendueskeron ba, giarra gitxi dau. (G)
- gero orrek artueskeron ba bijili pere eskastu itten siren, bulak artueskeron. (G)
- arrotzasala esaneskeron badakiu kaskare dana (U)

3.9.1.1.1.2.7.3. -ESKERONEN

- setienbre pasaieskeronean laster agertuten dire (G)
- urek eskapaieskeronean emeko ure errotan falta (G)
- egun gustitten egiñeskeronean ba arteko berotasune bere estako otzitte akaba itten (G)
- aonetariko bana emongotzut suok tabakosale sareneskeronen (G)
- bakotxa beran lekun bai, espabere, asko txarto ibiltten dire kanbiaeskero[illegible] (U)

3.9.1.1.1.2.7.4. -ESKERONEAN

- setienbre pasaieskeronean laster agertuten dire (G)
- urek eskapaieskeronean emeko ure errotan falta (G)
- egun gustitten egiñeskeronean ba arteko berotasune bere estako otzittu akaba itten (G)

"BEÑ"ekin batera erabiltzen dela ñabardura kausala ematen zaio; adibidez:

- beiñ asieskeron akaba in ber da (G)
- beiñ iñeskeron saldu in berko da (G)

3.9.1.1.1.3. ADITZ PARTIZIPIO + ETA

"ETA" aditz partizipioari dautsola, gehienetan enklitikoa, funtzio desberdinak betetzen dituela agertzen zaigu.

3.9.1.1.1.3.1. DENBORAZKOA.

- yon da diru artute (G)
- etzeti urtenta txakurrek agarra dotzo (U.)

Denborazko funtzio honetan, aurreko adibideetan legez inutsik ager badaiteke ere, gehienetan aditzondoren batekin agertzen da; adibidez::

3.9.1.1.1.3.1.1. ETA ARIÑ

- makaldu te, ariñ il san (G)
- gaixotu te ariñ il san (U)

3.9.1.1.1.3.1.2. ETA ATON

- len yayo ta aton bautisa ber isten siren (G)

3.9.1.1.1.3.1.3. ETA BEINGON

- gaixotu te beingon il san (G)

3.9.1.1.1.3.1.4. ETA ENSEGIDA

- erosi tte ensegida galdu dot (D)
- akaba ta ensegida apurtu da (G)
- allega ta ensegida yon san oira (G)
- len a, ba, yayo ta ensegida bautisa ber iste san (G)

3.9.1.1.1.3.1.5. ETA SEGIDUN

- il tte segidun itten da erre (G)

3.9.1.1.1.3.1.6. ETA GERO

- bason ibil tte gero yon giñen afaritten (G)
- bason ibil tte gero afaritten yon giñen (U)
- afari yan ta gero yon giñen kalera (G)
- bear in tte gero kanpora yon giñen (U)

3.9.1.1.1.3.1.7. ETA OSTEN

- yan ta osten yongo gara etzera (G)
- freskure in tte osten bere bai itxitten dotzo garau bedarrari (G)
- bear in tte osten yango du (D)
- beskari yan ta osten yongo gare etzera (U.)

3.9.1.1.1.3.2. MODALA

- isten yonta, apurtu da giltze edo (G)
- beson artute eron deude (G)
- ainbeste bider entzunte ikisi dot (U.)
- ori ekarritte eser berestu itten (U.)

3.9.1.1.1.3.3. BALDINTZA

- ur otzak edanta buruko miñe emo leixu (G)
- kotxen yonta ariñau, allega littike (U.)

3.9.1.1.1.3.4. GERUNDIALA

Hemen ere bereizketa txiki bat egin beharrean gagoz: hau da, alde batetik "egon" aditzarekin agertzen dela, eta bestetik, "eduki" aditzarekin agertzen dela.

3.9.1.1.1.3.4.1. EGON

- ori ausitte dau (G)
- ardau, garrastute dau (G)
- ate ixitte yaok (U.)
- bilboti ekarriko gordeta dau (U.)

"ta" enklitikoa agertzean /t/ ez da ozentzen eguno ere; adibidez:

- ori esanta dau (D)
- entzunte nau ori (G)

3.9.1.1.1.3.4.2. EDUKI

- ori gordeta iki dot (G)
- olau dekot entzunte (U.)
- astute dekoas (U.)

3.9.1.1.1.3.5. KONTZESIBOA

"ETA"k balio kontzesiboa izan ahal izateko "BERE"rekin batera agertu behar da; adibidez:

- ori eleitte egon baketan a, gaixorik egonta bere (G)
- automobillen yonta bere belu allega gara (G)
- amarretan akabata bere ya belu da (U.)
- estotzet emongo beluniko parata bere (U.)
- denpora txarra intte bere esteu etzen lotu gure (U.)

3.9.1.1.1.4. ADITZ PARTIZIPIOA ETA POSPOSIZIOAK

3.9.1.1.1.4.1. BE(A)RREN

- eta gu mesara yon bearren, ba ara yon ber dala ta ara eron gendesen (U.)
- berakatzak ekar berren ekar deittues kinpulak (U)
- iruntzi imin dosu erara imin berren (U)
- atxurre ixen berren a, erpa bi dekosena kako da ta saskako beste ba ta (U)

3.9.1.1.1.4.2. BARIK

Beronek aditz partizipioarekin batera hiru erabilera eduki ditzake; bat aurrekoaren esangura berberarekin ordezkoa adierazteko ; beste bat adbertsatiboa, eta azkenik kutsu kontzesiboz ere ager dakiguke

3.9.1.1.1.4.2.1. Ordezkoa:

- inusentekerik esaten ibilli barik obeto ixilik egon (G)

3.9.1.1.1.4.2.2. Adbertsatiboa

- egon saittes emen, eser esan barik (G.)
- eron apurtu barik (G)
- igual eskatu barik lotxen dire, orreri esaten deutze arkaste (G)
- ogei urten etor barik egon dire (U.)
- urdulisen esta lotuko etzerik sanjuanade in barik (U.)

3.9.1.1.1.4.2.3. Kontzesiboa

- ikusi in barik esetu dot (U.)
- ukusi barik esetu dot (G)

- eskatu in barik emon dosku (U.)
- eskatu barik emon doskue (G)

3.9.1.1.1.4.3. ESEN

Beronek erabilera bi dauzka: bata, adbertsatiboa, eta bestea, baldintzazko esaldietan baldintza aurrekoa ezezkoa dela.

3.9.1.1.1.4.3.1. Adbertsatiboa

- danak etor dire, ama ixen esen (G)
- danak yon siren anaje ixen esen(G)
- orrek bat ixen esen danatire kanpokok (U.)
- serak ixen esen artatxorik eta/ eleik eta/ osten beste danak gero ta gitxiau ikusten dire (U.)

3.9.1.1.1.4.3.2. Baldintza

- kotxerik euki esen eleitte yon (G)
- ariñ etor esen estu ikusko (G)
- geldi lotxe san tiretu esen (G)
- ariñ yon esen elei ikusi (U.)

Gitxiagotan bada ere noizean behin beronen aldakia den "ESIK" ere agertzen da.

- danak yon dires anaje ixen esik (U)

3.9.1.1.1.4.4. ORDUKO

- etzera allega orduko sarritten bostak (G)
- etorri orduko yon dire oira (U.)
- ensegida ierteutzen beyeri gortara yon orduko/ seoser aobedadetxu (U.)

3.9.1.1.1.4.5. ORDUREKO

Beronek erabilera bi euki ditzake; batean menpeko esaldiaren ekintza nagusiarena baino lehen betetzen da; bestean, ostera, nagusiarena bete eta segiduan:

3.9.1.1.1.4.5.1. Bata bestea baino lehen:

- su etorri ordureko akabata ongo da (U)

3.9.1.1.1.4.5.2. Bata bestearen ostean:

- sarata bat iñ ordureko txakurre asten da ausike (G)
- truboi asma iñ ordureko oyan barrun sartu ber dala (G)
- akaba iñ ordureko apurtu in da (U.)
- entzun ordureko esetu dot (U.)
- etorri ordureko yon dire oira (U)

3.9.1.1.1.4.6. BAÑO LELAU

- bistu baño lelau ixi bentane (G)
- yan baño lelau garbittu eskuk (G)
- artaburuk a, bota baño lelau orrek labartok erreten siren (G)

- ordun simeldu baño lelau saldu edo yan itten siren, gure denporan (G)
- su etorri baño lelau akaba dot bearra (U.)
- eurok ona etor siren ordun bueno osaba gotzon a' il baño lelau te ni eskondu baño lelau (U.)
- yan baño lelau eskuk garbittu ixus (U)

3.9.1.1.1.4.7. ARTEN

- aik etorri artean emen ongo gara (G)
- itxedongo datzu akaba arten (G)
- etorri arten emen egongo gare (U.)
- itxeron ingo datzu akaba arten (U.)

Indarra edo enfasia areagotzeko "ARIK ETA" erabiltzen da; adibidez:

- emen egongo gara arik eta etor arten (G)
- esotzen itxi yoten arik eta aitte ill arten (G)

3.9.1.1.1.4.8. ALA

- iñ ala saltxen dittus (G)
- etorri ala yarri (G)

Beronen ordez honako beste hau ere erabiltzen da:

- selan etorri alan yarri (G)
- selan a. irebasi alan gasta (G)
- selan koxu alan yaten dittus (U)

3.9.1.1.1.4.9. AUNKE

Berau gorago ikusiko "-ARREN" eta "-AITTIK"en ordez inoiz edo behin agertzen da:

- aunke denpora txarra iñ esta lotxen etzen (G)
- estotzo ingo berbarik aunke parkaeske eskatu (G)
- aunke goixeti etorri esgeunke ikusiko (G)
- aunke kotxen yon belu allegako sinttikes (G)
- aunke diru asko oki estau posik (G)
- aunke euri iñ, beti do basora (G)

3.9.1.2. ADITZ IZENA

Aditz izenak egiteko aditz partizipioari "-TE" erasten zaio, berau morfema ez markatua dugu: hala ere, beronek beste alomorfo bi ere euki ditzake; bata, -TTE; eta bestea, -TXE. Esan beharra dago alomorfo biok zaharren artean baino ez direla erabiltzen, izan ere, gazteek -TE baino ez dute erabiltzen.

"-TE" eranstean gertatzen diren erregela morfologiko eta fonologikoak[32] ikusteko gorago aipatutako aditz partizipioen amaiera desberdinak kontutan hartuko ditugu[33].

---

[32] Tonuari dagozkion erregelak suprasegmentalen atalean ikus daitezke eta ez ditugu hemen berriro errepikatuko.
[33] Ikus bedi aditz partizipioaren atala 481. orrialdean.

-A

nastate	ordenate	atarate
podate	botate	kantate

-E

errete	gordete	ernete

-I

Berauen artean bereiztu behar ditugu talde bi: batean /i/ desagertu egiten da, eta bestean, ostera, gorde egiten da /t/ palatalizatu egiten dela.

a) -I--> O

aste	ikuste	yoste
ekarte	etorte	yauste

b) -I/[t]---> [ʧ]

ixitte	iritte	bustitte
ebaitte	eukitte	igusitte

-O

yayote	iote	yote

-TU/-DU

Berauen artean, gorago esaneko moduan, zaharren ereduaren arabera hiru talde bereiztu behar dira, hots, "-TE", "-TXE" eta "-TTE" alomorfoen arabera.

-TTE

Berau "-DU"ren aurrean /i/ agertzen denean erabiltzen da; adibidez[34]:

mogitte	segitte	sentitte

-TXE

Berau "-TU" amaieradun bisilabo batzurekin erabiltzen da; adibidez[35]:

artxe	batxe	lotxe
saltxe	sartxe	

-TE

Gainerako kasu guztietan berau erabiltzen da; adibidez:

---

[34] Gazteek "mogidute", "segidute" eta "sentidute" erabiltzen dituzte.
[35] Gazteek :artute:, "batute", "lotute", e.a. erabiltzen dituzte.

asarratute	makurtute	billetute
eskondute	banandute	otzittute
berotute	lusetute	yorratute

-N

edate	urtete	yote
yate	erote	

"-N"ren aurrean /i/ agertzen denetan /t/ palatalizatu egiten da:

itte	eraitte	irikitte

-L

iltte

Aditz izenak sortzeko erabiltzen diren erregelak honela sailka ditzakegu:

/n/ amaieradun aditzekin:

(1) n---> ø/ ____te

/i/ amaieradun aditzekin:

(2) i---> ø/ [ś, ŕ]____te

"-IDU" amaieradun aditzetarako, hiztun zaharren ereduaren arabera, honako beste erregelok proposatu behar ditugu:

(3) du---> ø/ i____te

(4) t---> t̪/ [i,j] C$_{\bullet}$___te

Azken erregela hau kasu honetan ezeze beti aplikatu behar dela esan beharra dago.

Aurreko erregelak aplikatuz gero honela geratuko litzaiguke aditz izenen deribazioa:

ekarri - te	prijidu - te	allega - te	ikusi - te	eraïn - te	yon - te

Afijazioa eginez gero:

ekarrite	prijidute	allegate	ikusite	erainte	yonte

(1) erregela aplikatuz:

-	-	-	-	eraite	yote

(2) erregela aplikatuz:

ekarte	-	-	ikuste	-	-

(3) erregela aplikatuz:

-	prijite	-	-	-	-

(4) erregela aplikatuz:

- prijitte - - eraitte -

Azkenik esaten dena honako hau dugu:

ekarte prijitte allegate ikuste eraitte yote

3.9.1.2.1. ADITZ IZENAREN DEKLINABIDEA

Aditz izena behin lortuz gero, beroni deklinabidearen hainbat kasu marka eras dakizkioke. Atal honetan aditz izenari eras dakizkiokeen kasu markak eta berauen erabilerak ikusiko ditugu.

3.9.1.2.1.1. ABSOLUTUA

Aditz izena absolutu kasu markarekin gune bitan ager daiteke, subjetu eta objetu guneetan hain zuzen; adibidez:

Subjetu gunean:

- ori esatea, esta ona (G)[36]
- bason ibilttea, ona da (G)
- aitteri gustako leyo kanpora yote edo (U.)
- umeri gustako litzikie ondo yate (U.)

ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

aho	ezpain	mihi	mihinpeko
txistu	gorro	ahosabai	adur
hortz	hagin	letagin	esneko hagin
juizioko hagin	txatxur	oi	txatxar
haginetako ur	kauskitu	gorazko	okotz
okozpe	barre	barre egin	santzo
algara	kuku barre	berba egin	berba
haginka egin	mamurtu	irentsi	amasa hartu

marmar	sokorru	sokorru egin	mosu
ahopean berba	deitu	zurrut egin	hasperen
isil	isildu	ahobero	gustatu
gustu	mutu	berbaltu	jinjaun
zizipaza	hats	xurgatu	lamiskatu

60. IDUNA.
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

idun	zintzur	iztarri	kokota
gorgoil	hestegorri	ito	irato
urkatu	kusun egin		

61. GORPUTZA
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

gorputz	gorpu	buler	papar
diti	kolko	bizkar	lepo
sorbalda	albo	tripa	zil
txikota	sorburu	konkor	konkordun
bizkar hezur	lepazur	saihets	txikotan

62. ZANGOAK
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987) ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

zango	izter	belaun	belaun buru
zankape	belauniko	belaunikotu	berna
txanka	orkatil	oin	orpo
oinazpi	behatz	aztal	kailo
egostu	zapaldu	oinutsik	herren
hankamotz	zanbo	ostikada	ostiko
korritu	korrikune	ibilera	jausi

63. BESOAK
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

beso	besape	ukondo	eskutur
ukabil	esku	eskuhar	atzamar
orkoro	atzazal	hazpizar	eskuma
ezker	ezkerti	eskumati	eskutada
ukabilkada	zaplada	txalo	jo
liartu	koju	oratu	ikutu
ikumen	leun	latz	gogor
bigun	gogortu	bigundu	apatz
laztandu	iguzi	igurdi	laztan
bero	hotz	epel	maingu
gili gili	gili gili egin		

64. MOGIMENDUAK

ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

zutunik	zutundu	altxatu	jaiki
makurtu	labandu	laban	etzan
saltatu	saltu	estropezatu	hankarteko
kukulomiso	ahozpez	aratinik	narraz
bilatu	pulunpatu	txirinbuelta	eroan
ekarri	besoak auma	lau txakur	kisketan

65. AZALA

ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

azal	horizta	orainen	gari
garau	gorriune	begitxindor	azkordin
zaldar	poro	tximur	zauri
zoldu	materia	postila	urbatu
odolbatu	kozkor	handitu	orbain
erredura	txatximarka	txatximarka egin	piltxikada
kolpe	ubeldura	erreune	hazkura
hazka egin	inurritu	intzebagi	erbatz
izerdi	izerditu	haragi	haragi bizi
ezkabi	ezkabizto	zorrizto	

66. ITXURA.

ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), ETXEBARRIA (1983-b), VIDEGAIN (1984)

argal	argaldu	lodi	loditu
hazi	altu	baxu	handi
txikar	luze	labur	gizonkote
andrakote	ñoto	itxura	baragarri
trope	arlote	narrats	baldar

67. OSASUNA

ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), BARANDIARAN (1989), BARRIOLA (1979), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987), GARMENDIA, (1990), VIDEGAIN (1984)

osasun	gaiso	gaisotu	gaisotasun
gaisoki	osatu	kutsatu	elgorri
nafarreri	asto nafarreri	tirizia	unore
bizien	min	kalte	gaitz
sukar	hotzikara	dardar	mingarri
larri	larritasun	zanetenez	begizko

68. ARNASA.

ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987) VIDEGAIN (1984)

biri	bronkio	arnasa hartu	albain
arbindu	ito	itolarri	itoaldi
arnasa	zirriparra	hozpera	

69. LEXERIKETA.
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987)
VIDEGAIN (1984)

urdail	gibel	behaztun	hare
heste	bihozturi	errebesa	errebesatu
goragale	beherazko	idorreria	bihotzerre
bihozgain	bihozgainean lotu	kalte egin	gaitz egin
antoju	antojagarri	anburu	bizio
zotin			

70. ZIRKULAZIOA
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987)
VIDEGAIN (1984)

bihotz	odol	zan	tentsio
taupada	odolustu	odol jario	

71. SEKREZIOAK
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987)
VIDEGAIN (1984)

guntzurrun	puxika	garnu	txiza
txizalarri	kaka	kakalarri	uzkar

72. IBILKERA.
ALVAR (1963), ERKOREKA, A. (1979), ERKOREKA, A. (1985), ERKOREKA, A. (1987)
VIDEGAIN (1984)

hezur	un	gihar	zan
trokatu	hezur imintzaile	hezurra atera	igeltsatu

73. GOSEA
ALVAR (1963), VIDEGAIN (1984)

gose	gose handi	goseak tragatu	jan
jatun	jakar	ase	tripakada
tripontzi	mizkin	miliki	kopu
gonbidatu	gonbidadutza	gonbidadu egun	

74. EGARRIA
ALVAR (1963), VIDEGAIN (1984)

egarri	egarriak ito	edan	tragu
zurrutada	mozkorti	mozkor	mozkortu
txolindu	edari	ur	ardo
sagardau	txakolin		

75. LOGURA
ALVAR (1963), VIDEGAIN (1984)

logura	lo egin	lotara	loti
eldarnio	loak hartu	loak eroan	etzan

itzarri	nagiak atera	altxatu	lo oste
aharrausi	aharrausi egin	zurruna egin	zurrun
amesetan egin	amesa	amesgaizto	bigao
lomatu	lotaldi		

76. GIZONEN JANTZIAK

AGIRREAZKUENAGA (1973-74), ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), DE GOÑI (1975-76), ETXEBARRIA (1975-76), VIDEGAIN (1984)

jantzi	erantzi	bilustu	bilutsik
narru hutsean	atzekoz aurrera	azpikoz gainera	iruntzitara
besoutsik	bernautsik	praka	poltsiko
praka barren	mengel	garriko	alkondara
idun	jaka	txamarra	bonbarre
jertse	elastiko	kaltzontzilo	brusa
galtzerdi	txapin	txapel	zapi
txokolo	txanklo	abarketa	zinta
abarka	abarka lokarri	bortzegi	zapata
oinetako	zoru	takoi	lokarri
kibila	lustre	oinutsik	sakadiz
erloju	erloju kate	petaka	ieska
aterki			

77. ANDREEN JANTZIAK

AGIRREAZKUENAGA (1973-74), ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), DE GOÑI (1975-76), ETXEBARRIA (1975-76), VIDEGAIN (1984)

jantzi	soineko	magal	gona
izur	atorra	azpiko gona	idun zapi
buruko zapi	zapi belarri	burukorratz	galtza
gonutz	boltsa	arrakada	eraztun
urre	zilar	amental	fartikera
dindirri	lepoko zapi		

78. UMEEN GAUZAK

ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), VIDEGAIN (1984)

faldoi	oihal	puxa	kuma
kumari erain	txinbo	olgatu	olgeta
jagon	aiule	panpina	ziba

79. UMEEKIKO BERBAK

AZKUE (1935), LEKUONA (1984-c), ZAMARRIPA (1957)

handi-handi	apapan	apatxe	atatan
aupa	ap	bekereke	bilinbolaka
dilin-dalan	dingili-dangala	kili-kolo	kokolo batxi
lolo	mama	masustatxu	mitxina
mosolo	mosu merke	pa	pa emon
papa	papata	papau	papauten
papur	pipi	pitxi	pitxin
potxon	plausta	plisti-plasta	popolo
potolo	punba	punbale	pupu
saskel	saskeldo	taka-taka	tapa-tapa
tas-tas	tale	tipi-tapa	txirrin
toto	totonoxo	txitain	tato

tatan	txaka-txaka	txanbelin	txankirrin
txapiskola	txatxa	txera	txetxe
txibiskeri	txilin	txin	txipli-txapla
sapa-sapa	firi-firi	txitxi	txolintxu
txor-txor	txurku	txut	platusa

80. JOKOAK, KARTAK

BARANDIRAN (1976), VIDEGAIN (1984)

musika	jolas	soinu	soinulari
pandero	pandero jole	dantza	dantzari
kanta	kantari	kantatu	bertso
bertsolari	txistu	txistulari	danboril
dultzaina	bolo	bolari	pelota
pelotari	idi proba	postura	soka dantza
karta joko	karta	urre	kopa
ezpata	basto	bateko	hiruko
txanka	zaldi	errege	nahastu
ebaki	banandu	tokatu	briska
azpi	fu	keinu	mus
handi	txikar	pare	joku
puntu	pasatu	gura izan	jo
enbido	hordago	hamarreko	tantu
tute	kantatu	parra egin	irabazi
galdu			

81. FAMILIA

AGIRREAZKUENAGA (1973-74), ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), DE GOÑI (1975-76, 375. or.), ETXEBARRIA (1975-76), VIDEGAIN (1984)

familia	aita	ama	seme
alaba	anaia	neba	arreba
ahizta	gurasoak	semealabak	nebarrebak
aitita	amama	loba	birraitita
birramama	birloba	senar	emazte
senar-emazteak	osaba	izeko	loba
lehengusu	lehengusina	bigarren lehengus	ahaide
aitaginarreba	amaginarreba	suhin	erran
koinatu	koinata	aiteordeko	amaordeko
semeordeko	alabaordeko	anaiaordeko	nebaordeko
ahiztaordeko	arrebaordeko	haurdun	erdi
jaio	olhaleko ume	biki	zein
nagusi	ume	neskato	mutiko
neskatila	neska	mutil	

82. FAMILI HARREMANAK

AGIRREAZKUENAGA (1973-74), ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), DE GOÑI (1975-76, 375. or.), ETXEBARRIA (1975-76), VIDEGAIN (1984)

bataiatu	bataio	aitabitxi	amabitxi
besoetako	gizon	andre	senargai
emaztegai	deiona	ezkontza	ezkondu
eztei	alargun	banandu	bizi alargun
umezurtz	huriko	gazte	zahar
gaztaro	zahartzaro	agure	atso
mutil zahar	neska zahar	bardingo	zazpiki
inude	etxekotu	dote	arreo

83. AKATSAK ETA TASUNAK
ALVAR (1963), VIDEGAIN (1984)

zentzun	ganora	zentzunbako	ganorabako
ohitura	oroimen	arrazoi	borondate
maitasun	gura izan	gurago izan	mezpreziatu
haserre	itxaropen	joera	bekaitz
jelosia	itxitasun	zabarkeri	mesedez
kontuz	temati	buru gogor	atsegin
desatsegin	behargin	bizimodu	on
txar	bihurri	oker	artez
okertu	arteztu	enbarazu	harro
harrokeria	egia	gezur	gezurti
lotsa	lotsor	lotsabako	gorroto
amorru	esaneko	esanekoa egin	koipezto
aitazulo	amazulo	etxezulo	

84. HERIOTZA
BARANDIRAN (1976), VIDEGAIN (1984)

heriotza	hil	azken hats	luto
olata	gaubela	zerraldo	anerola
kanposantu	funerala	hileta	heortzi
hilobi	hilarri		

85. ERLIJIOA
BARANDIRAN (1976), VIDEGAIN (1984)

jangoiko	txerren	aingeru	amabirjina
meza	beluko meza	errosario	bederatziurrun
prozesio	errogatiba	sermoi	jarleku
bihotz sakratu	bekatu	arima	altara
abade	apezpiku	monagilo	eraso
sakristau	serora	jaunartze	gurutze
monja	fraide	pulpitu	erromes
eskupeko	aitearen egin	aitortu	erretore
bedeinkatu	bedeinkazio	madarikazio	elizkizun
otoitz	otoitz egin	sinestu	damutu
opetsi	eskatu	barkatu	barkeske
fede	birtute	kontzientzia	aje
sorgin	lamia	azti	sorginkeria

86. LANBIDEAK
ABELLA (1984-14), ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), VIDEGAIN (1984)

arotz	errementari	maisu	maistra
alkate	zinegotzi	behargin	mediku
albaitero	nekazari	alguazil	jostun
ehule	sukaldari	itzain	esneketari
laguntzaile	sasi mediku		

87. ERROTA
LARATZU(1987), VIDEGAIN (1984)

errota	errotari	eho	errotarri

antapara	konporta	txifloi	txaramela
tolba	zaku	zakuto	zorro
eralgi	bahe	galbahe	artza

88. HERRIA MERKATUA
ALVAR (1963), BARANDIRAN (1976), VIDEGAIN (1984)

lagun	adiskide	arerio	haserretu
liskar	errieta	borrokatu	adiskidetu
bake	aberats	pobre	eskeko
aberastu	aberastasun	pobretu	soldaduska
soldadu	merkatu	plaza	azoka
postu	saltoki	bendeja	bendejera
saltzaile	erosle	saldu	erosi
garesti	merke	garestitu	merketu
taberna	ostutu	tabernari	zerbitzari
erosketa	errekardari	errekardaritu	txanda
bezeru	bezeria	molokot egin	denda
dendari	harategi	harakin	oikin
okindegi	arraindegi	arrain saltzaile	fruitadenda
zorrotzaile	zapatari	apupilo	lapur

89. PISU, NEURRI ETA DIRUA
ALVAR (1963), VIDEGAIN (1984)

pisatu	pisu	arin	imina
zelemina	arroa	erralde	neur kordela
libra	libra erdi	kuartilu	kuartilu erdi
azunbre	ontza	diru	txakur handi
txakur txiki	erreal	pezeta	hogerleko
neurtu	neurri	kana	gizelan

90. KOLOREAK.
VIDEGAIN (1984)

kolore	zuri	zuriska	zurbil
beltz	beltzingo	urdin	urdinska
gorri	gorriska	berde	berdeska
hori	horiska	laranja	more
marroi	marroiska	grisa	nabar
larrosa	argi	ilur	bizi

Aurreneko asmoa, beraz, bi mila zazpirehun ta larogei ta sei bat berba jasotzea izan zen: hala ere, eta geroago metodologian zehazten den legez lekukoei galdera orokor asko eta azalpenak eskatu izan zaizkienez eta euren etorria behin ere eten ez zaienez pentsatu baino berba eta adiera gehiago jaso dira.

4.1. METODOLOGIA.

Metodologiari dagokionez esan beharra dago metodo bat baino gehiago erabili izan dela: gaiak eta galdekizuna zehaztuta eduki ondoren metodologia erabaki baino lehen hiru baldintza eduki behar ziren kontutan:

a) Ahal dela galdekizuna euskara hutsez egitea.
b) Mugatzailebako erak, hots, lexia hutsak lortzea.
c) Zehaztasunik handiena esanguretan.

Inkesta bera burutzeko erak direla eta AURREKOETXEAri (1986) jarraikirik honako hauek aipa daitezke:

"Razen joera bat lekukoari bere hizkuntzako eredurik eman behar ez zitzaiola aholkatzen zuena.

Era honetako inkestetan galdera eta ohar guztiak erdal hizkuntza batez emanak ziren, lekukoak ezin hizkuntzako beste eredurik entzun ez zezan eta ondorioz kutsatu ez zedin (414. or.)"

Lexiko alorrean, metodologia honi ez nion interesgarri eritzi, izan ere, gaitasun handiko lekukoak baino ezin erabil zitezkeen alde batetik; baina beste aldetik ere, erdaraz egikeran lekukoak deserosegon ezeze inkestari berari lotu baino ez zaizkio egiten eta ez da gehienetan galdetzen denaz inguruko informaziorik. Aitortu behar da, hala ere, lekukoak elebidunak direnean inoiz edo behin erdara lagungarri izan daitekeela gauza batzu zehazteko; hori dela eta inoiz itaunen bat edo beste erdaraz ere egiten izan dizkiet, ahalil gutxien beti ere.

AURREKOETXEAk (1986) honako beste era hauek ere ematen dizkigu:

"Bigarren joera beten arabera, aurreko eraren aldaki bezala kontsidera daitekeena, inkestagileak ez du hitzik ahoskatuko. Argazkiez baliatuko da, erakusten diren irudien izenak galdetuz (2).

Besteren batzuren artean hirugarren bat ere aipa daiteke. Zera da: lekukoaren hizkuntza bera erabiltzea aurkitu nahi den hitzaren deskribapen edo definizio eta azalpenak emateko (414. or.)"

Marrazkiak eta irudiak erabiltzea nahikoa interesgarria da eta nik zenbait gaietarako erabiltzen izan ditut; hala ere, ALVAR-ek (1991,117) dioenez:

"Por eso hemos empleado fotografías y dibujos en la medida de lo posible. Sin embargo, no siempre se obtiene la coherencia deseable: el hombre no avezado a contemplar reproducciones pierde el sentido de la proporción, se fija en detalles accesorios, es incapaz de identificar en negro lo que la realidad le da coloreado o no acierta con la falta de volumen"

Honelako kasuetan geroagoko egiaztapena beharrezkotzat jotzen izan dut. Bestalde ALVARen oharrez gainera, zenbait kasutan, lekukoek berba ezagutu arren, adierazia ez dute ezagutzen, dela hurbiletik egundo ere ikusi ez dutelako[53], dela gogoa edo tradizioaren bidez heldu zaielako.

---

53 Txori eta pizti zenbaitekin gertatzen da; kasu baterako "arrano" edo "gauontz" ezagutzen dira, baina bata hegaz egiteko eragatik eta bestea egiten duen zaratagatik. Honelako kasuetan marrazkiak alferrikoak dira.

Honelako kasuetan, AURREKOETXEAk emandako bigarren joerako era nahikoa lagungarria izaten da.

Azkenik, AURREKOETXEAk (1986-414) Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako erabakitakoa eta arrazoiak ematen dizkigu:

"Euskal Herriko Hizkuntz Atlaserako 1. atalerako inkestagintzan erdara erabiltzeak daukan kalko-linguistikoen arriskua baztertuz euskaraz aritzea erabaki da..... Inkestagilea euskaraz mintzatzen zaio lekukoari denbora osoan, inkesta bera ahal denik eta "era elkarrizketatu" baten itxura ematen daiatuko delarik"

Berbak jasotzeko lehen aipatutako galdekizun etnografikoak ezeze testo libre esan dakiokeena ere sarri erabili dut.

Jakina denez euskaraz badugu inguruko erdaratan ez daukaten beste arazo bat, hau da, gehienetan lekukoek berbak mugatzailearekin edo deklinaturik ematea. Honek esan gura du beste galderaren bat egin behar izaten zaiela gehienetan lexia hutsa ateratzeko. Honen aldeko arrazoiak ugariak izaten izan dira:

"Hitzaren forma mugatu eta mugagabea ez bereiztea honelako lan batetan onartezina litzateke, zeren artikuluak sortzen dituen aldaketa fonetikoez gain, bera eta -a itsatsia ondo bereiztea nahitaezkoa baita, zientifismo txikiena eman nahi bazaio lanari.
Lexikoaz ari garelarik hitz hutsa behar da, lexema hutsa, beste inolako atzizkirik gabea, artikuluaren eragina morfologian neurtuko baita, izenaren deklinabidea aztertzea."
(AURREKOETXEA (1986-417)

Berba hutsa ateratzeko zenbatzaileak, galdekariak eta adjetiboak ere erabiltzen izan ditugu, lekukoek berbak kontestu horietan eman zitzaten.

Azkenik berben esangura eta adiera zehatzak jasotzea oinarrizko helburua izanik lekukoei azalpenak eta diskripzioak sarri eskatzen izan zaizkie.

Laburpen gisa erabilitako metodoak honela eman ditzakegu:
1. Irudiak, argazkiak.
2. Perifrasia, deskribapena.
3. Galdekizun etnografikoa.(Etnotestuak)
4. Testu libre
5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

Jarraian, gairik gai, berbak jasotzeko, erabili izan dugun metodologia zehaztuko dut.

1. Ugaztunak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

2. Begaztiak : 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

3. Narraztiak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

4. Ehiza eta arrantza: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

5. Insektuak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

6. Zerua eta astroak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre

7. Metereologia: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre

8. Denbora: 2. Perifrasia, deskribapena.

9. Eguna: 2. Perifrasia, deskribapena.

10. Jaiegunak: 2. Perifrasia, deskribapena.

11. Erliebea: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

12. Lurra: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

13. Ibaiak:2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

14. Bideak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

15. Hesiak, mugak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

16. Itsasoa: 2. Perifrasia, deskribapena. 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

17. Basoa, egurra: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

18. Fruituak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

19. Ortua, ortuariak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

20. Basoko landareak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak)

21. Zizak:1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

22. Abelgorria: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

23. Ekinoak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

24. Ardiak, ahuntzak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

25. Txerriak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

26. Oiloak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

27. Txakurra, katua: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

28. Erleak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

29. Eraikuntza: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

30. Etxearen banaketa.: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

31. Teilatua: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

32. Ateak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

33. Leihoak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu.

34. Altzariak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

35. Ohea: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

36. Argia: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

37. Sua: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

38. Sukaldeko tresnak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

39. Ontziteria: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

40. Gurdia: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

41. Buztarria: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

42. Garraiobideak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

43. Lanabesak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

44. Belarra: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

45. Garia: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

46. Artoa: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

47. Ardoa, sagardoa, e.a. : 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

48. Ogia: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

49. Labea: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

50. Jatorduak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

51. Elikagaiak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

52. Sukaldaritza: 2. Perifrasia. deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

53. Garbitasuna: 2. Perifrasia. deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

54. Bogada.: 2. Perifrasia. deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

55. Joskigintza: 2. Perifrasia. deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

56. Aurpegia: 2. Perifrasia. deskribapena

57. Begiak: 2. Perifrasia. deskribapena

58. Sudurra: 2. Perifrasia. deskribapena.

59. Ahoa: 2. Perifrasia. deskribapena.

60. Iduna: 2. Perifrasia. deskribapena

61. Gorputza: 2. Perifrasia. deskribapena

62. Zangoak: 2. Perifrasia. deskribapena.

63. Besoak: 2. Perifrasia. deskribapena.

64. Mogimenduak: 2. Perifrasia. deskribapena.

65. Azala: 2. Perifrasia. deskribapena.

66. Itxura: 2. Perifrasia. deskribapena

67. Osasuna: 2. Perifrasia. deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

68. Arnasa: 2. Perifrasia. deskribapena.

69. Lexeriketa: 2. Perifrasia. deskribapena.

70. Zirkulazioa: 2. Perifrasia. deskribapena.

71. Sekrezioak: 2. Perifrasia, deskribapena.

72. Ibilkera: 2. Perifrasia, deskribapena.

73. Gosea: 2. Perifrasia, deskribapena.

74. Egarria: 2. Perifrasia, deskribapena.

75. Logura: 2. Perifrasia, deskribapena.

76. Gizonen jantziak: 2. Perifrasia, deskribapena.

77. Andreen jantziak: 2. Perifrasia, deskribapena.

78. Umeen gauzak: 2. Perifrasia, deskribapena.

79. Umeekiko berbak: 2. Perifrasia, deskribapena. 5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

80. Jokoak, kartak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre .5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

81. Familia: 2. Perifrasia, deskribapena.

82. Famili harremanak: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre .5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

83. Akatsak eta tasunak: 2. Perifrasia, deskribapena.

84. Heriotza: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre .5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

85. Erlijioa: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre .5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

86. Lanbideak: 2. Perifrasia, deskribapena.

87. Errota: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

88. Herria, merkatua: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre .5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

89. Pisu, neurri eta dirua: 2. Perifrasia, deskribapena. 3. Galdekizun etnografikoa. (Etnotestuak) 4. Testu libre .5. Aurretik jasotako berba emanda lekukoari azalpena eskatu

90. Koloreak: 1. Irudiak, argazkiak. 2. Perifrasia, deskribapena.

4.2. BERBEN AURKEZPENA

Hasieran 2786 berba adiera bakar batekin jasotzeko asmoa bazegoen ere, lexikoian orain 4561 adiera desberdin aurkezten ditut. Lehenago aipatu dudan legez berba gehiago jaso daiteke, baina lan honen helburua deskripzio orokorra egitea izan denez gero zelanbait mugatzeko 1992.eko Urtarrilean jarri dut muga: honek esan gura du aurkezten diren berba guztiak data horren aurrekoak direla, hurrengo lan batzutarako ikerbidea zabalik uzten dudala.

Berben ugalketaren zergatia erabili ditudan etnotestu eta testu libreen metodoetan bilatu behar da, izan ere, lekukoen etorria ez eteleran horrelako grabaketetan agertu diren berba guztiak kontutan hartu ditut. Bestalde, mailebuak, berba konposatuak nahiz eratorriak denak gorde ditut daukaten berezko interesagatik.

Berben aurkezpenari dagokionez, sarrerei buruz honako informazioa ematen da:

1. Sarrera nagusia.
2. Herrien informazioa.
3. Esangura.
4. Adibideak, fraseologia.
5. Azkueren informazioa
6. Laburdurak

1. Sarrera nagusia:

Sarrera nagusia letra larri beltzeskaz ematen da eta beronen ondoan mugatu singularra letra txikarrez ere ematen da koma baten ostean.

2. Herrien informazioa:

Herri bi direnez gero, parentesien artean bakoitzari dagokion laburdura paratu dut: Gatika (G) eta Urduliz (U). Berba bat bietan agertzen denean (D) erabiltzen dut.

3. Esangura.

Esangura euskara normalizatuan ematen dut berbaren ondoan; esangura edo adiera bat baino gehiago dagoenean zenbakien bidez adierazten da.

4. Adibideak.

Komatxoen artean lekukoek emandako esaldiak edo azalpenak paratu ditut; berauen barruan interesatzen den sarrera azpimarratuta agertzen da. Tamalez, kasu guztietan ezin adibiderik bildu izan dut.

5. Azkueren informazioa.

Interesgarri eritzi diot neuk jasotako informazioa AZKUE-k bere hiztegi handian ematen duenarekin alderatzeari. AZKUE-ren hiztegian agertzen denez adierazteko [+ Azkue] eta [- Azkue] erabiltzen ditut. AZKUE-k bere hiztegian berba sartzen izan dituenetan non eta zelan agertzen den ere paratzen dut . Batzutan neuk jasotako berba AZKUE-ren hiztegian agertu arren beste adiera batez agertzen da; honelakoetan [- Azkue] paratzen dut.

6. Laburdurak.:

Zenbait kasutan berbaren esangura hobeto ulertuko delakoan, gramatik kategoriei dagozkien laburdura batzuk erabiltzen ditut:

Izena	(Iz.)
Adjetiboa	(Adj.)
Aditza	(Ad.)
Adberbioa	(Adb.)
Femeninoa	(f.)

A.

ABADE, abade (D) : abade, apaiz.
"ori errin dau abade (G)", "etzerik etze etorten siren abadek (G)", "guk abaderi egi esan dotzu (U)", "yon esin dana egustenen gero urreo domekan iminteutzen abadek (U)"
[• Azkue: abade; 5. orri.]

ABADETZE, abadetze (D): abadetxe, apaizetxe.
"lengoa elixeri deutzela egon san, eta oin dau intte, abadetze dau intte, len kanposantu egon san lekun (G)"
[- Azkue]

ABANTA (G): iraun.
"ordun il san gixajoa, eseun abanta bere pulmoni ori (G)"
[-Azkue]

ABARKA, abarke (D): abarka.
"gure aittittek makiña bat abarka in deu, narrues (G)", "abarka sarrakas etorri tte itxi abarka sarrak sasiarten gordeta an, ta an kanbia sapatak (G)"
[• Azkue: abarka; 6. orri.]

ABARKA KORDEL, abarka kordela (D): abarka kordel, abarkak lotzeko erabiltzen diren lokarriak.
"abarka kordela abarkak amarrateko deken kordela da (G)"
[- Azkue]

ABARKETA, abarkete (D): abarketa.
"abarketa kordela abarketena da (G)"
[• Azkue: abarketa; 6. orri]

ABARKETA KORDEL, abarketa kordela (D) abarketa kordel, abarketak lotzeko erabiltzen diren lokarriak.
"abarketa kordela abarketena da (G)"
[- Azkue]

ABARKETERU, abarketeru (D): abarketaegile, abarketagin.
[- Azkue]

ABARKUNTZE, abarkuntze (G): abarkuntze, abarka-ziri, abarkak egiteko erabiltzen den eztena edo iltze.
[• Azkue: abarkuntze; 6. orri]

ABARO, abaro (D): abaro; baso zarratu, lohia.
"abaro, bai, baso bateri esate akon abaro a, podata ba baju baju a, podata, arbolak, brotek baju daosenen abaro (G)"
[• Azkue: abaro (1); 6. orri]

ABARO IÑ (U): abarotu.
[- Azkue]

ABAROTU (D): abarotu, basoa itxi, lohitu.
"abarotu konpleto in da (G)"
[- Azkue]

ABASUSE, abasuse (D.): abazuza, txingorra; orokorrean esaten da. Era berean, "kaskaragar", "arri" eta "txotor" erabiltzen dira.
[+ Azkue: abazuza; 6. orri]

ABEA (D): oloa.
[- Azkue]

ABENDU, abendu (D): abendu.
[+ Azkue: abendu (1); 7. orri]

ABERASTASUN, aberastasune (D): aberastasun.
[+ Azkue: aberastasun; 7. orri]

ABERASTU (D): aberastu
[+ Azkue: aberastu; 7. orri]

ABERATZ, aberatza (D): aberats
"orrek a. gastaten deu aberatza balitzeles (G)", "añak eukitteesan etze askotan aberatzak atxiñe, aña seka, aña freska, isten siren (G)", "orrek gastaten deu aberatza balittikeles (U)"
[+ Azkue: aberats; 7. orri]

ABERI, aberi (D): aberia.
[- Azkue]

ABERITTU (D): hondatu, aberiatu
[- Azkue]

ABI, abi (D): habia.
"arrikeda bateas apurtu du, abi (G)", "aori aori bai ixetesan, ollori topa ber ixetéakon ia non daon abi tte abi begire la nos don abire (U)"
[+ Azkue: abia (1); 7. orri]

ABIA (D): abiatu, hasi, ekin. Fenomeno admosferikoei buruz berba egikeran erabiltzen da, batez ere.
"bide erdiñ a, edurre abia oskun (G)", "txoriagola imiñi, gari solon, eta txoriagolan artatxorik abi intte bertan (G)", "urtetan yon garenen euri abia deu (U)"
[- Azkue]

ABIADA, abiade (D): abiadura, abiada.
[+ Azkue: abiada (1); 7. orri]

ABISA (D): abisatu, gaztigatu.
"abisa basatose (G)", "lusero badeko kendu barik edo, ikeratu itte san bat, eta ordun abisateakon medikuri, ostantzen etzen intentate san (G)"
[- Azkue]

ABIXERI, abixeri (D): abizari
1. habizari: habian ezartzen den gezurrezko arraultza oiloak egiten bertara joan daitezen.
[+ Azkue: abizari; 8. orri]
2. Usteldutako arraultza.
[- Azkue]

ABIXERITTU (D) Arraultzak usteldu, abizaritu.
"arrotzak ya galdute daosenen abixerittute (G)"
[- Azkue]

ABREBA (U) sua biziagotu.
[- Azkue]

ABROSIDU (D): azpertu.
"abrosidute nau begire (G)", "abrosidute nau itxeroten (U)"
[- Azkue]

ABUSTU, abustu (U): abuztu.
"in doas abustun ogetalaun intte nau (U)"
[- Azkue]

ADABU, adabu (D): adabu, ipinki.
[- Azkue: adabu: 9. orri]

ADAGU, adagu (G): adabu, ipinki.
[- Azkue]

ADAR, adarra (D): adar.
"adarrak eta ondo dekosenak, armere ondo dekona ori da busterri beye, armere ona dekona (G)"
[- Azkue: adar (2): 9. orri]

ADI (D): begira.
"lau sotok alkarreas junta es, se kanporantza adi es baya apur bet alkarreas lau soto juntateko modun goyen amarrata, ori ixengo san berak esan gure ixeune edo (G)", "gora adi da aratenik (G)"
[- Azkue]

ADI EGON (D): begira egon, zain egon.
"sen adi saus? (G)"
[- Azkue]

ADIKUNE, adikune (U): begirakuna.
[- Azkue: adikune: 10. orri.]

ADIKUNE MOTZ, adikune motza (U): haserre.
[- Azkue]

ADISKATU (G): adiskidetu.
[- Azkue]

ADISKIDETU (U): adiskidetu
[- Azkue]

ADUR, adurre (D): adur, lerde.
[- Azkue: adur (1): 11. orri.]

AFALDU (G): afaldu.
"onek belu afaldu eun (G)", "estot ukusi selan afaldu dosuen (G)"
[- Azkue: afaldu: 11. orri.]

AFALOSTE, afaloste (D): afaloste, afalondo.
[- Azkue: afaloste: 11. orri.]

AFAN, afana (D): gogo, nahia, gurari.
[- Azkue]

AFARI, afari (D): afari.
"esteude ekarko es a, es beskaririk eta es afaririk (G)", "amak in deu beskarie ta afari be bai (G)", "amak esteust iñ afaririk (U)"
[+ Azkue: afari: 11. orri.]

AFARI MERIENDA, afari meriende (D): afari merienda.
[- Azkue]

AFARI MERINDA, afari merinde (G): afari merienda.
[- Azkue]

AFARI YAN (D) afaldu.
"afari yan esittearren, yon dires (G)", "afari yan ta gero yon giñen kalera (G)"
[- Azkue]

AFESIÑO, afesiño (G): zaletasun
"ordun bere ostukarren a, afesiño dekonak a, itteun gatetarik (G)"
[- Azkue]

AFILADORE, afiladore (D): zorrotzaile, zorroztaile.
"afiladore edo artesi sorrotzalle dau or, atxiñe andi Butroitti pasaten siren txistu yoten (G)"
[- Azkue]

AFO, afo (U): afo, apatz
[- Azkue]

AFRONTU, afrontu (D): afrontu
"afrontu axe andies itten daunen (U)", "piñu te olan bai a, afrontuaittik eta olan etze albon eta olan imintte bai baya ostantzen es (G)"
[+ Azkue: afrontu; 11. orri.]

AGAN BEDAR, agan bedarra (D): agan belar.
"agan bedarra entzun in dot baya esetu estot itten neuk se bedar dan (U)"
[+ Azkue: agan: 11. orri.]

AGARRA (D): oratu, heldu.
"txakurreri agarra otzet (G)", "ori asta barik isten da, beorrek eukitten deu agarrateko, igual sein matxete baten antzeko (G)", "txakurreri agarra dotzet (U)"
[- Azkue]

AGARTU (G): agertu.
"aurten bere agartuko da bataren bat laster (G)"
[- Azkue]

AGE, age (D): habe, hage
"egurre gusti da age (G)"
[+ Azkue: age: 11. orri.]

AGERTU (D): agertu.
"ni agertu natzu biden (G)", "lau aste die agertu estala (G)", "bason egon garenean agertu san (U)"
[+ Azkue: agertu (1): 12. orri.]

AGINDU
1. (D) agindu
"bai orrek oin bere elixek orrek agintten dittu barau itteko (G)", "estaipa selan medikuk agindute ala selan ixengo san baya, ori ba, sarri entzun du, basalduko iñasio astok salba deu, aston esneas salba sala, txikitxu ixen sanen, nik estaipa medikuk aginduko baeutzen ala selan ixen san baya (G)"

[+ Azkue: agindu (1); 12. orri.]
2. (G) opatu, eskaini
"mille ogerleko agindu tzeas (G)"
[- Azkue]

AGINDUN SERRA, agindun serre (G): hagindun zerra.
[- Azkue]

AGINKE (D): haginka
[+ Azkue: haginka; 12. orri.]

AGINKE IÑ (D): haginka egin
"txakurrek in dotzo aginke etzeti urtekera (G)"
[- Azkue]

AGINKEDA, aginkede (D): haginkada
[+ Azkue: aginkada; 12. orri.]

AGIÑ, agiñe :
1. (D) hortz.
[+ Azkue: agin (1); 12. orri.]
2. (D) hagin. Berba hau denak adierazteko erabiltzen da, batez ere, hortzei esateko; beste barietate batzuetan haginak direnak adierazteko egiten dira bereizketak.
"agin bet ausi deu turroi yaten (G)"
[+ Azkue: agin (2); 12. orri.]
3. (D) erremintei ahoan egiten zaizkien akatzak.
[- Azkue]
4. (U) berakatzen atal.
[- Azkue]

AGIÑETAKO UR, agiñetako ure (D): haginetako ur, haginak kauskitu
"sagar berdek agiñetako ure emon deuste edo atara deuste (G)"
[- Azkue]

AGIRI (D): agiri
"sulo andi bet ba, goye agiri tte beti sue itteko biribille, sulo ta gero askon arten errepartiko en a (G)"
[+ Azkue: agiri (1); 12. orri.]

AGIRIKA (D): agiraka, errieta.
"andra koittede beti asarre ta agirika, beti olan (G)"
[+ Azkue: agiraka; 12. orri.]

AGIRIKA IÑ (D): agirika egin, errietan egin.
[- Azkue]

AGIRIKO IXEN (G): agirikoa izan, agirian egon
[- Azkue]

AGIRIÑ (D): agirian, agerian.
"ta an egosen barku bi edo iru, ondarukok, palu agiriñ (U)"
[- Azkue]

AGO, ago
1. (D) aho. Gaitikan mugatzailea eranstean joera nagusi bi dagoz; zaharrek "agoa" egiten dute, gazteek, ostera, "aua". Berba honen deklinabideari dagokionez leku denborazko kasu markekin mugatzailea ez dela galtzen esan beharra dago: "yaixu aguako", "ataraixu aguati"
[+ Azkue: ago (1); 13. orri.]
2. (D) erreminten ahoa
[+ Azkue: ago (5); 13. orri.]

AGOAKADA, agoakade (D): ahokada
[- Azkue]

AGO LOI, ago loi (D): aho zikin
"ago loi, bai maldesiño asko ta sera ibilten deune (U)"
[- Azkue]

AGONI, agoni (D): hiltzori
" agoni txarra euki deu (G)"
[- Azkue]

AGONIÑ EGON (D): hiltzorian egon
" agonin dau (G)"
[- Azkue]

AGO SABAL, ago sabala (D) aho bero
[- Azkue]

AGOSTU, agostu (D): abuztu
[- Azkue]

AGO TXARREKO, ago txarreko (D): berba txarreko
"berbeta txarreko bateri ago txarreko da ori (G)"
[- Azkue]

AGUANTA (D): iraun.
"orrek egun betzuten aguantaten deu (G)", "aratek gau gustiñ aguanta deu (U)"
[- Azkue]

AGUASILL, aguasille (D): alguazil
"aguasille ixen da urte askotan ori (G)"
[- Azkue]

AGUN, agune (D): agun, apatz.
"agune esaten geuntzen guk urune ondo ioteri, se ondo iota oten esanen talo esan ain goso isten (U)", "talo agune da ori esaten du (G)"
[+ Azkue: agun (3): 14. orri.]

AGUNTASUN, aguntasune (G): aguntasun
[- Azkue]

AGUR (D): agur
[+ Azkue: agur (1): 14. orri.]

AGUR IÑ (D): agur egin
[- Azkue]

AGUR MARI (D): agur mari
"aitte gure bat eta agur mari bet, isten siren erresuk (G)
[- Azkue]

AGURE, agure (D): agure.
[+ Azkue: agure: 14. orri.]

AGURE SAR, agure sarra (D): agure zahar.
[- Azkue]

AIDA (G): aida: ganaduri aurrera egiteko esaten zaio.
[+ Azkue: aida: 14. orri.]

AIDE, aide (D): ahaide, senide.
"ori gure aide da edo aideareteko da (U)"
[• Azkue: aide; 14. orri.]

AIDEARTEKO, aidearteko (D): ahaidearteko, senide.
"ori gure aide da edo aideareteko da (U)"
[- Azkue]

AIKO (D): hara! hara non!
"aiko! ser gure dosu? (G)"
[• Azkue: aiko (2); 16. orri.]

AISTA, aiste (D): ahizta, ahizpa.
"es onek bearren yoten siren a, ba aman neba bi, neba bi ikien ta biek yon siren eta aistarik gasteena (G)"
[• Azkue: aizta; 23. orri.]

AITTAMAK (D): gurasoak.
"aittama barik lotu nitzen (U)"
[• Azkue: aitamak; 19. orri.]

AITTE, aitte (D): aita.
"aitteri ogi emon dotzet (U)", "aittek etzeti bota neu (G)", "gordiñik, bere bai, gustaten dakonari bai, aitte defuntu gureri bere gustate akon, eta printzipiu a, gu txikitxuk ixen giñenen a, aittek arrotza bat eta umek katiliu bet esne indaban osten (G)"
[• Azkue: aita (1); 19. orri.]

AITTEAMAK (D): gurasoak.
"aitteamak asarratu ingo littikes (G)"
[• Azkue: aita-amak; 19. orri.]

AITTEAREN, aittearena (D): aitearen.
[- Azkue]

AITTEAREN IÑ (D): aitearena egin
"aittearen iñ ordureko akaba da edo ixen da (G)"
[- Azkue]

AITTEBITXI, aittebitxi (D): aitabitxi, aitapuntako.
[• Azkue: aitabitxi; 19. orri.]

AITTE GURE, aitte gure (D): aita gure.
"aitte gure bat eta agur mari bet, isten siren erresuk (G)
[- Azkue]

AITTE SANTU, aitte santu (D): aita santu.
[• Azkue: aita santu; 20. orri.]

AITTESULO, aittesulo (D): aitazulo.
[- Azkue]

AITTETAMA (D): gurasoak
"aittetama yon dires (U)"
[• Azkue: aitamak; 19. orri.]

AITTETU (D): aitatu, aipatu.
[• Azkue: aitatu (1); 20. orri.]

AITTITTE, aittitte (D): aitita, aitona.
"beste erdle aittittek eta amomak ibilitteen (G)", "ori guardea ixe san errotakotaringo ixe san errotako, oseake, karmenen amomana nik estaitt ser ixengo san aittitte edo, aittitte edo olan ixengo basan ba, ala asaoko, baya edoselan bere errotakoa, sera ixen san guarde ixen san ta iitte topa eudean ba (G)", "iri a, aittittek etor yasak (U)"
[+ Azkue: aitaita: 20. orri]

AITTITTEAMOMAK (D): aititeamamak, aitonamonak.
[- Azkue]

AITTU (D): aitu, begiratu.
"batak besteri aittu dotze orrek (G) ", "orrek aittu deuste (G)", "alkarreri aittu dotze (U)"
[+ Azkue: aitu (3): 20. orri]

AITTUKUNE, aittukune (G): adikune, begirakune.
[- Azkue]

AITTUKUNE MOTZ, aittukune motza (G): haserre, adikune motza.
[- Azkue]

AIYIBITTE, aiyibitte (G): lokarri biribil.
"kordel biribil bet, atxiñe usate san eta korse, korsek a ba, andra pere atxiñe ibilitteesan korse pere a, aiyibittek ikitteesan a, punte sapata amarre les sartute puntak (G)"
[- Azkue]

AKABA
1. (D) amaitu, bukatu.
"akabaten dosuneko etorriko da (G) ", "etze sarrak a, akabaten dos (G)", "ona etor giñen, esgendun pentza bere in guk, akabata on sanen, permisurik ber dule ona sartxeko (U)"
[- Azkue]
2. (D) Aditz nagusiaren ekintza guztiz amaitu dela adierazteko erabiltzen da laguntzaile gisa.
"au garbittu akaba ingot baya trapu an itxi dot askanen (G)", "egun gustitten egiñeskeronean ba arteko berotasune bere estako otzittu akaba itten (G)"
[- Azkue]

AKABU, akabu (D): amaiera, bukaera
"akabuko urtetan kanpon egonas (G)", "esetu euden a, akabaten kastillo akabaten, esetu euden akabuko a (G)", "ta on sala esateuden ser bat, ori estakiu baya, kasu bet, olan, karatuleas ebilli, eta estaipa seoseaittik iñ a, sera, ta karatule akabun kendu esiñ, bertan lotu eikiola (U)"
[- Azkue]

AKABU EMON (D): amaiera eman
"nire amomak eta esetu euden a, akabaten, akabu emoten orra, ba, mungiko ser bat, mungiko, or yausitte il bere in san (G)"
[- Azkue]

AKABUKO, akabuko (D): amaierako
"ori kanpon onda akabuko urtetan G"
[- Azkue]

AKABURENGO, akaburengo (D): azken, atzen.
[- Azkue]

AKAN, akana (D): akan, txikia dena.
[+ Azkue: akan (1): 23. orri]

AKAR, akarra (D): aker.
[+ Azkue: akar (2): 23. orri]

AKLARA (D): aklaratu, jaboia kendu.
" yabona ta gero aklara (G)"
[- Azkue]

AKORDA (D.): gogoratu.
"akorda nas erosi dosule (G)", "yakin dot baya enas akordate ixen (U)". Aditz honek "-gaz" kasu [illegible]arka behar du: "ori akordaten da erries (G)", "enas akordaten usenaas oiñ (G)"
NOR-NORI erara ere erabil daiteke: "estat akordaten oiñ (G)"
[- Azkue]

AKORDU, akordu (D): akordu, oroitzapen.
"bekonen akordurik badekosu suk? (G)", "suk esetu dosune, akordurik estosu eukiko suk? selan, erretratu bat ikusitz bai sikeran (G)"
[- Azkue]

AKORDUN EUKI (D): gogoan euki.
[- Azkue]

AKULEKADA, akulekade (G): akulakada.
"akulues dabillenen akulekada bat (G)"
[- Azkue]

AKULU, akulu (D): akulu, akuilu.
"akulu itxixu or ganaas miñ in barik (G)"
[• Azkue: akulu : 24. orri]

AKULUKADA, akulukede (U): akulukada
[- Azkue]

ALABA, alabe (D): alaba.
"estekosu alabarik? (U)", "basalduko bertako alaba bakarra ixe san amoma petra (G)"
[• Azkue: alaba (1): 25. orri.]

ALABAORDEKO, alabaordeko (D) alabaordeko, alabaorde.
[• Azkue: alaba-ordeko: 25. orri.]

ALARGUN, alargune (D): alargun.
"alargune lotu san (G)"
[• Azkue: alargun: 26. orri.]

ALARGUNDU (D): alargundu.
[• Azkue: alargundu: 26. orri.]

ALARGUNTZA, alarguntze (G): alarguntza.
[• Azkue: alarguntza: 26. orri.]

ALBAKA, albake (G): albaka.
[• Azkue: albaka: 27. orri.]

ALBANDORROTZ, albandorrotza (D): albandorratz.
"bela firu, firu baño lodiau baya ostantzen fin fiñe isten da, albandorrotza usate san orreas firues, firu firu esan ixeten ori firu baño lodiau (G)", "albandorrotza da laneas yosteko edo mantak yosteko ori orrotz andi ba, laneas yosteko, albandorrotza (U)"
[• Azkue: albandorratz: 27. orri.]

ALBAÑE, albañe (G): albainu
"albañe deko, ori ganaduri esate akon ori atxiñe, berotute albañen dau ori (G)"
[• Azkue: albaiña (2): 27. orri.]

ALBAÑEL, albañela (D): igeltsero
[- Azkue]

ALBATE, albate (D): albate.
[+ Azkue: albate (1): 27. orri.]

ALBO, albo
1. (D) albo, ondo, aldamen.
"gure alboko gixon sarrak ba, matzana, matz asalakas itteun sigarro ta sapeas, garra puntan segidun sigarrori (G)", "piñu te olan bai a, afrontuaittik eta olan etze albon eta olan imintte bai baya ostantzen es (G)
[+ Azkue: albo (1): 27. orri.]
2. (D) gorputzaren albo
"alboko miñe dekot (G)"
[+ Azkue: albo (1): 27. orri.]

ALBO OL, albo ola (D): gurdiaren albotan jartzen diren olak.
[+ Azkue: albol: 28. orri.]

ALBO-ALBOKA (D): albo-alboka
"edanta yoten direnak albo alboka yoten dire (U)"
[- Azkue]

ALBOKO, alboko (D): auzoko, beste aldeko.
[+ Azkue: alboko (2): 28. orri.]

ALBORENGO, alborengo (D): alborengo.
[- Azkue]

ALBOS AITTU (D): alboz begiratu.
[- Azkue]

ALBOSKADA, alboskade (G): albozkada, bultzakada.
[- Azkue]

ALBOSKADAKA (G): albozkadaka, bultzaka.
[- Azkue]

ALBOSKADE EMON (G): albozkada eman, bultzatu.
[- Azkue]

ALDABA, aldabe (D): aldaba
[- Azkue]

ALDAMEN, aldamena (D): aldamen, gurdiaren kaxan albotan dagozen egur luzeak.
[+ Azkue: aldamen (2): 28. orri.]

ALDAMIO, aldamio (D): aldamio.
[+ Azkue: aldamio (3): 28. orri.]

ALDAS BERA (D): aldatz behera.
[- Azkue]

ALDAS GORA (D): aldatz gora
[- Azkue]

ALDATZ, aldatza (D.): aldatz, aldapa.
"Ubarora sartxen da aldatza koxukeran (G)"
[+ Azkue: aldatz: 29. orri.]

ALDATZATZU, aldatzatzu (D): aldaztsu, aldapatsu.
[- Azkue]

ALDE, alde (D): alde
"madari a, gitxi, madari tte olau gitxi dau gure aldetik eta (G)"
[• Azkue: alde (1): 29. orri.]

ALDEA, aldea (D): baserri.
"eskondu nitzenen nire andrek aldea euken (U)", "uriko esate aken atxiñe, uritti ekarten siren asko aldean (G)"
[- Azkue]

ALDEA ETZE, aldea etze (D): baserri.
"a bere aldea etzeti iños urten bari tau te gusta itten dakos onek jenerok ademas (U)"
[- Azkue]

ALDEANU, aldeanu (D): baserritar.
[- Azkue]

ALDEN (D): aldean
[- Azkue]

ALDENDU (D): aldendu, galdu, desagertu.
"onek gixonak ekar daune desaparesidu in da, edo aldendu in da (G)"
[• Azkue: aldendu: 30. orri.]

ALDERDI, alderdi (D): alderdi.
"aittek ba, beran leku, beti alderdi beteti (G)", "sera ixen san guarde ixen san ta ilitte topa eudean ba, or kurtze ta imintte egon san lekun eta asarre ixen siren antza, nire aittitte arratzako aittitten famelies ordun a, guarden alderdie ta or, eta orrek altza esan anajek preso, ilitte topa eudeneko, eta preso ainbet denpora iñ euden oingo les (G)", "buelta itteko geyenen olantxe esaten dotzu buelta, ta ganera kiña itten dako besteri a, arantza yon ditten, beste alderdirantza yon ditten (U)"
[• Azkue: alderdi (2): 30. orri.]

ALDERRI, alderri (D): alderdi.
"oiñ eskeko les dabill alderrik alderri (G)"
[- Azkue]

ALDESKIÑ (G): oker, bihur, aldezkin.
[- Azkue]

ALDESTAYO, aldestayo (D): oker, itxurabako, baldar
[• Azkue: aldestaio: 30. orri.]

ALDETZE, aldetze (G): baserri.
"aldetze bat baneko frutak imingo neukes (G)", "lelao onetan alde etzetan, etzen aurren sulok oten siren, ta ote bota ta an usteldute san, gero kentxeko satza solora eroteko ayeri esateutze selai emen, or itte san satza (G)"
[• Azkue: aldetxe (3): 30. orri.]

ALDI, aldi
1. (D): aldi
"gure aldireko ori ya kendu in san, gitxiao, artekok (U)", "gure aldiñ esta esetu.(G)"
[• Azkue: aldi (1): 30. orri.]
2. (G) zorabio.
"mareo bat edo itten dakonari aldi itten dako (G)"
[- Azkue]

ALDOKER (U): oker, bihur
[- Azkue]

ALEGINDU (D): ahalegindu, saiatu.
"bueno ba, gaur alegindukо nas beraas egoten (G)", "alegindu nas egoten orreas edo, areas (U)"
[- Azkue]

ALEGIÑ, alegiñe (D): ahalegin, aginahal.
[+ Azkue: alegin; 31. orri.]

ALEGIÑE IÑ (D): ahalegina egin.
"ariñ akabateko alegiñe ingot (G)"
[- Azkue]

ALEGRE, alegre (D): alai.
"eta esate san matarifek orikope ta galletatxuk yaten espadittu gatzik estaula artuten, ordun a, alegre alegre txarri ilte san (G)"
[- Azkue]

ALERRESKA (G) segituan, jarraian.
[+ Azkue: alerreska; 32. orri.]

ALERU, aleru (D): teilategal.
[- Azkue]

ALFAFA, alfafe (D): alfalfa
"bedarrak eraitten dires a, ba, frantzesa, sekule bedarra, eta alfafe (G)"
[- Azkue]

ALGARRATZ, algarratza (G): Ribes uva-crispa.
[- Azkue]

AL IXEN (D): ahal izan.
"bakotxak al deune esaten deu (G)"
[+ Azkue: al (1); 24. orri]

ALKAR UTZIÑ (D): elkar huts egin.
"bateti yon besteti etorri, alkar utziñ (G)", "alkar utzin du (U)"
[- Azkue]

ALKARTU (D): elkartu
[+ Azkue: alkartu; 33. orri.]

ALKATE, alkate (D): alkate.
"alkate imin deude (G)"
[+ Azkue: alkate (1); 33. orri.]

ALKILA (D): alokatu.
[- Azkue]

ALKONDARA, alkondare (D): alkondara
"dendara yonas alkondara bat erosteko idean (G)", "eroskot txakete bere bai, eta alkondara ba pere bai (U)"
[+ Azkue: alkandora; 32. orri.]

ALKONDARA UTZEN (D) alkondara hutsean, besoak agirian.
[- Azkue]

ALMUDE, almude (D): buruko.
[- Azkue]

ALMUDE ASAL, almude asala (D): buruko azala.
[- Azkue]

ALOGER, alogera (D): alogera, soldata.
"etze batera bearren yoten danen alogeren, orrek alogereko tires, oiñ esta ibiltten baya len bai, artayorran eta patata yorran edo garik ebaitten edo, etze baterik bestera (U)"
[+ Azkue: aloger; 33. orri.]

ALOGEREKO, alogereko (D): alogereko, soldatapeko.
"etze batera bearren yoten danen alogeren, orrek alogereko tires, oiñ esta ibiltten baya len bai, artayorran eta patata yorran edo garik ebaitten edo, etze baterik bestera (U)"
[+ Azkue: alogereko; 33. orri.]

ALOGEREN EGON (D): alogeran egon, soldatapean egon.
[-Azkue]

ALPER, alperra (D): alper
" Peru, Peru, Peru su sara alperra laster ikusiko dosu alkondara sarra, fraka sarrak soñean (G)"
[+ Azkue: alper; 34. orri.]

ALPERDO, alperdo (D): alperdo, alperrontzi.
[- Azkue]

ALPERKERI, alperkeri (D): alperkeria
"Los diptongos que son comunes a todas las variedades conocidas de la lengua y que se pueden postular como mínimo para el protovasco son au, eu, ai, ei, oi (87, or.)"

beronek aipatutako diptongoen kasuak ikusiko ditugu, izan ere, Urdulizen eta Gatika ere arruntak dira, nahi primarioak nahi sekundarioak edo kontsonanteren baten galeragatik sorturikoak. Diptongo guztiok nahikoa egonkorrak eta ugariak izaten dira.

5.1.1. /AU/ (Ikus bitez 41, 42 eta 43 espektogramak):

aurre	[aʊr̃e]
au	[aʊ]
gaur	[gaʊr̃]
gause	[gaʊs̻e]
lau	[laʊ]

Era berean, kontsonanteren baten galeraren ondorioz sekundarioak ere sarri ematen dira; adibidez:

nausi	[nauśi]
auntz	[aunc]
esaupide	[eśaupide]

Hauezaz ostean, /eu/tik datozenak, batez ere Urdulizen eta gazteen artean, berton sartu beharko genituzke:

auskere	[auśkere]
nau	[nau]
dau	[dau]

Berberauek Urdulizen bertan nagusiagoen artean ondoko beste era honetara ebakitzen dira:

euskere	[euśkere]
neu	[neu]
deu	[deu]

"AO" taldea batzutan /AU/ bilakatu bada ere; adibidez:

txikerrau	"txikarragoa"	[čikeʔau]
dau	"dago"	[dau]
nau	"nago"	[nau]
asau	"asgo"	[aśau]

zaharren artean ez dirudi /o/ren itxiera guztiz burutu denik, izan ere, berauek atzizkiak edo klitikoak jarriz gero ez dute bokalen harmonia erregela betetzen; gazteek, ostera, bai; adibidez:

Zaharrek	Gazteek
daula	daule
dauna	daune
nau ta	nau te

5.1.2. /EU/ (Ikus bitez 44 eta 45 espektogramak):

Diptongo hau nahikoa erabilia da, nahiz gorago aitatukoaren arauera Urdulizko gazteen artean /au/ bihurtzeko joera nabarmena izan, adibidez:

euli	[euli]
euri	[euri]
neu	[neu]
eutzi	[euci]

Kontsonanteren baten galeraren ondorioz ere ematen dira; adibidez:

euki	[eu̯ki]
areñeun	[areɲeu̯n]

5.1.3. /AI/ (Ikus bitez 46, 47 eta 48 espektogramak):

Nahikoa arrunta dugu bai primarioa zein sekundarioa; adibidez:

bai	[baj]
aittitte	[ajtitje]
aitte	[ajte]
gaittus	[gajtuś]

Sekundarioetan hona hemen adibide batzuk:

aittu	[ajtu]
naiko	[najko]

5.1.4. /EI/ (Ikus bitez 49 eta 50 espektogramak):

Berau ere nahikoa arrunta da; adibidez:

seiñ	[śejŋ]
geittu	[gejtu]
sei	[śej]
ogei	[ogej]

Eta sekundarioetan:

bei	[bej]
neiko	[nejko]

5.1.5. /OI/ (Ikus bitez 51, 52, 53 eta 54 espektogramak):

jangoiko	[xaŋgojko]
koipe	[kojpe]
loi	[loj]
emoi	[emoj]
erroi	[eřoj]

5.1.6. DIPTONGO DESEGITEAZ

5.1.6.1. SABAIKETAREN ERAGINA.

/ai/ eta /ei/ diptongoetan jarraian dagozen kontsonanteak sabaitu egiten dira eta horren ostean semibokala desagertu egiten da. Semibokalaren desagerpena (1) eta palatalizazioa (2) harmonia erregelarekin (3) batera erlazionatuta dagoz. HUALDE-ri (1988, 51. or.) jarraikirik erregelen honako ordena proposa dezakegu:

	/arrain-a/	/sein-a/
2	arraiña	seiña
3	arraiñe	seiñe
1	arrañe	señe

Artikuloa eratxekitzean [i] diptongodunetan era bitako joerak aurkitu ditugu; alde batetik [i]ren kontsonantizazioa daukagu, hau da:

(1) i ——> y / ____V

Eta bestetik bokalen harmoniaren erregela:

(2) a ——>e/ i,u C_0____

Hala ere, eta ondoko datuak ikusita:

doi bet	doya
oi bet	oya
bei bet	beye
loi bet	loye
goi bet	goye

erregelak beti orden berean ez direla aplikatzen esan beharko genuke. "doya" eta "oya"ren kasuetan ondoko hau geneukake:

	doi-a	oi-a
(1)	doya	oya
(2)	- - -	- - -

haatik, gainerakoen kasuetan beste ondoko orden hau geneukake:

	bei-a	loi-a	goi-a
(2)	beie	loie	goie
(1)	beye	loye	goye

5.1..6.2. MONOTONGAZIOA

Diptongoak monotongatzeko joera nahikoa nabarmena da aztertzen gabiltzan barietate honetan. Jarraian aurkitu ditudan adibide batzu emango ditut:

/au/> /u/

/arrutze/	[aruce]	"arraultza"
/esupide/	[esupide]	"ezagupide"
/intxurre/	[iɲcure]	"intxaurra"
/belune/	[belune]	"belauna"

/au/> /o/

/arrosi/	[ar̃oś̃i]	"aharrausi"
/garo/	[garo]	"garau"
/arrotza/	[ar̃oca]	"arraultza"

/eu/> /e/

Hemen ematen ditugun kasu biak bertan gertatzen direnak dira:

/deuke/ [deu̯ke]	/deke/ [deke]
/deude/ [deu̯d̯e]	/dere/ [dere]
/neude/ [neu̯d̯e]	/nere/ [nere]

/ai/ > /i/

Hemen ematen ditugun kasu biak bertan gertatzen direnak dira:

/gaittus/ [gai̯tuś]	/gittus/ [gi̯tuś]
/saittut/ [śai̯tut]	/sittut/ [śi̯tut]

/ei/ > /e/

/bengon/	[beŋgon]	"behingoan"
/neskio/[54]	[neśkio]	"neriskio, niezaioke"

/ei/ > /i/


/desiñ/	[deśiŋ]	"desegin"


Edo bertan bietara erabiltzen diren ondoko beste hauek:

/deittus/	[dei̯tuś]	/dittus/	[di̯tuś]
/seinttikes/	[śei̯n̯tikeś]	/sinttikes/	[śi̯n̯tikeś]


[54] Bertan /neiskio/ ere erabiltzen da.


905


[a u F e]


[a ɔ r l]


44
[e ɹ r L] [e ɹ ɐ L]





[e ɯ̟ ɐ i]

46





[a ɬ ʧ ɥ ɓ a ɮ]


[a ɪ ɛ u]

49

[o g e ɣ]





[a F a t o x]

52

[l o ɣ]

916

[p o ɪ t u]


[l o i: t u]

5.2. KONTSONANTISMOA

Atal honetan Gatika eta Urdulizko euskararen fonema kontsonantikoen inbentarioa aurkeztuko dut, hala nola berauen ezaugarriak eta errealizazio fonetiko batzuk ere.

Fonemen inbentarioa egiteko N'DIAYE-k (1970) Baztanerako eta ROTAETXE-k (1978) Onadarrurako ebakitako bideari lotuko natzaio; hau da, oposaketen bidez fonemen identifikazioa egingo dut, eta berauen errealizazioen deskripzioa.

5.2.1. /p/ Ezpainbiko leherkari gorra [p].

- p/t: aspi/asti, epe/ete

- p/b: pare/bare, lapurre/laburre, lobe/lope, parre/barre

- p/m: sape/same, epe/eme

Berbaren hasieran eta erdian nahikoa ugaria bada ere; adibidez: parre, pare, pale, sape, eper, epel, e.a. amaieran birritan baino ez dut jaso: "ap" eta "eup"

5.2.2./b/ Ezpainbiko leherkari ozena [b]

- b/ d: erbi/erdi, arbi/ardi.

- b/p : ikus /p/

- b/m: bille/mille, baye/maye

Berau leherkari gisa hasiera absolutuan eta "n"ren ostean baino ez da agertzen, garaiko kasu guztietan frikatizatu egiten da [b] eginik.

5.2.3. /m/ Ezpainbiko sudurkari ozena [m]

- m/p: ikus /p/

- m/b: ikus /b/

- m/n: sama/sana, ume/une, kame/kane, maye/naye

5.2.4. /f/ Ezpain hortzetako frikari gorra [f]

- f/p: afo/apo

- f/m: firu/miru, fiñe/miñe

- f/s: fiñe/siñe

5.2.5. /t/ Hortzetako leherkari gorra [t]

- t/p: ikus /p/

- t/d: karta/karda, soldu/soltu, ortu/ordu

- t/n: este/esne, ete/ene

- t/l: kate/kale

[t] [i] eta [i]ren ostean sabaikatu egiten da beti [ʧ] bihurtuz; [t] eta [ʧ]ren artean ezin topatu izan dut oposaketarik, hori dela eta [ʧ] alofonotzat baino ezin har dezakegula uste dut.

5.2.6. /d/ Hortzetako leherkari ozena [d]

- d/b: ikus /b/

- d/t: ikus /d/

- d/n: dator/nator, no/do, ude/une

- d/l: dau/lau, ude/ule

Berau leherkari gisa hasiera absolutuan eta "n" eta "l"ren ostean baino ez zaigu agertzen, garaiko kasu guztietan frikatizatu egiten da [ð] bihurtuz.

5.2.7. /c/ Bizkar hobietako afrikari gorra [c]

- c/č: atza/atxa, gatza/gatxa, artze/artxe

- c/ś: atze/ase, otzo/oso

5.2.8. /ś/ Goi hobietako frikari gorra [ś]

- ś/š: kase/kaxe, ase/axe

- ś/c: ikus /c/

- ś/č: asa/atxa, sera/txera, sarri/txarri, sorro/txorro

5.2.9. /n/ Goi hobietako sudurkari ozena [n]

- n/t: ikus /t/

- n/d: ikus /d/

- n/ŋ: kana/kaña, ana/aña, bano/baño

- n/l: neuke/leuke, une/ule, ona/ola

5.2.10. /l/ Goi hobietako albokari ozena.

- l/t: ikus /t/

- l/d: ikus /d/

- l/n: ikus /n/

- l/r: ule/ure, solo/soro

5.2.11. /r/ Goi hobietako dardakari bakun ozena [r]

- r/d: iri/idi, ede/ere

- r/l: ikus /l/

- r/r̃: ure/urre, ara/arra, pare/parre, bare/barre

5.2.12. /r̃/ Goi hobietako dardakari aniztun ozena [r̃]

- r̃/r: ikus /r/

5.2.13. /s̆/ Sabai aurreko frikari gorra [s̆]

- s̆/ś: ikus /ś/

- s̆/c: ikus /c/

- s̆/č: axe/atxe, koxo/kotxo

5.2.14. /č/ Sabai aurreko afrikari gorra [č]

- č/c: ikus /c/

- č/ ś: ikus /ś/

- č/ s̆: ikus /s̆/

5.2.15. /n̰/ Sabaiko sudurkari ozena [n̰]

- n̰/n: ikus /n/

- n̰/m: kaña/kama, señe/seme, aña/ama

5.2.16. /ŷ/ Sabaiko afrikari ozena [ŷ]

- y/i: yo/io

Berau afrikari gisa hasieran baino ez da agertzen, garaiko kasuetan frikatizatu egiten da [y] bihurturik.

- y/ļ: maye/malle, saye/salle

5.2.17. /ļ/ Sabaiko albokari ozena [ļ]

- ļ/y: ikus /y/

5.2.18. /k/ Beloko leherkari gorra [k]

- k/p: kare/pare, orko/orpo

- k/t: esku/estu, asko/asto

- k/g: ekarri/egarri, akarra/agarra

5.2.19. /g/ Beloko leherkari ozena [g]

- g/d: egur/edur, argi/ardi, edo/ego

- g/k: ikus /k/

Berau leherkari gisa hasiera absolutuan eta "n"ren ostean baino ez da agertzen, garaiko kasu guztietan frikatizatu egiten da [g̱] eginik.

5.2.20. /x/ Beloko frikari gorra [x]

Berau guztiz marginala dela esan beharra dago, batez ere maileguetan eta berba berezi batzutan agertzen da; adibidez:

/jaune/	[xaụne]
/jangoiko/	[xaṇgoịko]
/anaje/	[anaxe]
/jente/	[xeṇte]
/antoju/	[aṇtoxu]

etab...

5.2.21. FONEMEN TAULA:

	Ezpaineta-koak	Ezpain hor-tzetakoak	Hortzetako-ak	Bizkar hobietakoak	Hobietako-ak	Subukoak	Belokoak
Leherkari gorak	p		t				k
Leherkari ozenak	b		d				g
Sudurkariak	m				n	ŋ	
Frikariak		f				y	x
Frikari txistukariak					ś	ź	
Afrikariak				c		č	
Albokariak					l	ļ	
Dardа Bak					r		
Dardа Aniz.					r̃		

5.2.22. KONTSONANTEEN BANAKETA.

Kontsonante guztiak ez dira gune guztietan agertzen; batzuk hasieran ezin ager daitezke, beste batzuk, ostera, amaieran. Hona hemen egongunearen arauerako taula:

	Hasieran	Amaieran
p	parre, pare	ap, eup
b	bare, basa	-
m	malluki, merke	-
f	firu, fiñe	-
t	talo, tanga	dot, dekot, bat
d	domeke, doya	-
c	-	matz, orrotz
n	naiko, nagusi	non, emen
ś	sape, seme	dekoas, semeas
l	lobe, lore	ol,
r		-
r̃		txakur, atxur, intxur
ŋ		iñ, seiñ
y	yon, yan	-
ź		dakix, goix
č	txakur, txori	gatx
ļ	-	i l l
k	kuku, katu	onak, katuk
g	gorri, garri	-
x	jente, jaune	-

5.2.22.1. Hasierako kontsonanteen taula.

	Ezpunetakoak	Ezpain hortzetakoak	Hortzetakoak	Bizkar hobietakoak	Hobietakoak	Sabaikoak	Belokoak
Leherkari gorrak	p		t				k
Leherkari ozenak	b		d				g
Sudurkariak	m				n		
Frikariak		f				y	x
Frikari txistukariak					ʂ		
Afrikariak						ʧ	
Albokariak					l		
Darda. Bak							
Darda Aniz.							

5.2.22.2. Amaierako kontsonanteen taula.

	Ezpunetakoak	Ezpain hortzetakoak	Hortzetakoak	Bizkar hobietakoak	Hobietakoak	Sabaikoak	Belokoak
Leherkari gorrak	p		t				k
Leherkari ozenak							
Sudurkariak					n	ɲ	
Frikariak							
Frikari txistukariak					ʂ	ʃ	
Afrikariak				c		ʧ	
Albokariak					l	ʎ	
Darda. Bak							
Darda Aniz.					ɾ		

52.23. TAULA FONETIKOA.

Ondoko taulan Gatikan eta Urdulizen egiten diren fonema kontsonantiko guztien alofonoak ipini ditut.

	Ezpuneta-koak	Ezpain hortzetakoak	Hortzetako-ak	Bizkar hobietakoak	Hobietako-ak	Sabai aurrekoak	Sabaikoak	Belokoak
Leherkari gorrak	p		t				t̠	k
Leherkari ozenak	b		d					g
Sudurkariak	m	ɱ	n̪		n		ŋ	ŋ
Frikariak		f					ɣ	x
Aproximan.	β̞		ð̞					ɸ
Frikari txistukariak					s̻	ʂ		
Afrikariak				c		ʧ	ʧ̠	
Albokariak		l			l		l̠	
Dardа. Bak					ɾ			
Dardа. Aniz.					r̻			

5.3. ESAKERAK

Eraskin honetan inkestak burutu ahala agertu izan zaizkidan esakerak, esamolde bereziak eta esakuneak ematen ditut alfabetoaren arabera.

ABERATZA INFERNUKO LEBATZA (D): esakune honen antzekoa dugu " Aberatsa, inpernuko lebatza: pobrea zeruko lorea" AZKUE (1935-167)

AGE EUKI (D): familiaren etorkia izatea.
"age deko orrek etzek edosein kasuterako (G)", etzeko erentzi les deke (G)"

AGINDU BAT EMONA BI AGINDUAS KONFORMA ADI (U):

AGINDU BAT EMONA BI AGINDUAS KONFORME IXEN ADI (G)

AGIÑEK BARDINDUTE EUKI (G): zentzuduna, heldua izatea.

AGO BETE ASURREAS ITXI (D): harrituta utzi.
"ago bete asurreas itxi neu orrek (G)"

AGO BETEAS ITXI (G): harrituta, berba egin barik utzi
"ago beteas itxi neu (G)"

AGO BETEN IN BERBA (G): handikerietan ibiltzea

AGO LOI (G): aho zikin, aho bero

AGO MIÑEN IBILI (D): aho mihitan erabili, denen elkarrizketen gaia izatea.

AGO SABAL, ago sabala (D) aho bero

AGOA BETEN IBILI (G): handikerietan ibili

AGOAN IBILI (G): ahoan ibili, txarto esaka ibili.

AGOATAN ARTU (G): ahotan hartu, ahotan ibili.
"agoatan artu ba motibu barik (G)"

AGOATI ATARA BERBE (D): esan erain, ahoatik berba atara.

AI ENE, OI ENE, ETA IÑON MIÑIK ES TA BETI NABIL DOLORES (U)

AITTEAREN IÑ ORDUKO (D): gauzak arin gertatu.

AITTU BETEN (D): begirada bat emanda.
"aittu beten elei esan eser (G)

AITTUKUNE MOTZA (G): haserre, adikune motza.

AKABA DIRE NIRE EMEN EGOTEK (D): joan egin behar dela adierazteko.

ALAN EDO OLAN (D): halan edo holan, edozelan ere.

ALAN ZEIÑ OLAN (U): halan zein hola, edozelan ere.

ALBO GANERA YAUSI (D): albo baten gaineara jausi.

ALBO-ALBOKA (D): albo-alboka

ALGORTA TXARRI GORTA (D)

ALKAR ONDO ARTU (D): idea edo asmo batekoak direnak.
"pentzamendu betekok direnak (G)"

ALKAR PODEROSO IMINTTE EUKI (D): ondasunak erdi bana, bien izenean ipinita eduki.

ALKAR PODEROSO IMIÑI (D): ondasunak erdi bana, bien izenean ipini.

ALKARREAS BAT INTTE EGON (D): Lagun handiak direnak.

AMAKATARIK GORA (G): "gora" aurrera adierazteko erabiltzen da.

AMASA BATEKOK IXEN (D): hari bereko korapiloak
"amasa bateko tire orrek (G)"

AMASORTZIRIK OGERIRARTEKO NESKAK ESATEN DERE, AU ES TA ORI BERES; GERO OGEITABOSTERIK OGEITARRARRERARTEN, AU BAI TTE ORI ES; ETA OGETAMARRETI GERO, SEIÑ AU SEIÑ ORI (U)

AMEN AMEN IÑ, TA NORBERANA IÑ (D): Denari bai esan arren norberarena gero egin.

AMEN PARIE BATA KARAKOLA ETA BESTE BARIE (U)

AMEN, SU OR TA NI EMEN (U)

ANKA YOKON YON (D): arin, korrika joan.

ANTZ OBE EMON (G): antz hobea eman.

ANTZIK EMON BERES (D): huts egin, antzik eman ere ez.

APUR BET GORA BERA (D): Gutxi gora behera
"errotara eroteko apur bet gora bera anege eroteko kilo bat geyau kilo bat gitxiau ixengo san (G)"

APURKE APURKE (D): apurka-apurka.

APUTXUKE APUTXUKE (D): apurtxuka-apurtxuka.

ARI ARIKO IXEN (G): hari, orekoa izan.

ARRE ARRE AUSOAK IN SEDIEN BARRE (U)

ARRE ARRE BASTARRAK IN SEDIEN BARRE (G)

ARTEK ARTU ESIÑIK IBILLI (D): Itota ibili, lasaitu barik ibili.

ASPALDIKO PARTES (D): aspaldiko partez.

ASPI YATEN IBILLI (D): azpi jaten ibili, norberaren kalterako ibili.

ASPIREK EKARRI (D): Gazteei joaten direnean esaten zaie goseak edo ekarriko dituelako.
" gose datortzunen etorko sara, aspirek ekarko sittu (U)"

ASTO BATARI BUSTENA KENDU, BESTEARI IMIÑI (D): egin ahalak eginda ere lehenengoan geratu.
"asto bateri bustena kendu te besteri imiñi, emeko gause pagateko ango sertu, leku beten lusero egon berren emeko paga ta an sor apur bet eta ordun olan ixete san (U)"

ASTO YON TA MANDO ETORRI (D)
"seoser itteko usten yon ta bije alperriko itte sanen asto yon ta mando etorri (U)"

ASUR UTZEAS LOTU (D) argal dagoena.

ATASA BATEN (D) bide batez

ATERTU BARIK IN BERBA (D): isildu barik egin berba.

ATZERA MARDO IÑ (G): huts egin, lehenengoan geratu.

AURPEGI ARTU (G): aurpegia hartu.

AURPEGI EMON (D): aurpegia eman.

AURPEGIS AURPEGIS BERBA IÑ (G): Gauzak aurrez aurre esan.

AURRES AURRES TOPA (D): Buruz buru topatu.

AUTZEK EUKI (G): Zorte handia izan, denetarako patu ona izan.
"autze tekos edosetarako (G)"

AUTZESPORRUN (D): Korrika, arin, lasaitu barik ibili

BADAESPADAN (G): Badaezpadan.

BAITTE SERA BERE (D): Baita zera ere.

BARRUK AGINDU (D): Barruak agindu, kontzientziak agindu.
"barruk estoste agintten ori itteko (G)"

BASTARRAK BETE DIRU EUKI (G): diru asko daukanari buruz esaten da.

BASTARRIK ANDAR (G): Hara eta hona ibili.

BAT, BI, IRU, LAU SAGUSARRAK YANGO NAU, SAGU SARRAN ALKATE MARIA MARIA PELUKE (G): Umeen jokoetan nork lo egin behar duen jakiteko egiten den silabeoa.

BATA BESTE PODEROSO IMIÑI (G): Erdi bana eduki, ondasunak bien izenean eduki.

BATEK GURE ES ETA BESTEK BER ES (D): Batek gura ez eta besteak behar ez.

BEA YOTA ITXI (D): Beha jota utzi, lur jota utzi
"emon dotze palisa bat bea yo arten, bea yota itxi deude (G)", "txarto etorri betek bea yota itxi deude (G)"

BEGI ARGI IÑ (D):Norberaren erakoa izan
"norberan erako ixen dala (G)"

BEGI BALTZA IXEN (D): Begi beltza izan
"begi baltza da ori"

BEGI DUSTIK ESTERE BARDIÑ IKUSTEN (U): Begi guztiek ez dute berdin ikusten.

BEGI GUSTIK BATERA ESTERE NEGAR ITTEN (D): Begi guztiek batera ez dute negarrik egiten.

BEGI ONEKO IXEN (D): Begi onekoa izan.
"begi oneko da ori (G)"

BEGIK ANDIAOK EUKI GOSE BAÑO (D): Begiak handiagoak eduki gosea baino.

BEGITTEKOTZAT ARTU (D): Txartzat hartu; mania, tirria hartu.
"begittekotzat artu neu ni (G)"

BEGITTEKOTZAT EUKI (D): Txartzat eduki; mania tirria eduki.
"begittekotzat deko jentek (G)"

BELARRIK ATARA (D): Mehatxua umeei esaten zaie okerren bat egiten dutenean.
"belarrik atarako tzues (G)"

BENE BENETAN (D): Bene benetan.

BERANGO SOLTERO Y SIN MANO (U)

BERBA TXARREKO (G): Berba txarrekoa.

BERBA UTZE IXEN (G): Berritsu, berbaldun, berba hutsa izan.

BERBE ATARA ESIÑIK EGON (G): Berba eragin ezinik egon.

BERBE EMON (D): Berba eman.

BERBE KANBIA (D) Gaia aldatu

BERBE YAN (D): Berba jan.
"berbe yan deu orrek baya ni lengon nau (G)"

BERDE IBILLI (D): Haserre ibili.

BERO BERO IÑ (D) Jo, bero bero egin.

BERTAN BERA ITXI (D): Bertan behera utzi.

BESOK AUME INTTE EGON (D): Ezer ere egin barik egon, besoak gurutzatuta egon.

BETE BETEN EGON (D): Bete betean egon.

BETEKADA BAT IÑ (D): Betekada bat egin, tripakada bat egin.
"betekada bat in deu te txarto ibil da (G)

BIDE BETEN ETORRI (D): Bide betean etorri, albo-alboka mozkor etorri.

BILBO IKUSI (D): Umeak burutik hartuta eta altxatuta Bilbo ikusteko esaten zaie.

BILINBOLAKA (U): Bilin-bolaka

BILDURREK YOTA EGON (D): Bildurrak jota egon.

BISKAITARRA YAN TA OTZ (D): Bizkaitarra jan eta hotz.

BURUS BERA (D): Buruz behera.
"ganorabako ori, burus bera dabill ori (G)"

BUSKENTZAK ORDE BETI (U): Buzkantzak ordea beti.

DAONEN BONBON ESTAONEN EGON (D): Dagoenean bonbon ez dagoenean egon.

DAUSENAK ALDEN ETA ALEGRE KALLEN (G): Dagozenean aldean eta alegre kalean.

DEMANDAN IBILLI (D): Liskarrean ibili, agirika ibili.

DINGILI-DANGOLO IBILLI (D): Herrenka ibili.

DIRU ERREMENTARI (G): Dirua errementaria.

EDERRA SARTU (D): Ederra, galanta sartu.
"ederra sartu dotzo! (G)"

EDUR URTE GARI URTE (D)

EGARRIES ITTOTA EGON (U): Egarriak itota egon.

EGARRIK YOTA EGON (U): Egarriak jota egon.

EGUNE BARIK (D): Eguna egin barik
"egune barik altza da oitti (G)"

EGUSKI SARTZAITTE ONA BIER EGURALDI ONA (G)

EMOYOSU GATZA ORRERI (D): Umeen gainean, gehienetan, esaten da zerozer harrigarri egiten dutenean.

ENTZUN ETA GOR IÑ (D): Entzun eta gor egin.

EPELAK EMON (G): Ziria sartu.
"epelak emon deustes (G)

EPERDIN GANERA YAUSI (D): Ipurdiaren gainera jausi.

EPERDIRAÑOKO MOSKORRA (D): Mozkor handia.
"eperdirañoko moskorraas egon da (G)"

ERANDIO LEYOA ETA LOYU ARTO ASKO ERAIÑ ETA GITXI KOYU (U)

ERAS EUKI (D): Eraz eduki.

ERDIMERKE EROSI (D): Erdimerke erosi.

ERDIMERKE SALDU (D): Erdimerke saldu.

ERREMINTTE TXARRA IXEN (U): Pertsona ganorabako, moldegaitza izan.

ESAN ONEKO (U): Esan onekoa.

ESAN TA IÑ (D): Esan eta egin.

ESAN TXARREKO (U): Esan txarrekoa.

ESANAK ESAN (G): Esanak esan
"esanak esanta bere lengon dau ori (G)"

ESANEGIÑEK PARKATU, ATE ONDON SAKATU (G): Esan eginak parkatu eta ondo sakatu.

ESANERA ETORRI (D): Esanera etorri.

ES BURURIK TE ES BUSTENIK (D): Ez bururik eta ez buztanik
"es bururik te es bustenik esteko onek (G)

ESENTZUN IÑ (D): Ez entzun egin.

ESERRESEN EGON (D): Ezer ezean egon.

ESERRESEN LOTU (D): Ezer ezean geratu.

ESIKUSI IÑ (D): Ez ikusi egin.

ESIN BESTEN (D): Ezin bestean.

ESKUK BOTA (D): Lagundu

ESKUN DIRUES EROSI (D): Eskuan diruz ordaindu.

ESTU TE LARRI EGON (D): Estu eta larri egon
" estu te larri dau seoseaittik (G)"

ES YAKIÑ IÑ (G): Ez jakin egin.

ES YAKIÑEN EGON (D): Ez jakinean egon.

ETORRI ANDI EUKI (G): Berba hutsa izan eta diru asko eduki ere bai.

ETORRI ANDIKO IXEN (G): Berba hutsa izan eta diru asko eduki ere bai.

ETZE UTZE YANTZI (G): Etxe hutsa jantzi.

ETZEKO ANDI IXEN (G): Etxekoekin konfiantza handikoa izan.

EURI ETXALEN EGON (G): Euria botalean egon.

GABON EGUNE EGUN ILLUNE (G): Gabon eguna egun iluna.

GALANTAK EMON (D): Galantak, ederrak eman.

GALDU GORDEN (G): Galdu gordean.

GANADU ONA PARA (G): Haserratu
"ganadu ona parako da".

GANORABAKO MARIMANDAKO (G)

GARI BASATARA TA ARTO PRASATARA (G): Garia basatara eta artoa brasatara.

GARIXUME BAÑO LUSEAO IXEN (D): Garizuma baino luzeagoa izan.

GARROTE OTZEN (U): Kolpeka.

GATIKA ARTOA YAN SATIKA (U)

GATZEN ARDURERIK ES EUKI (G): Gatzen ardurarik ez eduki. Ardurabakoa izan diru kontietarako.
" orrek esteko gatzen ardurerik (G)"

GAUEK EKARRI (G): Gazteren bat joanez gero gauak ekarriko duela esaten da.

GAURRIK GORA (G): Gaurtik aurrera.

GAUSA BAKOTXA BERE SASOIÑ (D): Gauza bakoitza bere sasoian.

GAUTXORI IXEN (G): Gau txori, gau zalea izan.
"gautxori da ori (D)"

GELDI EGON ESIÑEKO IXEN (D): Geldi egon ezinnekoa izan
"geldi egon esiñeko da ori"

GERISPEKO IREN ANTZA EUKI (D): Aragala denari esaten zaio.

GERO, OTZA ESTANA BERO (D)

GESU BETEN (D): Berehala, behingoan
"erdu gesu beten(G)" "gesu beten yongo nas (G)"

GILTZE EMON (U): Giltza eman.

GILTZEPEN IXI (U): Giltzapean itxi.

GITARRA YO (D): Txakurrak atzeko hanka batez hazka egiten duenean gitarra joten dabilela esaten da.

GIXONA BETI GIXONA (G): Gizona beti gizona.

GOIS GORRI ARRATZEN EURI, ARRATZALDE GORRI GOIXEN AXE (U)

GOIS GORRI ILLUNDIREKO ITTURRI (U): goiz gorri ilunderako iturri.

GOIXEN EGUSKI TTE ATZALDEN EURI MARTIKO EGURALDI (U): goizean eguzki eta arratsaldean euria Martiko eguraldia.
GORA YO (G): Auzietan apelazioa egin, gora jo.

GORRIK PASA (D): Gorriak pasatu.

GORRINGO BIKOK IXEN (G): Pertsona ona izan.

GOSE BEDARRA SAPALDU (G): Jatun onari esaten zaio.
"gose bedarra sapaldu dosu suk (G)"

GOSEK IL BER (U): Goseak hil behar, sano gose izan.

GOSEK ILLIK EGON (U): Goseak hilik egon.

GOSEK TRAGA (U): Goseak tragatu.

GOYEK BERA ETORRI (G): Goiak behera etorri
"goyek bera etor dakos (G)"

GOYEK ETA BEAK YO (U): Goiak eta beheak jausi.

GOYEK YAUSI (G): Goiak jausi.

GURE MUTILLE YATEKO OPILLE (G): Gure mutila, jateko opila.

IBILLIN IBILLIN (G): Ibiliaren ibillan, ibillaren poderioz.
"ibillin ibillin topa dot (G)"

INFERNUKO BARRABASA BAÑO OKERRAU IXEN (U): Infernuko barrabasa baino okerragoa izan.

INFERNUKOK ARTUTE EGON (G): Infernukoek hartuta egon.

IÑON PENTZUN EGON (G): Inoren ustean egon.

IRETARGI LABA GANEN EGON (G): Umeak barreka hurrengoan negar egiteko dagozenean esaten da.

ITTO BEARREN (D): Ito beharrean
"karraderan itto bearren dabill (G)"

ITXUREN YAUBE IXEN (G): Ituraren jabea izan
"esta itxuren yaube (G)"

ITZURI ARGI IÑ (G): Itsuari argia egin
"ona saus su itzuri argi itteko (G)"

JANGOIKOK LAGUNDU DIXULE (D): Jangoikoak lagun diezazula.

JESUS MARIA TA JOSE MILLE BIDER (D)

JOSE MOSE YANTA BERE GOSE, EDANTA BERE EGARRI, JOSE BETI BARAGARRI (U): Daukaguna baino gehiago gura izaten dugula adierazteko erabiltzen da.

JOSE YANTA BERE GOSE, EDANTA BERE EGARRI JOSE BARAGARRI (G): Daukaguna baino gehiago gura izaten dugula adierazteko erabiltzen da.

KARAKOLA ETA BAREA PAREA (G)

KATIKA ARTOA YAN SATIKA (G)

KATU BALEGO ERRU (G): Katua balego berari errua.

KIRRIMURRU IBILI (G) Ohean bueltaka ibiltzea da

KISKETEN IBILI (D): Hanka baten gainean ibili.

KOKOLO-MONGOLO (G): Kokolo-mongolo.

KOKOTEKO KOTXO (U): Kokotekoa emanez gero kokoteko kotxoak hiltzen ei dira.

KRISTONAK ESAN (U): Itzelak esan.

KUKURIK KUKURE (G) Urte batetik bestera

KUSUN IÑ (G): Jatekoa okerreko lekutik joan
"kusun in deu (G)"

LENGO MODUN LOTU (D): Lehenengo moduan geratu.

LENGON EGON (D): Lehenengoa egon.
"berbe yan deu orrek baya ni lengon nau (G)"

LOGUREK ERRETA EGON (D): Logurak erreta egon.

MARDO EUKI (G): Barruan gordetzen den hasarre.
"sues asarre nau ni baya estotzut erakutziko, baya barrun dekot (G)"

MOTZA KATU KOROTZA (G): Umeei esaten zaie.

MUNDUN BADA BERES (G): Ezelan ere ez.

MUNDURIK ANDAR (U): Hara eta hona ibili.

MUNGIA LAPUR GUSTIEN TOKIA (U)

MUNGIA LAPUR GUSTIN TOKIA (G)

NARRES BIXI (D): Narraz bizi, txarto bizi.
"narres bixi da ori bear asko itten deuleko (G)"

NASTE BORRASTE (U): Nahaste borraste.

NASTE PORRASTE (D): Nahaste borraste.

NON ERROMERI AN SANTA MARI (G): Parrandazaleen gainean esaten da.

OBA ES (D): Hobe ez!

ODOL BARIK LOTU (G): Ikaratu.

ODOLAK IL (G): Ikaratu

OLAN BEARRIK (G): Hola beharrik

ON IN DEIXULE (D): On egin diezazula.

ONDO AITTU (G): Ondo eritzi, ondo begitandu

ONDO ESAN BEARREKO IXEN (G): Ondo esan beharrekoa izan.

ONDO ETORRI (G): Bat etorri
"enator ondo orreas (G)"

ONEN ONA IXEN (D): Onean ona izan
"onen ona da ori (G)"

OÑESKORIK GURE ES, TA SALDI GANEKORIK ETORRI ES (D): Oinezkorik gura ez, zaldizkorik etorri ez.

ORDEKO EMON (D): Ordekoa eman.

OSO OSON ESAN (D): Oso osoan esan

OSO OSON YAUSI (D): Oso osoan jausi.

OSTAS OSTAS (G): Ozta-ozta

OTZAK ILLIK EGON (U): Hotzak hilik egon.

PERLESIÑE EUKI (G): Urduria, egon ezinekoa izan.

PISTARIK EMON BERES (G) Zekena denaz esaten da.
"orrek elei emon pistari pere (G)"

PITTEN PITTEN (G): Pitan-pitan, sarritan.

PLISTI-PLASTA EMON (D): Jo, plisti-plasta eman.

-REN EGARRI EUKI (D): -ren egarria eduki.
" orren egarri deko (G)"

-REN EGARRIES EGON (D): -ren egarriz egon
" orren egarries dau (G)"

SALDI ANDI GANEN YON GURE IXEN (U): Harroa denaz esaten da.

SAME YOKATU (D): Lepoa jokatu.

SAN JUAN SELAN ETORRI ALAN YOAN (G)

SAN SIMON ETA SAN YUDA YOAN DA UDA TA BADATOR NEGUA (U)

SANTA BARBARA SANTA KRUS JAUNA BALIA SAKIGUS (G)

SAPO EUKI (G) Hasarre egon, gorroto izan iragarri barik
"barrun deko sapo ori gordeta (G)"

SAYETZAK AUSI (D): Deionak egin, hiru dira.

SERUKO KATU IXEN (G) Pertsona onari esaten zaio.

SOÑU BAKO ERROMERI (D): Umeak negarrez eta zalapartaka dabiltzela.

SOPELANA DONDE EL BURRO TOCO LA CAMPANA (G)

SOPE TA ESKONTZE BERO IXEN BER DEUDE (G):Zopa eta ezkontza berotan.

SOR ETA LOR (G): Nahita nahi ez

SORRI ABERASTU (G): Zorri aberastua.

SOTZ ERREMENTARI (U): zotz errementari

SURRUNE LES IN LO (U): Zurruna legez egin lo.

SU TE NI BALIENTEK ETA BI (G)

SULO BIKO MADARIKETU (G): Hau irain handienetarikoa da.

SURRUNE MODUN EGON LO (D): Zurruna moduan egon lo.

SURRUT ETA PURRUT IÑ (G): Edan eta uzkerra bota

TANBOLIN BAKO ERROMERI (U): Umeak negarrez eta zalapartaka dabiltzela.

TARDANTZE EMON (D): Umeei esaten zaie aguantaezin egonez gero bete bategana joateko eta emateko "tardantze".

TAYO ONEKO IXEN (G): Itxura onekoa izan: kontrakoa "aldestayo" da.

TRENTIN TXARREKO (D): Ganorabakoa.

TRENTIN TXARREN (D): Ganora barik
"trentin txarren dabill ori (G)"

TRENTIÑ ONEKO (D): Ganorazkoa.

TRENTIÑ ONEN (G): Ganoraz ibili
"trentiñ onen dabill ori (G)"

TRIPASORRI (G): Tripa zorri.

TRIPEKADE IÑ (D): Tripakada, betekada egin.

TUPIN TAPA YON (G): Mozkor, ardoz beterik joan.

TXAKUR TXIKER BATEN PUPU ETA LAU MARIN TRAPU (G)

TXANKA PISTOLA (U): Hanka argalak dauzkanari esaten zaio.

TXARREN TXARRA IXEN (G): Txarrean txarra izan
"txarren txarra da ori"

TXARTO ESAN BEARREKO IXEN (G): Txarto esan beharrekoa izan.

TXIKERRA BADA ENANA, ANDI BADA TANGANA, BARRABAS ANDRAK BETI DEKE SERESANA (U)

TXOR TXOR TXOR EGON (D): Berbaz egon.

UMEN SENTZUNE ETZEN ENTZUNE (G): Umeen zentzuna etxean entzuna.

UMEK SER IKUSI A IKISI (D): Umeek zer ikusi ha ikasi.

UMEK UME EMEN TA MADRILLEN BERE (G)

URTE TXARRI ONA IXEN (G): Gutxi janda sano hazi dena.
" urte txarri ona ixen da ori, gitxi yanta andi asi da (G)

USIN TXARRA ARTU (D): Usain txarra hartu.

YAI EGUNEKO YANTZI (D): Jai eguneko jantzi.

YOKUNE LAU ETORKUNE (G): Joakune lakoa etorkune.

YOKUNE LAU ETORRERE (G): Joakune lako etorrera.

YOTA EGON (D) Nekatuta egoten denean

5.4. TESTUAK ETA ESALDIAK

Eraskin honetan tesia burutu ahal izateko jaso ditudan testu labur eta esaldi bilduma emango ditut lekukorik lekuko.

5.4.1. GATIKAKO BIBIANA BARANDIKA

- orrek esteu eser erosi tte, dana yan deu
- esta etorri etzera eta, esteu geittu bere
- eurok bakarrik estire etorri, neu be etor nas
- esteude ekarko es a, es beskarirık eta es afarirık
- atzo eseun geittu te, gaur bere estator
- eurok bakarrik esteude iñ, geupere in du
- estotzet esango aitteri es, amari bes
- andi ixen nei txikerra ixen bardin da
- etzen nei a, kallean beti daus berbetan
- bateti bildurre dekopaya, besterako yon gure neuke
- seuek etorri nei geu yon bardin da
- emen nei bilbon igual doste
- egon saittes emen, eser esan barik
- esta etorri baya estau lebarik
- bateti etor gure deela diñe baya besteti kotxerik estekela
- bason nei gortan, bason ixen nei gortan ixen beti deku bearra
- estokure in deixun
- estokure ixen ekar deyen
- estosu pentzaten etorko direla?
- estere esan akaba deela ala?
- pregunta ixu geyau yan gure badeude
- esayosu ia badatos bier
- suk pentzateosu etorko direla?
- ori estala emeko entzun deude, entzun deu batebatek
- ori a, neu onasen señeas etor da
- ogi ekar deun a, ume edo señe estau
- pregunta dee geuk pregunta dun andreaittik
- ori gixona yon garen lekuko esta emeko
- estot esetuten a, orren erri
- makaldu te, ariñ il san
- entzun in doteneko esetu dot
- itteko idean yonas baya estot iñ
- etze sarrak a, akabaten dos
- aunkesea oñes, yongo gara
- estotzet emongo a, belauneko eskatuten bados bere
- diru a, emoteko ekar dotzune, esta etorri
- orrek a, geu ixen garan lekure dos

- geu ixen garan a, laguneana ixen dire orrek
- au libiru dekotena da
- au libiru dekoten a, gixonantzako da
- bota in dere ni ixen nasen a, etze, ni ixen nasen lekuko etze edo
- erosi tte ensegida galdu dot
- txakurrek ausi itten deu sarata bat entzuten deuneko
- yateko idean etor da baya esteu yan
- iaketa emen gausen, yongo gara ukusten
- iaketa etor saran lotu saittes a, afaritten
- beiñ asieskeron akaba in ber da
- ori eleitte egon baketan a, gaixorik egonta bere
- gure esteule in deu
- iaketa asiosun akaba
- beiñ iñeskeron saldu in berko da
- ieketa seutakixun esaixu seuk
- aunke denpora txarra iñ esta lotxen etzen
- kanpoko ixenarren a, euskera ikis deu orrek
- ori esatea, esta ona
- bason ibilttea, ona da
- orrek estau esan etorko dala
- yon da etorteko
- estot pentzaten belu etorko dana
- afari yan esittearren, yon dires, edo yon dires afari yan esittearren
- estaitt akaba badeude dana
- estaitt etor badires
- ori etorte gure dot
- orrek a, emen egote gure deude
- badakitt etor dana
- badakitt a, astelena selan dan
- badakitt akaba deena dana
- bai etor da
- yakin dot etor direna
- grasik etor dana!
- grasik akaba deudena!
- seguru akaba deena!
- seguru emeko dana!
- esan dotzupa ekar dotela
- entzun dot ondo daola
- emen jente asko ukusten da
- ukusten da emen, selan etor diren
- esan dotzut txarto daola
- konturetu nas kanpoko selan saran edo
- ierri dotzut selan kanpoko saran
- ulertu dotzut, bier datosela
- esan dopa, egon garala an
- lastime dekot dana yan esitte
- lastime lelau etorri esitte
- ori andiao da
- au txikerrao da
- ori da mutil gasteena
- ori da andrarik sarrena erriko, erriko andrarik sarrena
- ori andiegi da
- ori txikerregi da
- ori mendi a, andi da edo
- sano andi da edo
- ori etze sano andi da
- ori gastetxu da
- ori loditxu da

- ori esta orren gaste
- ori esta, barri
- esta ain barri
- ori fasillao da
- ori, asko bere, fasillao da edo
- ori asko gasteao da
- ori obe da
- ori obeto dau
- ori txarrau da, ori txarra da
- ori txarrau dau
- kafe berotxu dau
- erreke loi dau
- yateko gasi dau
- ori erriko abade da, edo ori errin dau abade edo
- ori ameriketan dau pastore
- ardau, garrastute dau
- ardau garras dau
- onek gas gitxi deko
- gasa dau
- señe uretara yausi da
- amak imin deu lapiko, lapiko imin deu surten amak edo
- sagarrak loran daus
- orrek eguskitten egon dires
- kaleri kale ibil gara
- atzoko lekun egon gara, atzo on garan lekun egon gara edo
- kamiño batetik etor gara
- sean dekosu ori?
- orren bildurre dekot
- logure dekot itzela edo
- otzak iltte nau
- beyek txal bat in deu
- ardi ill in da
- enas akordaten orreas
- sano argaldu nas
- ori asko akordaten da erries
- esnek irikiñ in deu
- gau gustiñ egon da sarate
- diru faltaten dat edo, estekot
- lagundu dotzut akabaten dana
- orrek itxi deu fumate
- itxi deuste segitten
- orrek etzera ien deu
- kallen itxedon dotzut, edo itxedon dotzut kallen
- itxedon apur beten
- itxi bentane sabalik apur beten
- txakurren agarra otzet, edo agarra otzet txakurreri
- orrek aittu deuste
- geittu dotzut
- ser deritxesu orreri?
- ser dabiltzu or?
- ser diñosu?
- orrek esetuteneu
- niri igual doste
- orrek esteko inportantzirik, edo esteu inporta
- señeri negar erain dotzesu, erain dotze
- orreri etor eraiñ in dotze?
- damutute nau, yan esitte
- yan esittearren da, gure fasillao a, dabilgune

- altza eraiñ in doste goixetik
- orreri, akaba eraiñ in dotze dana
- iru egun barru etorko dires
- oiñ urte bete egonitzen emen
- laugarren egunen etor siren orrek
- ordu erdigarrenen yon siren edo
- ordu bietarten egon gara emen
- uxela etor balitzes beingon
- orrek, esteuste balio
- esineitte yon etzera
- esineitte etorri ariñ
- esiñ egon ixenas emen
- enei yan geyao
- esin dot yan geyao
- basu bete ur emoyostesu
- orrek a, karro bat a, arto ekar deude
- ainbet diru dekot
- ori erosteko ainbet diru dekot, naiko diru dekot
- estekoas bi baño
- orrek diru barik yon dires
- eron apurtu barik
- domekan etorriko nas
- etor danik ona estot ikusi
- ori kanpon egon da, akabuko urtetan
- ori urte batzuten bilbon egon da
- koxixu señe yausi seditten
- ate ixi dot, otzittu sedeitten
- datorrenean egongo nas beraas
- emen egongo gara arik eta etor arten
- ni gañe gaste sara seu bere
- ori gañe andi sara
- orrekañe diru badekosu
- orrek amagañe urte dekos
- estaitt selan esango neuken
- su lau nas ni
- orrek a, balekilleles itten deu berba
- nik sureles in dot
- eurok ekarko derelata nau
  trena galdu dot eta belu nator
- akabaten dosunen yongo gara etzera
- suok akabaten dosun artean, yongo gara etzera
- estot ukusi atzorik ona
- allega sireneko yon siren oira
- ukusi sittut etorten
- pasa saranen geittu dotzut, esta?
- orrek a, nire neben antza deko
- seuk yateko ekar dotzu ori
- basora esin yon litte denpora ona itte espadeu
- asko etor siren baya danak yaeuden
- ori ausitte dau
- ori esan da, edo esanta dau
- medikunen egonitzen
- medikuana ixenas
- umek asi dire ikastolara
- ori plentzire eskondu san
- umek andi in dires
- plentziñ egon gara buelta bat emoten, edo plentziñ emon du buelta bat
- esakune batzuk egoten dire orrepere

- jittanu antza deko
- sorristo lelauko kontu san
- mutil bardingo mutille, koskorra, txikerra beres ta andi beres mutil bardingo
- urreko egunen etor siren
- etzeti datosela pentzaten dot
- durangoko sarala pentzaten dot
- ori gerniken bixi dana da
- oin dosela pentzaten dot
- giltze dekona esta etorri
- ondo in dotela pentzaten dot
- emen dekotela pentzaten dot
- ogi dakarrena emeko da
- seutekosule pentzaten dot
- esan dot geutekule
- orrek in derela pentzaten dot
- nondi satosen yakin gure dot
- ondo in dule pentzaten dot
- dana erosi dotela pentzaten dot
- nik estaitt suk esaten badosu baya guk estu esate ixen klarorik
- seose olan ixeo da kontestasiño orti orrena
- baten ixen giñen
- beiñ a, sues egonitzen an
- bata nei beste usaten du
- gure dot etorte
- gure dot etor saittesan
- ori etor ditten gure dot
- es yateko esan dotzet
- au ekar du yon sedeitten
- erosi dosu eser?, edo eser erosi dosu?
- ikus dosu iñor?
- gausa bat esan gure dere esta?
- egon sara iños or?, edo or egon sara iños?
- ikus dosu batabaten?, edo lekuren baten
- estot ekarri eser
- estot ikusi iñor
- enas egon iños or
- iños da emen geyenen esaten dana
- estot topa lekurik iñon
- ori estator iños goixetik
- estu koxu bapere
- ori estosu ingo ondo eselan bere
- orrek ekar deude seoser
- emen aren itten da euskeras
- batabatera dos
- edoselan bere ondo ingo du
- nosonos etorri dire
- batabat sartu da etzen
- etorri seinttikes nosgure
- esaixu edosein gause
- edoseiñ etor littike
- orrek edoselan itten dee berba
- ori edosein lekun egon leitte
- edosein momentun dos basora
- edosein lekure dos
- bakotxak al deune esaten deu
- iru bakotxak ekar dus
- irune ekar dus
- ori gatxa da norberantza pere

- ilei batek ori
- kotxerik euki esen eleitte yon
- txarto ittekoan obeto da itxi
- basora yotekoan gausak prepara ber dus
- urtete osunean ixi ate
- sue bistukeran erre inas
- maye yan dune apurtute dau
- egon garan taberne aitteas ixi in deude
- gero yongo gara, etor saren basora
- orrek kantaten daki
- atrebidu da koisten
- estudiaten segitten deu
- yaten emon deuste
- pasten itxi deuste
- ume ukus dot, libiru bet legitten ukus dot ume
- ori kantetan entzun dot
- aittu dotzet
- geittu dotzet
- itxedon dotzet
- txakurreri agarra dotzet
- orreri lagundu dotzet etzera
- enas konturetu selan etor diren
- estot ukusi selan afaldu dosuen
- afalten gaus
- euri itten dau
- ser dabiltzu or?
- gaur goixen euri in deu
- ogin bille yon dires
- umek etzera yon dire diru bille
- orrek autobuseri itxedoten daus
- autobusen begire daus
- gausa bat itten deude orrek
- diru barik yon dires
- eron ori apurtu barik
- bi baño estoas ekarri
- ori esta berde asule baño
- sagarrak ain bete daus
- batabateti etor dires
- orren antzera esaten da nosonos baya gitxi
- iru egunen kanpotik ixenas
- ori urte askotan on da amerikan
- senbet egunetan on sara kanpon?
- ori lau asten on da makal
- se etzetan dau?
- seiñ, mendiñ egon sara?
- baso esaten geuntzen guk a, ba, serari, tontorra estau, searrari esaten geuntzen baso atxiñe
- sein bason egon sara?
- iru etzetan egonas
- se etzetako da sure andrea?
- se urtetako da ori ardau?
- se egunetako da señe?
- se koloreko da gone?
- lau urteko ume bat etor da, sein bet etor da
- senbet ateko da etzea?
- se erritteko da ori?
- ori eun kiloko arri da
- se egunetati saus emen?

- se etzetati etor sara?
- sein mendittik ekar dosu ori?
- sein basotik ekar dosu ori?
- nondik satos?
- iru egun da etor estala
- ori gaixoritau a, urte askotan
- lau aste die agertu estala
- atzorik ona estot ukusi
- konturetu nas or daola
- esan dotzut txarto daola
- entendidu dotzut bier datosela
- estaitt nor etor dan
- estakitt nongo dan
- estaitt etorri bada
- estaitt ekar badau
- damututе nas, belu etor naselako
- damututе nas, dana yan esitte
- datorrenean egongo nas beraas
- akabaten dotenen yongo gara etzera
- parkatu belu etor naselako
- lastime lelau etorri enasena
- gerniken bixi dana, gaixoritau
- giltze dekona esta etorri
- yan dun mayea auditte dau
- ixi deude taberne, ori edan gendune
- sillea yarri sarana apurtute dau
- neu egonasen sillan, seu on saran sillan yarri nas
- aik etorri artean emen ongo gara
- itxedongo datzu akaba arten
- datorren bakotxen, lotxen da garbittuten
- berba itten deun gustin diño ba, ifusentekada bat edo
- allega ta ensegida yon san oira
- akaba ta ensegida apurtu da
- bistu baño lelau ixi bentane
- yan baño lelau garbittu eskuk
- datorrenerako akabata ongo da
- akabaten dosuneko etorriko da
- etor danik ona estot ikusi
- ori ekar deunik ona esta etorri
- suk a, neuk, beste diru dekosu
- onek a, anajen beste yan deu
- sukaiñe sagar ekar deude
- nikaiñe edaten dosu
- suk esan dosun modun in du
- beskari prepara du amak esan deun modun
- orretatos geu goixen egon garen lekutik
- koxu deude a, geuk itxi dun lekutik
- dendara yonas alkondara bat erosteko idean
- gues berba itteko idean etor dire
- belu nator utzin dot trena ta
- ori esta etorri belu dalako
- ariñ espadator estau ikusiko
- ariñ etor esen estu ikusko
- esi leitte yon kotxe barik
- kotxe euki esen esi leitte yon
- asko etor dire baya danak a, yango deude, edo afalduko deude
- denpora txarra on arren yongo gara basora
- grasik etor dana!

- grasik akaba deudena!
- klaro etor dana!
- orrek itxi deu fumate
- bano etzera yaten
- ama ukusten etor nas
- pentzateot etor dala
- yan deude aurki
- bier datosela esan deude
- entzun dot txarto daola
- esta lebarik etor esarren
- estau ondo baya balio lei
- ondo egon esarren balio lei
- asko etor dire ta estire kabitten
- ekar euden yateko asko, eta bota in ber gendun
- an naola etor san ama
- bason ibil nitzenen agertu san
- ni sure lau nas
- ori aitte lau da
- ori sure antzeko da
- onek a, nire arreben antza deko
- koxu ala yan
- selan etorri alan yarri
- etorri ala yarri
- bason ibil tte gero yon giñen afaritten
- afari yan ta gero yon giñen kalera
- su ni gañe gaste sara
- ori ama gañe sarra da
- su orrelaseko sara
- ori gitxi esaten da emen
- au sure gañe ona da
- esan dotzut txarto daola
- estotzut esan txarto daola?
- enas konturetu esarala emeko
- elei esan euririk ingo deule
- esteuste esan ingo deudela
- estau klaru etor dala
- akorda nas erosi dosule
- badakitt astelena dana
- emen ikusten da jente asko dabillela
- konturetu nas esarala emeko
- igerri dotzut selan esaran emeko
- seguru etor dana!
- seguru ekar deune!
- gustaten datzu ori?
- etor dire lagunek?
- akaba deude dana?
- ingo du au?
- etor baleittes orrek!
- eon baleittes ondo edo!
- uxela ondo eon baleittes!
- in dot bear bat, sure lau
- au in dot orreles
- orrek berba itten deu balekilles
- orrek a, gastaten deu aberatza balitzeles
- urtekeran ixi ate
- isten yonta, apurtu da giltze edo
- etorkeran ikusi sittut
- sue bistukeran erre san

- yan ta osten yongo gara etzera
- bear in tte osten yango du
- suok akabateosun arten yongo gara etzera
- suok ori itteosun arten preparakot beskari
- ibilli esittea esta ona
- afaldu esittearren yon dires
- berdure yaten dot loditu esitteko
- abrosidute nau begire
- posi nau ukusteas
- itxi deude gari eraitte
- astelena dales, yon gara bearren
- ori kanpoko dales estaki euskerarik
- amarratan afari yan ber bada, oin prepara ber da
- bier yoteakoan, lo yon ber du goixetik, edo arin
- txarra ittekoan esin da oboto
- txarto berba ittekoan oboto ixilik egon
- amarratan afari yatekoan oin prepara ber da
- amarratan yateko oin prepara ber da
- amarratan akaba arren belu ixengo da
- goxeti etor arren ba, estu ikusiko
- ain andi da esta sartxen atetik
- ain txikerra da esta ukusi bere itten
- orrek bide batetik etor dires
- alkondara bat erostekon yonas, erosteko idean yonas
- gues berba itteko idean etor dires
- eun peseta kobraten dere orrek a, kilo
- orduko berreun emoten deittus
- senbeten egon sara?
- ona etor dire orrek, ona bertara
- emen bertan dau
- ara bertara yon dires
- orrek emen eon gittesan gure deude
- gaste da gero ori!
- denpora txarra, edo sano txarra edo
- selau denpora txarra daun bai!
- selaseko otzal, edo otz andi dau edo
- estot ukusi afaritten, estoas ukusi afaritten
- estot ukusi afari yaten, estoas ukusi afari yaten edo
- damututenas belu etorri
- berba itten deun bakotxen, ba, iñusentekeri be tiño
- asko etor dire baya, danak a, afalduko deude
- ukus du etze gorri
- etor da mutil lodi ori
- neska gaste yon da, edo yon da neska gaste
- alkondara sabal bat erosi dot
- andra euskeldun bet etor da
- mutil bixerdo bat etor da, edo bixerdun bet
- mendirik andiena, altuena gorbea da, edo gorbea da mendirik altuena
- errekarik andiena, nerbion da edo, nerbion da andiena
- ain lodi dau, gaixotu in leitte
- andra edadeko bat etor da
- selan urtengo leuken orrek!
- jente asko dao ta ibilli bere eleitte iñ
- estere itxi eser asko yan deude
- ori, seiñ orrek txikerra da ta eneu esetuten
- señek salta in deu
- mutille altu da, ume altu da, edo señe altu da
- erri andi da

- selau da sure errie?
- selan dau yatekoa?
- nik estekot orrenbeste urte
- orrek estekos orrenbeste ardi
- senbet urte dekosus?
- senbet piper ekar dosus?
- amakatako mesara yon dires
- yarritte daus, bero itten deun lekun edo, berotan edo
- epeletan imiñi
- kearten sartu dires
- itxiostesu baketan
- senbet porru ekar deittus?
- senbet seiñ, ume etor dires?
- gausa gitxi entzun deude
- bost ume bota dittues
- etze bi saldu dittues
- baso erretan dau, edo mendi erretan dau, suten dau
- orrek a, domeka gustitten dos mesara
- intxur gitxi ekar deude
- orrek gausa asko in dittus
- senbet etze daus errien?
- senbet madari emon dotzus?
- ume bi etor dires
- iru bei ekar doas
- malluki asko yan dosu suk
- senbet ollosko emon dotzesus?
- au berau etor da
- artuixu ori
- in deude berba beraas
- berantzako ekar du
- bera etor leitte
- emoyosu berari edo
- berorrentzako libiru ekar deu orrek
- berorrentzako emon dotzet diru
- kilo bat a, madaries estau naiko
- bakotxak bi yango dus
- gixon batzuk etor dires
- afari yan deude gixon batzuk
- sagar kiloak asko balio deu edo
- esku bete porrues da naiko
- ume batzuri emon dotzet esne
- gausa batzuk ekar deittus
- neuk ikus dot
- seuk esan dosu
- orrek batera etor dires
- etor dire alkarreas
- batabesteri in dotze berba
- berba in dotze alkarreri
- bientzako ekar deude
- alkarreas yon dires
- geu yongo gara, edo yongo gara geu
- neuk ekar dot sure kotxe
- ukus dosu seure libirue?
- batabateri emongo tzet
- etzen batabat ukuskosu
- norantza doas?
- nor etor da?
- nok yan deu?

- nori emon dotzesu?
- noana etor sara?
- noandik etor sara?
- nondi etor sara?
- noaittik pregunta deude?
- noñe da ori?
- noas etor sara?
- nointzat ekar dosu ori?
- nongo sara?
- nondi satos?
- ser erosi dosu?
- setan yon sara etzera?
- seaittik in dosu ori?
- nora sos?
- non saus?
- ementxe bertan egonas
- an dau, an bertan dau
- edosein moduten egon da, edoselan egon da, edoselan yantzitte
- nosgure yongo gara edo, nosgure datorrela edo
- selangure ilei
- senbegure piper ekar sengis
- ori uku dot iños
- talletu andi da etzena
- ekasus etzeko giltzek
- kisketa ausi in da
- ateko kisketa ausi in da
- yausi in da bentanako kristela
- estekot dirurik
- orrek esteke famelirik
- estekot sure dirurik
- etzen estau ogirik
- emen estau aman ogirik
- astu in dat señentzako libiru
- intte dau beskari aittentzat
- egurresko maye ekar deude
- ori burneisko da
- mimenasko otzare eron deude
- ladrillosko orma bat in deude
- se etzetan dau?
- gorte eulis beteritau
- eskus in deude bear bat
- trenen etor dires
- oñes etor dires
- eskus garbittu dot
- estropajues garbittu dot
- ixi ate giltzeas
- palues yo deu
- loras beteritau
- mallues in deude
- sarra da baya goraño ien deu
- ondo in du olan bere
- pregunta deude niaittik
- iru egun barru ikusko du
- andik, bigarren egunen yon da
- onik eta gabonatara ikusko du
- egun bi onetan estot ukusi
- se etzetara yon dires?
- yon dires iru basorantza

- senbet urteko da señe?
- kristel biko bentana bat imin deude
- yon dires iru mendittera
- bierrarten ongo da emen
- alabeneti dator ori
- amagandik ikisi deu
- bion arten in du bear bat
- orrek esteu euskerarik yakiñ
- nik estot iki dirurik
- galdu ingo littikes basora yoneskeron
- eroste espadere esgenki eron
- ikuste espadere estotze esango
- etorteko esan dotzut
- esayosu orreri lotu dittela emen
- emen egoteko esan dosku amak
- apur beten lotxeko emen esan deude
- parkatu dotzet
- egarri badeko edaten deu
- gose da señe
- logure nas ni
- lotza da neskato
- asko loditu da ori
- argaldu inas ni
- denpora andiñ egon da sarate
- asi gara bearren
- señek asko gure dotzo
- emenau ni
- emenau, ta ser gure dosu
- nora narosu?
- lapiko ganeska dau
- txorro dariola dau
- oneri deutzola beste etze batau
- oiñ aren usaten da, sarrak usaten dere baya, oin barrik es, gastek es
- ekar deu ogi
- ekar dosu ogie?
- estosu ekarri ogie?
- ukusi bestot iñ
- esta etorri bere iñ
- etorri tte ikusi gausa bi dires
- ori basotik etor da, eta nebe etor da solotik
- orrek ekar deu ogi tte guk ardau
- amak in deu beskarie ta afari be bai
- ardi bi il dittus eta auntz bepere bai
- nik estot salduko, es beye eta es idi
- orrek estere iñoas berbarik itten, es sues es nies
- etorko dala esan deu baya nik estot siñestuten
- denpora ona dau baya arrastegiñ euri ingo deu edo
- ori emeko da baya anaje kanpon bixi da
- txakurre baltza da ta katu suri
- lengusuk etor dire ta tipere bai, osabapere bai
- eseuden ikusi plase ta elixe bes
- bat ixen san samudiokoa ta beste leyoako
- batek ekarreun ardau eta bestek a, ogi
- sein gurosu au ala ori beste?
- ori andiao da
- ori txikerrao da
- ni su baño gasteao nas
- ori ni baño sarrao da

- ori obe da, edo ona da
- ori txarrao da edo txarra da
- olan obeto dau
- olan txarrau dau
- ori andiegi da, lar andiegi edo
- ori txikerregi da
- ori da mutillik gasteena
